

# Zu hemen zaude.

# goiena

**puntuak**

Tabakismoaren aurkako pauso sendoak

Axier Lopez kazetariari elkarrizketa



## ALKATETZAK HARTZEKO GERTU

Alkategai irabazleak elkartu ditu GOIENAK hauteskunde biharamunean / 2

Debagoieneko alkategai botatuena -EH Bilduko bost eta EAJko hiru-, Goiena Komunikazio Taldearen egoitzan, martitzenean. XABIER URZELAI



**Julian Untzueta hil da, 89 urterekin, Aramaioko alkate izandakoa eta herriko seme kuttuna** / 23

**Jose Javier Barkero izango da Bergarako futbol talde nagusiaren entrenatzailea** / 47

**Sei debagoiendar izango dira Bazar Nagusi berrietan eta beste bi Nafarroako Parlamentu berrian** / 6

**Osakidetzan irregulartasunak salatu zituen Marta Machori eten egin diote kontratua** / 9

### SINADURAK

 IDIOIA PEÑAKOBA / 8	 AINHOA NARBAIZA IRIZAR / 45
 LIERNI ALTUNA / 23	 XABI GESALAGA / 51

**BERGARAKO JAIK** / 25

**ALTUNA & SAGA**  
OTORRINOLARINGOLOGÍA

**ORAIN ARRASATEN**  
[WWW.ALTUNASAGA.COM](http://WWW.ALTUNASAGA.COM)  
ZUATZU KLINIKA  
NAFARROA ETORBIDEA 4  
943 79 20 18

Doctors listed: CARLOS CHIESA DK, LIZRE ALVAREZ DK, CARLOS SAGA DK, XABIER ALTUNA DK, LIZRE GARCIA IZA DK, JOSE ANGEL GONZALEZ DK.



Debagoieneko alkategai bozkatuenak Arrasaten, martitzenean. XABIER URZELAI

# Bergaran salbu, alkateetzi eutsi diete alderdiek

Udal hauteskundeek ia erabakita utzi dituzte datozen lau urteetan Debagoieneko alkate izango direnak; herri guztietan gehiengo osoa lortu du irabazi duen alderdiak, Arrasaten izan ezik; hor ikusteke dago EAJk eta PSE-EEK bat egingo duten berriro

## Eneko Azurmendi ARRASATE

Beñardo Kortabarría (EH Bildu) izango da Antzuolako alkatea datozen lau urteetan ere. "Lau garren aldiz jarraian EH Bilduren proiektuak gehiengo osoa jaso du. Egonkortutako proiektu bat daukagula sentitzen dugu".

Dio erronka "ugari" dituela herriak. Besteak beste, "hezkuntza eredu mantentzearen aldeko urratsak egitea; azken urteetan eman diguten egurraren ostean, ingurumena zaintzeko konpromisoari eustea; sortzen ditugun hondakinak ahalik eta ondoen

kudeatzen jarraitzea; energia burujabetzaren inguruko proiektu zehatzak aurrera eramatea; ongizate arloan, justizia sozialean oinarritutako eta ezberdintasunik gabeko herri bat eraikitzea".

Hainbat proiektu aipatu ditu: bidegorriak bukatzea, Olanar etxean igogailua jartzea; jolasgune guztien plangintza egitea; eta Basalde auzorako oinezkoendako bidea egitea -ikus 42.orria-.

## Babes handiagoa lortu du

Aramaioko alkate izaten jarraituko duen Lierni Altuna (EH

Bildu) ere "pozik" azaldu da, zinegotzi bat gehiago lortu ostean. "Emaizta hauek erakusten dute herritarrek baloratzen dutela azken urteetan egin dugun lana".

Hondakinek gutxitzen jarraitzea izango da erronka nagusietako bat, Altunaren esanetan. Bestalde, ingurumena "guztion ardura" dela dio, eta hura zaintzen jarraitzeko konpromisoa dutela. Euskararen erabilera igotzea ere erronka izango da. Hainbat proiektu aipatu ditu: "Musika etxea esleitu eta martxan jartzea falta da, eta esko-

lako arrapalaren proiektua exekutatu behar da". Kiroldedia eta Barajuen auzoa ere aipatu ditu -ikus 22. orria-.

## "Lehenbailehen", lanera

Alkatetzan errepikatuko duen beste bat Unai Elkoro (EAJ) izango da, Aretxabaletan. "Guk irabazteko esperantza bageneukan, baina pentsatzen genuen lehia estuagoa izango zela. Pozik gaude. Herritarrek eman diguten babesa handia da, eta horrek indarrak ematen dizkigu lanean jarraitzeko", dio -ikus 17.orria-.

Lehentasuna zein den garbi dauka. "Lehenbailehen, komentuko zaharrendako gunearen proiektuarekin hasi gura dugu. Ahalik eta azkarren egitea komeni zaigu". Santa Kurtzeko saneamendu lanei berriro eutsiko dietela dio. "Lehendik egindako proiektu bat da, eta eguneratu egin beharko dugu, ea auzotarrek nola ikusten duten ikusiz. Hori egin ostean, ea datorren urterako martxan jarri dezakegun", azpimarratu du.

## Kiroldedia, igogailuak eta beste

Arrasaten, Maria Ubarretxenak (EAJ) kalean eurekiko "jarrera positiboa" nabaritzen zuen, eta emaitzek hori berretsi dutela dio. "Indar nagusia izan gara; 700 boto inguru gehiago jaso

ditugu azken hauteskundeekin alderatuz".

Arlo ezberdinetan dago hobetzeko beharra, Ubarretxenaren esanetan, eta horiei aurre egiteko zenbait proiektu dituztela dio: "Arrasatek kiroldegi berri bat behar du, eta horri helduko diogu. Mugikortasun bertikalari ere ekingo diogu, Erguingo igogailu sistemarekin eta Santa Teresako igogailu publikoekin. Oinezkoei lehentasuna ematen joango gara, eta *Ekobulebarra* gauzatuko dugu, Etxaluzetik Maalara joango den bidegorriarekin eta oinezkoentzako espazioak irabazita. Grupo San Juan oinezkoentzat jarriko dugu, eta erdigunean TAO sistema malgua ezarriko dugu. Bestalde, euskara eta parekidetasuna ere landuko ditugu, modu transbertsean, eta kulturari eta komertzioei bultzada emango diegu, Ibai-arterekin dugun harremanak estutuz", dio -ikus 13.orria-.

## Herritarren beharrak, ardatz

Lehen aurpegi berria Gorka Artola (EH Bildu) da, Bergarako alkate izango dena. "Apirilaren 28ko emaitzak hobetzea espero genuen, eta EAJrekiko alde handitzea, eta hala izan da. Oso emaitzak onak dira guretzako".

Berria izanik, erronka pertsonala da "proiektua aurrera eramane ahal izatea, arlo pertsonala alde batera utzi barik eta alkatezaki ni jan gabe". Herrira begira, "proiektuak aurrera eramateko ahalik eta adostasun zabalenak lortzea" izango da erronka nagusia -ikus 44. orria-.

Azpimarratu du "herritarren eskubide eta beharretatik abiatuta" egingo dutela lan. Proiektuei dagokienez, "proiektuak eurak baino, horietara iristeko prozesua interesatzen zaigu gehiago. Emakumeen Txokoa, adibidez, eraikin bat baino gehiago, prozesu oso moduan ikusten dugu, emakumeen ahalduntzean. Bestalde, sorkuntza-gunea edo arte eszenikoaren inguruko proiektu bat ere badugu Elementalerako. EAJk egin duen proposamena interesgarria izan daiteke, gurearekin uztargarria", dio.

## Emaizta "historikoak"

EH Bilduk Elgetan lortu dituen emaitzak "historikoak" dira, datorren agintaldian ere alkate izango den Iratitz Lazkanoren esanetan. "Udal hauteskundetan Elgetan sekula egon den



## Zein izango da bailara mailako erronka?



**BEÑARDO KORTABARRIA**  
ANTZUOLAKO ALKATEA

"Turismoaren inguruko plangintza indartsurik ez da egin urteotan. Hondakin bilketan ez dut uste atzera asko egin denik, baina aurrera ere ez, eta gogoratu behar da hori dela Mankomunitatearen aurrekontuaren zatirik handiena".




**LIERNI ALTUNA**  
ARAMAIOKO ALKATEA

"Gorbeialdeko Kuadrillan, erakundea berritzen jarraitzea da lehentasuna, eta herrien arteko elkarlana sustatzea. Udalerri oso ezberdinak gara, baina elkarguneak aurkitu ditugu. Elkarrekin eramaten ditugu, adibidez, gizarte zerbitzuak".




**UNAI ELKORO**  
ARETXABALETAKO ALKATEA

"Gizarte zerbitzuen mapari bultzada bat eman behar diogu guztion artean, adostasunetara helduta. Hau berria da, eta nik hor jarriko nuke fokua, hori izan beharko litzateke lehentasuna. Arlo horretan, berdin du kolore politikoak".



**MARIA UBARETXENA**  
ARRASATEKO ALKATEA

"Agintaldi honetan gizarte zerbitzuen mapa landu dugu. Oso pauso garrantzitsuak egin ditugu agintaldi honetan, eta orain hainbat xehetasun gauzatzea tokatzen zaigu. Ahalik eta kudeaketa txukunena egiten saiatuko gara gainontzeko zerbitzuetan ere".



**GORKA ARTOLA**  
BERGARAKO ALKATEGAIA

"Eskualde izaera indartu beharko genuke bailaran. Debagoiena barruan hiru bailara desberdin ditugu, eta Mankomunitateak egin dezake kohesioaren aldeko lan bat, turismoan, garapen ekonomikoan eta beste hainbat arlotan".



**IRAITZ LAZKANO**  
ELGETAKO ALKATEA

"Hondakin bilketarekin badaukagu erronkatxo bat, badira hobetzeko gauzak arlo horretan. Bestalde, Debagoieneko kirol txartel bateratua lortzeko saiakera egin beharko genuke eta, gizarte zerbitzuen mapan sakontzea ere inportantea da".



**JOXERRA ZUBIZARRETA**  
ESKORIATZAKO ALKATEA

"Oraindik ez gara elkartu, eta ikusi egin beharko dugu zein izango den datozen urteetako ildo. Hala ere, gizarte zerbitzuen mapan sakontzen jarraitzea interesgarria izango litzatekeela uste dut. Ea zentzu horretan lanak errazten dizkiguten".



**IZARO ELORZA**  
OÑATIKO ALKATEGAIA

"Tokiko garapenari bultzada eman behar diogu, hemengo enplegua sustatu eta hemengo turismoa erakarri. Kanpora begiratu beharrean, gure inguruari bultzada ematea izango da lehentasuna. Hori izan da urteotan faltan sumatu duguna".

zerrenda bozkatuena izan da gurea", azpimarratu du.

Erronka "asko" dituztela adierazi du. "50 puntuko programa bat osatu dugu. Oso zehatzak dira, baina egin daitezkeenak. Helburu handietako bat izango da etxebizitza soziala bultzatzea. Bestalde, alokairu soziala edo-

### ARRASATEKO UDAL GOBERNUA OSATZEKO GILTZA SOZIALISTEK DUTE, LORTUTAKO HIRU ZINEGOTZIEKIN

ta etxebizitza komunitarioen gaia ere inportantea da. Horrez gain, ditugun zerbitzu ezberdinak hobetu eta zabaltzen joatea ere bada asmoa". -ikus 24.orria-.

#### Orain arteko bidetik

Joxerra Zubizarretak (EAJ), Eskoriatzan, alkate segituko du, eta herritarrei eskerrak eman dizkie babesagatik. Datozen lau urteei begira, ildo beretik jarraituko dutela dio, eta proiektuari jarraipena eman, "herritarrekin hitz eginda", haren esanetan.

Hobetzeko beharra "osotasunean" ikusten du: "Hirigintzan, mugikortasunean, argiterian... Badugu zer egin. Hala ere, dagoeneko martxan hasita gaude urratsak egiten, eta proiektuak osatzen jarraituko dugu, orain arteko bidetik". -ikus 19.orria-.

### BERGARAK INOIZ IZAN DUEN ALKATERIK GAZTEENA IZANGO DA GORKA ARTOLA, 30 URTEREKIN

#### Hauteskundeak egin arte

Leintz Gatzagaren kasuan, Juanito Bengoak jarraituko du alkate, zerrenda osatu eta hauteskundeak egin bitartean.

#### Erronka pertsonal "handia"

Izaro Elorza (EH Bildu) izango da Oñatiko alkate, bigarren aurpegi berria. Onartu du emaitza onak espero zituztela, "baina ez hain onak". Izan ere, 2011n eta 2015ean baino boto gehiago lortu dituzte. "Zerrenda ia osoa aldatu arren, herritarren babesa jaso dugu. Horrek esan nahi du gure mezua ulertu

dutela. Proiektu politikoaren zein herri proiektuaren alde egin dute, herrigintzaren alde, oro har".

Erronka pertsonal "handia" izango dela dio. Herrira begira, "gutxienez, egun Oñatin daukagun bizi kalitatea mantentzea izango da erronka nagusia. Esfortzu berezi bat egin beharko dugu, etxebizitzan, garraio publikoan, berdintasunean, pentsioetan, enpleguan eta abar. Tokiko komertzioei bultzada ematen eta politika feministak esparru guztietara zabaltzen saiatuko gara". -ikus 50.orria-.



### Goi eta Erdi mailako Heziketa zikloak Zure Lanerako Bidea



AURREMATRIKULAZIO EPEA ekainaren 3tik 14ra

→ Kirola

→ Erizaintzako zaintza osagarriak

→ Mikroinformatika

→ Osasun larrialdiak

Oinarritzko  
Lanbide Heziketa

→ Etxebizitzan mantentze lanak → Sukaldaritza

943 77 20 25 • lanbideheziketa@arizmendi.eus

www.arizmendipro.eus

**Amaia Zabala Tolosa** DEBAGOIENA

EH Bilduk eskuratu du boto gehien Debagoiengan, 15.000ko langa aise zeharkatuta. Udalgarrantzitsu bat berreskuratu du, gainera, Bergara. Horixe izan da aldaketa bakarria alkatetzei dagokienez, eta EH Bilduk jarraituko du nagusi Oñatin, Antzuolan, Aramaion eta Elgetan. EAJk, ostera, eutsi egin dio Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan.

Sozialistek ere gora egin dute zertxobait, baina Aretxabaletako zinegotzia galdu egin dute. Elkarrekin Podemos koalizioak, ostera, ez du inolaz ere uste zuen emaitzarik lortu, eta orain dela lau urte Irabazik eta Ahal Duguk eskuratutako bost zinegotzi galdu egin dituzte: Arrasaten bi eta bana Bergaran, Aretxabaletan eta Eskoriatzan. Eta PPK ere atzera egin du nabarmen.

#### Alkateak, zehaztuta

Bergara berreskuratu du EH Bilduk, botoen %48,25 eskuratu, eta Gorka Artola izango da alkate; zortzi zinegotzik egingo diote lagun hari. Elena Lete buru duen EAJk, ostera, zazpi zinegotzi eskuratu ditu, eta Bergarako udalbatza osatzen bukatuko du PSE-EEko Alberto Alonsok.

Oñatin ere aurpegi berria izango dute, EH Bilduko Izaro Elorza; Mikel Biainen eskutik jasoko du hark lekukoa. Botoetan gora egin du EH Bilduk; EAJk, ostera, behera, baina udalbatzan ez da izango aldaketarik: EH Bilduk 10 zinegotzi eta EAJk 7 izango dituzte.

#### Aldaketarik ez sei herritan

Gainerako herrietan ez dago aldaketarik alkateteei dagokienez. Arrasaten bederatzi zinegotzi eskuratu ditu EAJk, eta PSE-EEK EH Bildurekin pakturik ez badu egiten behintzat, Maria Ubarretxena izango da beste lau urtez alkate. Haren atzetik geratu da Maider Morras buru duen EH Bildu, zortzi zinegotzirekin; PSE-EEK hiru eskuratu ditu eta Elkarrekin Podemos, bat.

Aretxabaletan ere EAJ izan da nagusi, eta Unai Elkoro izendatuko dute alkate ekainaren 15ean. Bi alderdik bakarrik osatuko dute udalbatza Aretxabaletan lehenengoz; jeltzaleekin batera, Ion Albizu buru duen EH Bilduko sei zinegotzi izango dira. PSE-EEK eta Elkarrekin

# EH Bilduk bost, EAJk hiru

EH Bilduk eskuratu ditu boto gehien Debagoiengan eta, gainera, udalgarrantzitsu bat berreskuratu du, Bergara. Oñatin, Antzuolan, Aramaion eta Elgetan EH Bildu izan da garaile. EAJ, berriz, lehen indarra izan da Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan

## EH Bilduren eta EAJren gorakada



2.696 ↑

Udal hauteskunde hauetan gehien igo den alderdia da EH Bildu. 2015ean baino sei zinegotzi gehiago lortu baititu; denera, 57. Aurreko agintaldian eskualdeko boto guztien %40,39 zuen eta oraingoa, berriz, %45,39. Horretaz gainera, Bergaran irabazita, bailarako sei herriren alkatetza lortu du.



1.188 ↑

Alderdi jeltzaleak ere gora egin du, 2015ean baino 1.188 boto gehiago lortu baititu udal hauteskunde hauetan. Boto guztien %39,63 lortu du eta, denera, 44 udal zinegotzi atera ditu alderdiak. Bergarako alkatetza galdu egin du, baina beste hiru herritan, Arrasate, Aretxabaletan eta Eskoriatzan lehen indarra izan da.



225 ↓

PSE-EEK, gutxi bada ere, behera egin du udal hauteskunde hauetan. 2.657 boto eskuratu ditu, 2015ean baino 225 boto gutxiago. Boto guztien %7,72 lortu du eta Debagoieneko hirugarren indarra da. Zinegotziei dagokienez, guztiak mantendu ditu, Aretxabaletakoa izan ezik. Boto paperen banaketako "hutsegitearen" ondorioz, zinegotzia galdu baitu.




1.375 ↓

Elkarrekin Podemos sekulako beherakada izan du igandeko udal hauteskunde hauetan. Bailara osoan zinegotzi bakarria lortu dute: Arrasatekoa, Igor Urizar, hain zuzen. Aurreko agintaldian, bailaran irabazik lau zinegotzi zituen eta Baleikek, bi. Oraingoa, Elkarrekin Podemos bailaran 1.169 boto lortu ditu eta Irabazik Bergaran, 355.

## DEBAGOIENA

### ZINEGOTZIAK



### EMAITZAK

#### 2019

Alderdia	Botoak	%	Zinegotziak
EH BILDU	15.629	%45,39	57
EAJ	13.646	%39,63	44
PSE-EE	2.657	%7,72	5
ELK. POD.	1.169	%3,40	1
IRABAZI	355	%1,03	0
PP	286	%0,83	0
ARRA. AU.	271	%0,79	0
ELIZATEAK	209	%0,61	1
AHAL DUG.	207	%0,60	0

- Errolda: 50.069.
- Boto emaileak: 35.105.
- Abstentzia: %29,89.

#### 2015

Alderdia	Botoak	%	Zinegotziak
EH BILDU	12.933	%40,59	51
EAJ	12.458	%39,10	40
PSE-EE	2.432	%7,63	6
IRABAZI	1.707	%5,36	4
BALEIKE	1.192	%3,74	2
PP	554	%1,74	0
GU GEU	259	%0,81	4
ELIZATEAK	246	%0,77	1
LGHE	67	%0,21	5

- Errolda: 50.687.
- Boto emaileak: 32.843.
- Abstentzia: %35,20.

ssEPodemosek galdu egin dituzte zinegotziak.

Eskoriatzan Joserra Zubizarreta izango da alkate; gainera, EAJk gora egin du nabarmen, eta zinegotzi bat irabazi. Eluska Irazu zerrendaburu duen EH Bilduk lau zinegotzi izango ditu eta Elizateek, orain arte legez, bat.

Antzuolan ez da izan inolako aldaketarik eta udalbatzaren osaera orain artekoa bezalakoa izango da: EH Bilduk zazpi, EAJk hiru eta PSE-EEK bat. Beñardo Kortabarriak jarraituko du alkate izaten beste agintaldi batez.

Elgetan ere Iraitz Lazkanok jarraituko du, eta, gainera, zinegotzi bat gehiago izango du EH Bilduk. Aintzane Oiarbide buru duen EAJk hartu du Gu Geu Elgetaren txanda, zinegotzi baten galerarekin.

Aramaion ere zinegotzi bat gehiago izango du EH Bilduk, eta nagusitasun osoz aginduko du Lierni Altunak. Jeltzaleek bi zinegotzi bakarrik izango dituzte.

Leintz Gatzagan, ostera, ez da izan udal hauteskunderik, ez delako zerrendarik aurkeztu. Sei hilabete barru berriro egingo dute deialdia.

#### Datu ezberdinak Aretxabaletan

Gipuzkoako Foru Aldundiak jasotako datuak eta Espainiako Barne Ministerioak jasotakoak ez zetozen bat udal hauteskundeetako boto kopuruen kasuan.

Hori dela eta, hauteskunde biamarurean bertan Bergarako hauteskunde batzordera eraman zituzten aktak, berrikusiak izan zitezten. Bertan argitu dute Ministerioaren akats bat izan zela, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako datuak dirala zuzenak. Goienak azken hauek erabili zituen; beraz, hauteskunde gauean eta hurrengo egunetan sarean izan dituen datuak zuzenak dira.

Bestetik, 36 boto baliogabe jaso zituen PSE-EEK. Hutsegite bat dela-eta euren kartazaleetan Sorraluzeko PSE-EEKo boto-paperak banatu zituzten aurreko astean, eta boto horietako batzuk agertu ziren kontaktetan. Arrasateko PSE-EEK 36 boto gehiago behar zituen, zehazki, zinegotzia lortzeko, eta, akats horren ondorioz, barik geratu da.

"36 boto baliogabe jaso ditut, hutsegite bat dela-eta beste herri bateko boto-paperak banatu



Arrasatearrak Ferixalekuan bozkutzen, igande iluntzean. IMANOL SORIANO

zirelako gure kartazaletan. Atarian geratu naiz eta pena handia dut", dio Miren Lorea Lana Aretxabalekako PSEE-EEko zerehendaburuak

#### Udalbatzen eraketak

Udalbatzak ekainaren 15ean eratuko dira eta egun berean izendatuko dituzte alkateak ere. Zortzi herrietako alkateak eta zinegotziak batuta, 108 lagun, dira denera, horietatik 57 gizonenak dira eta 51 emakumeenak. Bestalde, 108 politikarieratik hiruk soilik ez dakite euskaraz.

#### Mankomunitatearen osaera

Behin ekainaren 15ean udalbatzak eratuta, udal bakoitzak hilabeteko epea du Mankomunitaterako bere ordezkariak izendatzeko. Ordezkarien banaketa honen arabera egiten da: 5.000 biztanle arteko udalerriek ordezkari bat, 5.001 eta 10.000 biztanle arteko udalerriek bina, 10.001 eta 20.000 biztanle arteko udalerriek hiru eta 20.001 biztanletik aurrerako udalerriek lau, hain zuzen.

Banaketa hori kontuan izanda, Debagoieneko Mankomunitatean Arrasateko Udalak lau ordezkari izango ditu; Bergarako eta Oñatikoak, hiruna; Aretxabalekakoak, bi; eta Eskoriatza, Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzagakoak, bana. Uztaileko ordezkariak izendatuak izan behar

badute ere, eraketa uztailean edo irailean izan daiteke; momentuz, ez dago egunik zehaztuta. Bergarako Udala EH Bilduk eskuratuta aldaketak egongo dira Mankomunitateko ordezkarietan eta itxura guztien arabera, alderdien artean trukerik ez bada behintzat, EH Bilduk EAJk baino ordezkari bat gehiago izango du. Beraz, Mankomunitateko lehendakaritza ere EH Bildurena izango da.

#### Herritarren balorazioak

Hauteskunde biharamunean, Goiena Telebista kalera ateraz zen herritarren iritziak jasotzera. Oñatin parte hartzeak gora egin du, eta, galdetutako herritarren esanetan, gazteek EH Bilduri botatzeari esker izan da. Bergaran aldaketa dela eta batzuk pozik eta ilusioz daude eta beste batzuk, "disgustu handiarekin", EAJk egindako lanarekin "gustura" zeudelako. Arrasaten ere denetariko iritziak jaso ditu

Goienak, baina gehiengo gatura agertu da Ubarretxenaren garaipenarekin. Erreportajea osoa ikusgai [goiena.eus](http://goiena.eus)-en.

#### Batzar Nagusiak

Bestalde, Batzar Nagusiei dago kienez, Debagoieneko boto emaleek euren boto joera mantendu egin dute, aldaketa oso gutxi izan baita udal hauteskundeetatik horietara. EH Bilduk udal hauteskundeetan 752 boto gehiago izan ditu Gipuzkoako Batzar Nagusikoetan baino. Hala ere, bi hauteskundeetan alderdi botatuen izan da bailaran. EAJko boto emaleen joera izan da alderdi guztietatik gehien mantendu dena bi hauteskundeetan. Izan ere, foru hauteskundeetan, 163 boto gutxiago izan ditu alderdi jeltzaleak.

Bestalde, Debagoieneko hainbat herritan zerrendarik aurkeztu ez duten alderdiek gorakada izan dute Batzar Nagusietarako boto kopuruan. Horrela, Elkarrekin Podemosek 648 boto gehiago lortu ditu udal hauteskundeetan Irabaziren eta Ahal Duguren botoak batuta, PSEEk 619 boto gehiago eta PPK 387 boto gehiago.

Aipatu behar da, Leintz Gatzagako botoak Gipuzkoako Foru Aldundikoetara gehitu direla, baina gatzagarrek ez dutela udal hauteskundeetarako botorik eman, ez baita zerrendarik aurkeztu.

## Milaka bisitari 'Goiena.eus'-en

Goienako lantaldeak hauteskunde jarraipen zehatza egin zuen euskarri guztietan. Batetik, Goiatz Arana eta Txomin Madina aurkezleek gidaturik eskaini zuten hauteskunde inguruko telebista saio berezia, herrietako berriemaileen zuzeneko konexioekin eta Elena Lakaren eta Mikel Irizarren analisiekin osaturik. Ibarreko etxetako telebistetan ikusteaz gain, saioa *streaming* bidez, [Goiena.eus](http://Goiena.eus)-en, 3.000 lagunek ikusi zuten.

Batzar Nagusietako eta Europako hauteskunde jarraipen zehatza eta azkarra egin zuen Goienak. Baita sare sozialetan ere, datuen berri jakin orduko herritarren eskura jarriaz.

[Goiena.eus](http://Goiena.eus)-eko datuei dagokienez, domekan 8.988 erabiltzaile eta 15.606 bisita izan zituen webgunek. Bisitari gehienak 22:00etan izan ziren. Astelehenean, berriz, 10.969 erabiltzaile eta 17.149 saio izan ziren sarean. Bisitari gehienak 08:00etan izan ziren. Hortaz, bi egunetan, orotara, ia 20.000 erabiltzaile, 33.000 bisita eta 118.000 ikusitako orrialde.

Horretaz gain, hauteskunde biharamunean aldizkari berezia argitaratu zuen. Goiena Klubeko kideek etxean jaso zuten eta gainontzekoek ibarreko herrietako okindegi eta kafetegietan irakurtzeko aukera izan zuten goizean goizetik. Denera, 5.000 ale argitaratu ziren.

## Demokraziarenak



ANDER ETXEBERRIA

Demokraziaren egun seinalatua bizi izan genuen domekan. Demokraziak –gutxi dela orri hauean gogoratzen zenez– oinarrizkotzat du gehiengoaren nahia bete behar dela. Indargunetzat du hori, baina, aldi berean, ahultasuna da. Hara, pentsa dezagun lau pertsona daudela; hiruk arroza nahi dute bazkaltzeko eta batek makarroiak. Zer bazkalduko dute? Bozkatu eta emaitza arrozaren alde egongo da. Eta hurrengo egunean? Berritza arroza. Eta hurrengoan? Arroza ere bai. Norbaitek esan dezake hiru egunetan arroza jan dezaketela eta batean makarroiak. Hala ere, bozkatzu gero, egunero-egunero arroza izango dute mahaian. Minorian dagoena konformatu behar...


Horrelako minoria bat Estatu mailan Puigdemont da –Debagoienean 147 boto lortu zituen igandean–. Berarekin, egunotan, demokraziaren auzi berezia bizi dezakegu, "procés"-ari arnas berria emango liokeena: erabakiko da uztailean Europako Parlamentuan eseriko den ala ez. Beste hitz batzuetan esanda, Estatuko eta Europako sistema demokratikoen talka gerta daiteke; Puigdemonten abokatu Boyeren esanetan, "bataila guztien ama". Eta Boyek, gaurdaino, ez du honetan batailarik galdu.



GIPUZKOA

Mikel  
Biain

EH BILDU



GIPUZKOA

Aintzane  
Oiarbide


EAJ



GIPUZKOA

Aitor  
Arantzabal


EH BILDU



GIPUZKOA

Eneritz  
Otamendi

EH BILDU



GIPUZKOA

Iker  
Intza

EH BILDU



ARABA

Izaskun  
Moiu


EAJ



NAFARROA

Koldo  
Martinez

GEROA BAI



NAFARROA

Ainhoa  
Aznarez

PODEMOS

## Zortzi debagoiendar erakunde berrietan

Gipuzkoako Batzar Nagusietan bost batzarkide debagoiendar egongo dira datozen lau urteetan eta Arabakoan, berriz, bat. Nafarroako Parlamentuari dagokionez, bi debagoiendar izango dira berriro. Bizkaikoan ez da ibarreko politikaririk egongo

**Amaia Zabala Tolosa** DEBAGOIENA  
Gipuzkoako Batzar Nagusietan bost batzarkide debagoiendar egongo dira datozen lau urteetan. Mikel Biain oñatiarra, Aitor Arantzabal eta Iker Intza beragarriak eta Eneritz Otamendi eskoriatzarra izango dira EH

Bilduko ordezkariak; eta Berbaran bizi den Aintzane Oiarbide errenteriarra, berriz, EAJkoa. Oiarbide Elgetako zinegotzi ere izango da datorren agintaldi honetan.

Arabako Batzar Nagusiei dagokionez, Izaskun Moiu oña-

tiarra EAJko batzarkide izango da, eta baita Pedro Elozegi gas-teiztarra ere, gaur egun Arabako Batzar Nagusietako presidentea dena. Batzarkide izateaz gain, aurrerantzean Aramaioko EAJko zinegotzi ere izango da Elozegi.

### Nafarroan, bi diputatu

Nafarroako Parlamentuari dagokionez, bi debagoiendar izango dira berriro ere: batetik, Koldo Martinez eskoriatzarra, gaur egun Geroa Bairen bozeramailea ere badena Parlamentuan; eta, bestetik, Elkarrekin Podemoseko Ainhoa Aznarez antzuolarra, egun Parlamentu-ko presidentea dena.

### Gipuzkoako batzarkideak

Batzar Nagusietarako ordezkariak hautatzeko garaian, Gipuzkoa hiru zatitan banatu da: Oria-Donostialdea, Bidasoa-Oiar-tzun eta Deba-Urola, non Deba-goiena sartzen den.

Banaketa horren arabera, Deba-Urolari hamaia ordezkari dagozkie, eta, herritarrek bota-

## Batzarkideak

### Deba-Urola Gipuzkoa

EAJ	6	20
EH Bildu	6	17
PSE-EE	1	9
Ek. Pod.	1	4
PP	0	1
<b>Guztira</b>	<b>14</b>	<b>51</b>

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

tu ondoren, 2015eko hauteskondeetako ordezkari kopuru bera izango du alderdi bakoitzak: EAJko sei, EH Bilduko sei, PSE-EEko bat eta Elkarrekin Podemoseko beste bat. Gipuzkoan, dena, 51 batzarkide dira.

## Europara begira, EH Bildu botatuena Debagoienez

50.000 debagoiendar zeuden Europako Parlamenturako botoa ematera deituta eta gehiengoak, %41,04k, EH Bildu botatu du. Bigarren botatuena EAJ izan da, %34,51rekin. Gipuzkoan, berriz, EAJ izan da botatuena eta Espainian, PSOE

**Amaia Zabala Tolosa** DEBAGOIENA  
Modu horretan, Debagoienez 2.000tik gorako aldea mantendu du EH Bilduk EAJrekiko -eh-nekoetan, hala ere, EH Bildu mantendu egin da, eta EAJ ia bost puntu hazi-. PSE-EE/PSOE izan da hirugarren alderdi botatuena %11,23rekin.

### Hego Euskal herrian

Gipuzkoan eta Hego Euskal Herrian, berriz, EAJ izan da Europarako alderdi botatuena, 379.393rekin. Bigarren indarra alderdi sozialista izan da 306.713 botorekin eta hirugarrena, EH Bildu, 300.796rekin.

### Estatuan PSOE garaile

Espainian alderdi sozialista izan da Europako Parlamenturako hauteskunde irabazle nagusia, botoen ia %33rekin; jokoan zeuden 54 eserlekuetatik 20 eskeratu ditu, gainera.

Hirugarren indarra Ciudadanos izan da, Euroganberan zazpi ordezkari bereganatu baititu. Unidas Podemos-IUK sei eurodiputatu izango ditu eta Voxek hiru eserleku lortu ditu.

Katalunian, Carles Puigdemont Generalitateko presidentea ohia-zen zerrendak irabazi du. Bigarren indarra PSC izan da eta hirugarrena, ERC.

### Europar

Europako Alderdi Popularrak (PPE) irabazi ditu hauteskondeak, 178 eserleku lortuta, nahiz eta 38 diputatu galdu dituen.

Sozialistak eta Demokratak (S&D), berriz, bigarren indarra izango dira. Liberalen eta Demokratien Aliantza (ALDE) hirugarren indarra izango da berriro Europako Parlamentuan, 68 eserleku izatetik 108 izatera igaro baitira.

Aipatzekoa da Berdeen gorakada ere, 57 eserleku izatera iritsi baitira. Azkenik, eskuin muturreko alderdien gorakada gelditzea lortu da.



### TXANTXIKU IKASTOLA, Koop. Elkartearen OHIKO BATZAR NAGUSIA GAI ZERREDA

EGUNA: EKAINAREN 20a, EGUENA  
ORDUA: 18:00etan lehen delaidian eta 18:30ean bigarrenan.  
LEKUA: Txantxiku ikastolako aretoa (San Juan kalea, 1)

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko.
2. 2018/2019 ikasturteko kudeaketa txostenaren berri ematea.
3. 2018ko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea.
4. 2018 urteko emaitzen banaketa eta, badagokio, onartzea.
5. 2019 urteko aurrekontua aztertzea eta, badagokio, onartzea.
6. 2019/2020 ikasturteko zerbitzuen ordainsarien berri ematea eta, badagokio, onartzea.
7. Gurasoen Kontseiluen urteko jardueraren berri ematea.
8. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
9. Galde-eskeak.

### OHARRA:

Bazkideei gogorazten zale sozietatearen egoitzan eskeragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kudeaketa txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan dituzten.

Oñatin, 2019ko maiatzaren 31n

# "Ostalaritza ikasteko eskola publikoa, euskalduna eta kalitatezkoa da gurea"

**PEIO GARMENDIA** GAMARRA OSTALARITZA ESKOLAKO ZUZENDARIA

Gasteizko Gamarra Ostalaritza Eskolako arduradunak dio metodologia "aktiboak eta kolaboratiboak" erabiltzen dituztela, eta ikasleek "eginez" ikasten dutela

Lanbide Heziketako Gamarra Ostalaritza Eskolan izena emateko epea astelehenean irekiko dute, ekainak 3, eta 14ra arte iraungo du. Hiru ziklo eskaintzen ditu, ikasketa mailen arabera, eta euskaraz egin daitezke ikasketak guztiak.

## Zer da Gamarra Ostalaritza Eskola?

Gamarra Ostalaritza Eskola Lanbide Heziketako ikastetxe integratua eta publikoa da; beraz, oinarrizko Lanbide Heziketa eta prestakuntza zikloez gain, langabeentzako eta langileentzako prestakuntza eskaintzen du. Gainera, publikoa garenez, ikasketa guztiak doakoak dira. Ikastetxean 40 irakasle, zortzi langile –administratzailea, atezainak eta garbitzaileak– eta 300 bat ikasle gara.

## Heziketa zikloak egiteko izen-emate epea ekainaren 3tik 14ra bitartean izango da. Zer eskaintza aterako duzue?

Bai; astelehenean irekiko da izena emateko epea. Aurten, gainera, prozesua aldatu egin da. Matrikula egin ahal izateko, aurretik, zuk aipatu duzun izen-ematea egin behar da, derrigorrez. Izen-ematea online –Hezkuntzaren webgunearen



Peio Garmendia, Gamarra Ostalaritza Eskolako zuzendaria, eskolako sukaldarian.

bitartez– edo gure ikastetxean egin daiteke. Hau eskainiko dugu: erdi mailan, Sukaldaritza eta Gastronomia zikloan bitalde egongo dira, bata A erduan eta bestean D erduan; Okintza, Pastelgintza eta Gozogintza eta Jatetxe arloetako zerbitzu zikloetan, talde bana B+ erduan; goi mailan, Sukalde Zuzendaritza zikloan bitalde, A eta D erduetan.

## Euskarak ziklo guztietan izango du presentzia?

Bai. Ikastetxeak lan handia egin du alor honetan. Jatetxe Arloko Zerbitzuak zikloa orain arte A erduan ematen genuen eta datorren ikasturtetik aurrera B+ erduan eskainiko dugu.

## Nork eman dezake izena?

Erdi mailako zikloa egiteko, gutxienez, DBH edo oinarrizko Lanbide Heziketa gainditu behar da. Goi mailakoa egiteko, batxilergoa eduki behar da gaindituta. Ez dago beste baldintzarik, ez dago adin mugarik.

## Nolako ikastetxea topatuko dute joango diren ikasleek?

Alde batetik, nik aipatuko nuke ditugun pertsonak oso profesional onak direla, guztiz eguneratuak. Horri esker, ikastetxeak aurrera eramaten ditu honako hezkuntza-proiektu berritzaile hauek: ETHAZI, etekin handiko zikloen handiko metodologia, erronketan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntza. ERASMUS PLUS, ikasleek ziklo amaierako praktikak Europako enpresaren batean egiteko, eta Europako ikastetxe ezberdinetako ikasle-trukeak egiteko. Txandakako erregimeneko LH duala: honen bitartez, bigarren mailako ikasleek partekatuta ahal izango dute ikastetxeko prestakuntza eta enpresaren batean lan egitea lan kontratu edo beka baten bitartez. Eta beste batzuk: berrikuntza proiektuak, Agenda XXI, eta abar.

Bestetik, ikastetxea guztiz berrituta dago. Sukaldeak, gozotegia, okindegia, jangela, kafe-tegia... orain dela gutxi berritu dira, eta ikasgelak iaz berritu ziren, aipatutako errendimendu handiko metodologiak eman ahal izateko.

## Zein lanpostutan egingo dute lan ikasketak amaitu eta gero?

Egin duten zikloaren arabera lanpostuak izango dira. Sukaldaritza eta Gastronomia zikloa egin badute, sukaldariak edo gozogileak izango dira jatetxetan, hoteletan, administrazioan –ospitaleetan, zahar egoitzetan, eskoletan...–; Okintza, Pastelgintza eta Gozogintza aukeratu badute, okinak, gozogileak edo gozoginak izango dira elikagai-industria alorreko enpresetan, eta gozogileak ostalaritza enpresetan. Azkenik, Jatetxe arloko

zerbitzua egin badute, zerbitzaria, tabernaria, maitrea, sommelieria, jangelako arduraduna, jatetxe arduraduna...

Kontuan hartu behar dugu ostalaritza oso arlo egokia dela, esperientzia izan eta gero nor bere enpresa sortu ahal izateko. Gure ikastetxeko zenbait ikasle bide hori hartu dute eta pozik daude enpresari lanetan.

## Amaitzen duten ikasleek erraz topatzen dute lana?

Ostalaritza eta elikagai-industria sektoreek pisu handia dute gure ekonomian, eta nahiko erraz aurkitzen dute lana gure ikasleek. Gure zikloen batez besteko txertatze maila lanean %85 da.

## Zein harreman duzue amaitu duten ikasleekin?

Oso hurbila; ikastetxeak 30 urte daramatza jardunean, eta ikasle asko pasatu dira. Duela 25 urte atera zen bosgarren promozioa, eta maiatzaren 10ean elkartu ziren gure ikastetxean ospatzeko. Gauza bera egin zuten aurreko promozioek. Ez dira ahazten gutaz; seinale ona.

Bestalde, ikastetxeak lan-poltsa kudeatzen du. Eskaintzen dizkiguten lan aukerak ikasle ohiei helarazten dizkiegu eta lana aldatu nahi badute eurek deitzen digute, ea zer dugun eskaintzeko.

## "GURE ESKOLAN ZIKLO GUZTIETAN DAUKA PRESENTZIA EUSKARAK"

## "ZIKLOEN BATEZ BESTEKO TXERTATZE MAILA LANEAN %85 DA"

**gamarra**  
ostalaritza eskola

Presagana kalea 1 behea,  
01013 Gasteiz  
Tel.: 945 25 80 25  
gamarra@gamarraszkola.com  
www.hosteleria.gamarra.com

- Oinarrizko lanbide heziketa:**
  - Sukaldaritza eta jatetxe arloa
- Erdi mailako zikloak:**
  - Sukaldaritza eta gastronomia
  - Jatetxe arloko zerbitzuak
  - Okingintza, gozogintza eta konfiteria
- Goi mailako zikloak:**
  - Sukalde-zuzendaritza

**Matrikula egiteko derrigorrezkoa da aurrematrikula egitea: ekainaren 3tik 14ra**

**Ate irekiak ekainaren 3an 16:30ean**



ZABALIK

IDOIA PEÑAKOBA

## Adiskidetasunaren apologia

Astelehen gaua, Londrestik heldu berri, nekeak gaindituta, modu apartan igarotako unek utzitako gozamenaren nekeak, ordea. Bederatzi neska-lagun taldearekin hiru eguneko asteburuari amaiera eman eta aireportuan hegaldiaren zain, balorazioari ekiterakoan, hausnarketarako galdera bota du gutariko batek: "Zergatik jarri dira azkenaldian horren modan 40/50 urte betetzen ditugula-eta iraganeko lagunekin bidaia, txango edota *kintada* delakoak egiteko ohitura? Zer dago horren atzean?". Iraganarekiko begirada nostalgikoa? Poliki-poliki -edo azkarregi, beharbada- zirrikitu ikusezinetik ihesi doakigun gaztetasun abaguneak harrapatu eta eusteko beharra? Behinola garatutako adiskidetasun hura, kasuan-kasu mantendu, berpiztu edota suspertzeko lokarriak ehuntzeko beharra?

### ZERGATIK JARRI DIRA HORREN MODAN 40/50 URTE BETETZEN DITUGULA-ETA TXANGO EDO KINTADAK?

Internetera jo dut; inolako estatistikarik aurkitu ez, ordea -laster baten, agian, ikerketa soziologikoren batek frogatuko digu benetan joera ezberdinik nabarmentzen ote den eta ondorio horiek arrazoitzen dituzten zergatiak zeintzuk diren!-

Nire Interneteko bilaketak izan du bere alde emankorra, alabaina. Horrelako urtebetetze-ospakizunak antolatzearen aldeko arrazoi-zerrenda amaiezinak aurkitu ditut; horien artean, gustatu zaidan hau: "Lagun kopurua gero eta murriztagoa delako, baina benetan lagun diren horiek gero eta gehiago maite zaituztelako".

Arrazoiak arrazoi, guk, behintzat, primeran pasa ditugu azken egunak, barre algara zaratatsuak eta une hunkigarrietan isuritako malakoak partekatuz. Orain, gure adiskidetasunaren altxor-kofrean balio mugagabea duen beste urrezko txanpon bat sartuta, hurrengo ihesaldian pentsatzen hasteko prest!

Gisa honetako ekimenak antolatzeko orduan, entzun izan dut horretan ere joera eta jarrera ezberdinak erakusten omen ditugula emakumeek eta gizonezkoek. Apur bat sakontze aldera, azalpen azkar baten bila

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



## HANDIK ETA HEMENDIK

### Soka

#### ANDONI EGAÑA

HTTPS://LABUR.EUS/CFHUM  
'BERRIA'-N ARGITARATUA

"Hara hor etorkizuneko gizon-emakumeak!", etorri izan zait burura urte sasoi honetan haur-eskolaren batetik haurrak soka bati helduta kalerako bidean ikusten ditudanean.

Irakaslea edo irakasleak izaten dituzte gidari, artzain eta animatzaile, haur bat purrustaka, beste bat negar zotinka eta beste batzuk kanturen bat totelduz doazenean.

Sokak ikasketa prozesua bera irudika dezake.

Hogeitaka urte barru ume izandako haietariko batzuek ikasten eta ikerketa lanetan segitu nahi izango dute.

Harrapatuko zituen ikasgairaren batek eta sakondu arteko onik ez dute izango. Ikerketa kongresua martxan da Baionan.

Ehun ikerketatik gora aurkeztuko dituzte eta ezagutza eta eskarmentua partekatuko.

Borja Senperren igerialdia guztiok ikusi genuen bezala euren lana inor gutxi "ikusten" duela jakin arren, etxekoan sostengurik gabe ikerketan segitzea gaitz dela ohartu arren, segitu

gingo dute bakoitzak berean eta gainerakoak zertan ari diren jakin nahian.

Horrelakoek harrotuarazi behar lukete jendarte sano bat.

Gurea, ordea, gain behera doa.

Lanpostu bat lortzeko, curriculumean ikasketak ezkatzea azaltzea baino eragingarriagoa omen da zenbait kasutan.

Argirik ez zaio komeni gaizkileari.

Krak egiten du sokak hor.

Arrazoiak zuen negarrez zihon haurtxoak...

goiena<sup>™</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkartea  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.  
**Erredakzio batzordea**  
Eneko Azkarate, Goliatz Arana,  
Monika Belastegi, Mirari Altube.  
**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.  
**Diseninu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.

**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna** Igone Osinaga.  
**Sailtetako arduradunak**  
Xabi Urtzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga,  
Amaia Mundiñano,  
Ziortza Martin.  
**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.  
**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus  
**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 00  
publi@goiena.eus  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus  
**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 19.000 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



PEFC ziurtagiria  
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialak erabiltzen dira, birziklatua da eta Baso Kudeaketa iraunkorren ziurtagiria dauka  
www.pefc.es

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**



**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA**



## BERBAGAI

# "Mendekua lehenetsi dute gaixoen arreta beharrean"

MARTA MACHO ANESTESISTA

**Amaia Zabala Tolosa** ARRASATE Osasun Zerbitzu Publikoaren azken Lan Eskaintza Publikoan irregulartasunak salatu zituen, Roberto Sanchez eta Manoel Martinez anestesistekin batera. Asteartean salaketa berretsi zuen epailearen aurrean eta asteazkenean jakinarazi zioten kontratua gaur, ostirala, amaituko zaiola. Nekane Murga Osasun sailburuak, berriz, ukatu egin du Osakidetzak Macho "filtrazioak salatzeagatik" kaleratu duenik. **Zein izan da kontratua etetearen arrazoa?**

Lanaldi murriztu bat betetzen ari nintzen, zeina baja izatera igaro zen, eta orain, pertsona horrek eszedentzia hartuko du. Kontratazio arautegiaren arabera, eszedentzia hori nik bete beharko nuke, ni bainaiz bere lanaldi murrizketa eta baja betetzen ari dena. Baina erabaki dute, "nire onerako", beraien esanetan, hobe dela kontratu hori etetea eta beste



Marta Macho, Debagoieneko Ospitalearen aurrean. TXOMIN MADINA

lankide baten baja betetzea. Beraz, gaur kontratua amaituko zait eta hiru astera lanera itzuliko den lankide baten baja betetzera igaroko naiz. Oso epe motzeko baja bat.

**Espero zenuen?** Zartakoa edozein momentutan iristeko zain gaude. Baina maniobra hau oso traketsa izan da beraien aldetik, kontratazio araudia haustek ebidentzian utzi baititu. Izan

ere, araudi honetan dio Osakidetzako langileei ahalik eta kontratu luzeenak izatea komeni zaiela eta beraien lankideen egonkortasuna bilatzen dutela. Baina argi ikusi da molestatzen dien kasuetan ez dutela horrela jokatzen. Bestalde, Debagoieneko Ospitale honetan bitartekotasun bat dago, eta, zerrendetan lehen postuan gaudenok Manuel, nirekin filtrazioak salatu zituen beste anestesista eta ni gara eta ez dugu inongo deirik jaso. Aldiz, badakigu ziurtasun osoz beste batzuei deika ari direla. Arrasateko Ospitale honetan eta beste askotan jende faltan gaude eta kanpotik ari dira operazio-geletan lan egiteko profesionalak ekartzen. Batez beste, astean sei guardia ari gara egiten, eta ez da ohikoa, araudiaren arabera hiru baitaude onartuta. Alegia, mendekua lehenetsi dute gaixoen arreta beharrean. **Zure eta Manuelen kasuak aipatu dituzu, baina zer gertatu da filtrazioak salatu zituen hirugarren anestesistarekin, Robertorekin? Zein da bere egoera?** Bere kasuan, kontratua blindatuta dago, beste ospitale batera joan zen baten kontratua ari baita betetzen.

Baina Manuelek, errepresio maniobra batengatik kontraturik gabe geratu zenean, lanaldi murriztua eskatu zuen, bere portzentajea izan zezan. Egun, Manuel %100ean dago, ospitalean dagoen profesional eskaera dela eta.

**Gasteizko instrukzio-epaitegian lekukotzak ematen hasi zineten asteartean eta hurrengo egunean kontratuaren amaieraren berri eman zizuten. Kasualitatea?**

Hainbeste ebidentzia dagoenean, kasualitatea disolbatu egiten da; beraz, ez, ez zait kasualitatea iruditzen oraintxe bertan.

**Zuen aurka "mendekua" hartu dutela esan duzu. Hau ikusita, momenturen batean damutu zara filtrazioak salatu izanaz? Edo berriro egingo zenuke?**

Bai, dudarik gabe berriro egingo nuke. Espero genuen erantzun hau, hasieratik baloratu genuen gauza bat zen, bagenekien gerta zitekeela. Hala eta guztiz ere, aurrera egitea erabaki genuen eta hemen gaude borrokan.

**Eta orain, kontratuaren etete hau ikusita, neurri legalen bat hartzea aurreikusi duzu?**

Bai, horretan gaude, Ezker Sindikalaren Konbergentzia (ESK) sindikatuarekin hitz egiten ari gara, eta ikusiko dugu zer egin.

## ITURRI ONETIK

### Kanpotik Oñatira etorritakoen gaineko liburua

*Jerardo Elortza* izenburuko liburu bildumaren bigarren atala ekainean argitaratuko du Oñatiko Udalak. Lehena Jerardo Markuleta idazle oñatiarrari eskainia izan zen. Bigarren honek jasotzen ditu 1960ko eta 1970eko hamarkadetan kanpoko beste herrialde batzuetatik – Extremadura, Andaluzia, Galizia...– Oñatira bizitzera etorri ziren 14 herritarren testigantzak –euskaraz zein gaztelaniaz–. *Enarak* du izena liburuak eta Amagoia Gurrutxaga idazle zarautzarrak egin du.

## ALBISTE IZAN ZEN

2009-05-27

### Kamioilari bat hil egin zen istripuan Antzuolan

Kamioia irauli eta 47 urteko gidari moldaviarra hil egin zen Antzuolako sarreran, Uzarragako bidegurutzetik gertu. Kamioiaren kabinan harrapatuta geratu zen. Suhiltzaileak saiatu ziren hura ateratzen, baina lortu zuteneko hilda zen. Ertzaintzak istripuaren arrazoiak argitzeko ikerketa hasi zuen, baina hasierako ordu haietan arrazoiaren berririk ez zuen zabaldu. Trafikoan eragina izan zuen, bidea itxita egon zen eta.



## HAU BE BADOGU!

### Maialen Axpe 'trending topic' izan da

Iberiak ez ziola Maialen Axperi Diamante Ligan parte hartzeko pertikak hegazkinean sartzen utzi, eta Espainiako *Marca* eta *AS* hedabideek albistea publikatu ostean, *trending topic* izan zen:

*@jontolest*: "Ez dago eskubiderik. Ezin da atleta baten denbora, ahalegin eta batez ere ilusioarekin horrela jokatu. Animo pila Maialen!".

*@nereasarriegi*: "Estocolmora iritsi aurretik, etxera itzuli behar izatea. Diru galera bakarrik izango balitz... Ez da lehenengo aldia. Txartela eskuan, Maialen Axpek etxetik ikusi beharko du Diamante Liga".

## Gaitasunik bai? Justifikatuta dago orduan

MIKEL IRIBECAMPOS JUARISTI  
ARRASATE

"Ideia bat daukat, gaitasuna baita, egingo dut!". Hori da gaur egungo gizartean askok pentsatzen dutena. Zerbait egiteko gaitasuna eta errekurtsioak nahikoa dira zerbait egiteko. Justifikazio egokia da.

Ez da zalantzan jartzen egin nahi den horrek gizartean eragin dezakeen oihartzuna. Adibidez, produktoria dedikatzen diren ingeniariak makinak kontrolatzen dituzte. Matematika, Fisika eta beste hainbat ikasgai tekniko jorratu dituzte beraien formakuntza prozesuan zehar. Ekonomiako ikasgairan bat edo beste ere jaso dute. Baina ez dute hausnarketaren inguruko ezer jaso, ez baita garrantzizkoa. Hau da, gaitasun tekniko ezin hobeak dituzte, baina egiten duten hori zalantzan jartzeko tresnak falta zaizkie.

Honen ondorioak bizi ditugu jada. Hausnarketa faltaren ondorioz, interes pertsonalari ematen zaio garrantzia. Gizarteak jasan ditzakeen eraginetan hausnartzen jarri ordez, agindu edo bururatutako ideia horri heltzen zaio zuzenean. Hausnartuko bagenu, existituko lirarteke Facebook edo Whatsapp? Gure egunerokotasuna eraldatu dituzten tresnak?

Bukatzeo, eskari bat egin nahi dut. Ikastetxeetan, unibertsitatetan edo formakuntza ematen den beste edozein lekutan, utzi teoria alde batera egun batez eta sustatu dezagun eztabaida. Anima ditzagun ikasleak beraien kabuz pentsatzera, hausnartzera eta kolektiboari garrantzia ematera. Ikasleei pentsatzeko tresnak eman behar dizkiegu, beraien kabuz hausnartzeko gai izan daitezen. Horrela, ondorioak

zalantzan jarriko ez dituzten langileak hezteari utziko diogu.

## Bizirik zeuden herriak

ARIANE MENOR MENDIA  
BERGARA

Amets bat izan dut gauean, haurrek lo egiten utzi didaten tartetxo horretan. Nire semeak irribarretsu ikusi ditut, eta ni lasai, urrunetik begira. Korrika, saltoka, bizikletan, eskalaten... eta euren irudimenezko munduan murgilduta zebiltzan. Nire txikitako garaia etorri zaizkik burura. A ze garaia poligonoan! Txiki-txikitatik haurrek kalean bizi eta gozaten genuen. Auzoko kuadrilla; nire kasuan, Matxiategikoa. Afaltzeko ordua zenean, leihotik gurasoen deiak adierazten zigun jolastordua amaitu zela. Lagunei "bihar arte" esan, eta, lasai asko, zoriontsu izaten, etxera joaten ginen, hurrengo eguna noiz iritsiko irrikatan. Adin tarte zabaleko haur eta gazteak batera jolasten ginen kalean, eta beti zegoen portaleko amona edo aitona, inguruko banku baten jarrira, guri begira, badaezpada. Zoriona, barreak, errieta batzuk ere, auzokide guztiok batera bizitzen genituen. Kalea eta, ondorioz, herria bizirik zeuden.

Esnatu naizenean, faltan bota dut orduko sentimendu hori... askatasuna, segurtasuna, bakea. Gaur egungo bizimoduak hau galtzea ekarri du. Arriskuak ikusten ditugu edonon. Trafikoak bizi eremuak jan ditu. Gurasoak beti arduratuta gabiltza, zortzi begi behar ditugula. "Errepide ondoan ez jolastu" esaldia nire semeen mantra bihurtu da. Guraso moduan, aldaketa asko egin behar ditugu, kotxeak ahal den neurrian alde batera utzi eta poliki-poliki trafikoa bizi eremuak kentzeko. Agintariak benetako boterea dute hau bultzatzeko, herria

bizigarri izateko eta, batez ere, herria bizirik mantentzeko. Herri bizi baten, bizidunak direlako garrantzitsuak.

Nire semeek honako hau abeste dute orain etengabe: "Utzi ditzagun gailuak etxean, eta eraiki txabola bat. Ametsen jaioterria izango da eta zu ere ongietorria izango zara". Beraiek horretan sinesten badute, zergatik guk ez?

Zuentzako, Itsaso, Maddi, Maitane eta Oihana, Asun, Itsaso, Amaia eta Amaia, Leire, Eli, Lupe, Nekane, Eneritz, Iosu, Ibai, Aimar, Igor, Ibon, Xabi, Bitxor... Askok gogoratzen naiz garai haietaz.

## Herriak berea duen eskola

ALAZNE JAUREGI ALKORTA ETA ANDOITZ PEÑAGARIKANO ARENAZA  
ANTZUOLAKO HERRI ESKOLAKO 294  
IKASLE OHIREN IZENEAN  
ANTZUOLA

Joseba Sarrionandiaren hitzak ekarri nahiko genituzke gogora lehen lerroetan: "Ikasten duguneko lekua da eskola. Edozein leku izan daiteke, hala nola etxea, kalea, mendia, itsasoa, parkea, zinema aretoa, eta, beharbada, eskola". Antzuolako Herri Eskolak ere badu zer hark aipatutako kontuetatik.

Betiko eskemetatik atera eta bestelako eskola bat sortzea helburu, irakasle talde batek egun ezagutzen dugun eskolako hezkuntza eredu pedagogikoa martxan jartzeari ekin zion. Egin zituzten bidaiak Herrialde Katalanetara, eta ezagutu zituzten pedagogia eredu ezberdinak. Ibili ziren gau eta egun belaunaldi gazteagoei irakasteko asmoz hezkuntza eredu baten aldeko borrokan. Bidean batu ziren guraso eta herritar zenbait ere. Lortu zuten ikaslea hezkuntza prozesuaren erdigunean kokatzen duen errezeta magikoa eraikitzea. Lan horren emaitzak ongi baino hobeto ezagutzen ditugu bertatik igaro garen

ikasleok. Ikasle bakoitzaren beharretara egokitzen den hezkuntza eredu dugu hau. Ikasleen ekimenez hautatzen diren proiektuen eredu oinarri hartu, eta ikaslea bere osotasunean kontuan hartzen duen metodologia da gurea. Gaur arte lanean jardun duten irakasleek jakin dute curriculum propio bat eratzeko.

Tamalez, hezkuntza ereduaren lehen harriak jarri zituzten irakasleei iritsi zaie erretiratzeko unea. Irakasleria finko baten beharra nabaria da transmisioa bermatu eta proiektuari eutsi ahal izateko. Herritarrok argi dugu zein den aurrera egiteko bidea: gurea den hezkuntza eredu defenditzen jarraituko dugu. Bagabiltza belaunaldi berrientzako haziak ereiten; administrazio publikoak dira, ordea, pausoa eman beharko luketen hurrenak.

Erakutsi dit hausnartzen. Erakutsi dit egia bailitzan kontatzen digutenaz harago kritikoa izaten. Erakutsi dit egoeretara egokitzen, eta behar denean, ingurukoa errespetatzen eta onartzen. Erakutsi dit nire burua ezagutzen eta onartzen. Erakutsi dit gaur naizena izaten. Eta askeago bizitzen. Horregatik, argi daukat. Nik Antzuolako Herri Eskola babesten dut; eta zuk?

## Eskerrik asko, Eskoriatza!

ELUSKA IRAZU  
ESKORIATZA

751: 751 babes. 751 besarkada. 751 bihotz-poz. 751 norbanako. 751 irribarre, kezka, indar, tanta. Lortu dugu. Lortu dugu hasieran planteatutako helburuetako bat: pertsonak erdigunean jartzea eta pertsona horien konfiantza berreskuratzea... Zuek guztiona.

4: 4 urte. 4 zinegotzi. 4 herri egitasmo, proiektu, erronka: hirigintza; herri bizia; herri soziala; herri garapena.

4.089: Eskoriatzarrak. 4.089. Nahi, gogo, ametsak. 4.089.

Etorkizun duina merezi dutenak. 4.089 ardura eta erantzukizun guretzat.

1: Herri bat: Eskoriatza. 1. Lanerako ekipo bat zuekin aurrera egiteko prest.

Eta helburu 1: Eskoriatza hobe, lagunkoi, feminista, euskaldun eta autonomoagoa egitea. Zinez sinisten dugulako Eskoriatzak behar duela eta eskoriatzarrok merezi dugulako. Beraz, beste behin, eskerrik asko tantaz tanta olatu hau sortzen lagundu duzuenoi, gertutik edo urrunetik berdin dio... balio duena da bihotzez egin duzuela. Eta, egindako lanari eta egiteko gelditzen den lanagatik ez dugu amore eman behar herriak parte-hartze askean erabaki eta adostu ditugun proiektu eta erronkak gauzatuta ikusi arte.

## Haserre eta ondoeza

JABIER ARREGI

ARANTZAZUKO ALKATEA,  
AITZABAL ELKARTEKO BATZORDEKIDEEN  
IZENEAN  
OÑATI

GOIENAn maiatzaren 24an argitaratu zen *Lehen sektorearekin batu dira EAJko ordezkariak* albistearen aurrean, Arantzazuko alkate eta Aitzabal elkarteoko batzordekideek ondorengoak argitu nahi ditugu:

-Ekitaldi politiko hau inongo jakinarazpen eta baimen gabe egin zela Arantzazuko auzo-etxean. -Bertaratu ziren partaide batzuekin egon ostean, jakin dugu ez zekitela EAJko ekitaldi politiko batera zetozenik, baizik eta lehen sektoreko Diputazioko bilera batera.

-Gainera, Aitzabal elkarteoko barne irudia inongo baimenik gabe publikatu zen.

Horregatik guztiagatik, honako hau sinatzen dugunok gure haserre eta ondoeza adierazi nahi diegu EAJko ordezkariak eta ekitaldi politiko honen antolakuntzan inplikaturik ibili zaretenoi.

2019-2020

lanerako gertu!

# Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

## MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

### Izen-ematea

## Ekainaren 3tik 14ra

### Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

[www.mondragon.edu/gmhz](http://www.mondragon.edu/gmhz)  
[gmhz.mgep@mondragon.edu](mailto:gmhz.mgep@mondragon.edu)

943 71 21 91



## IDS-en lanean dagoen MGEPko Automatizazio eta Robotika Industrialaren ikasle dualaren testigantza.

### Zure izen-abizenak, mesedez? Zein ziklo egin duzu?

Aitor Merino Olivenza naiz eta Mondragon Goi Eskola Politeknikoan Automatizazio eta Robotika Industrialia goi mailako heziketa zikloa egin dut.

### Noiz hasi zinen praktiketan? Noiz bukatuko dituzu?

Praktikak dual programaren barnean egin ditut; 2018ko ekainaren 14an hasi eta 2019ko ekainaren 14an amaituko dira. Urtebete, alegia. IDS Informatika Industrialia IDS Informatika Industrialia enpresan egin dut, Bergaran dagoen ingeniaritza batean.

Enpresa hau prozesu industrialen automatizazioan eta informatika industrialean aritzen da.

### Eta zein da zure saila edo lantaldearen lan esparrua?

Ni automatizazioko departamentuan ibili naiz, automatika arloko teknikari lan eginez. Eta nire instruktoorea enpresan Roman Labalen izan da, automatizazioko departamentuaren arduraduna.

### Zein motatako lanak egin dituzu epe honetan?

Automatikako teknikari batek bete behar duen lanak egin izan ditut: eskema elektrikoak garatu edo eraldatu, automatizazioko softwareak erabiliz programak garatu, proiektu baten dokumentazioa osatu... bezeroak diren enpresa proiektu errealean aritu naiz.

### Bukatzeko, zer eskaini dizu enpresan praktikak egitea, bai pertsonalki, bai ikasketa aldetik?

Praktikak enpresa batean egin ahal izateak mota askotariko onurak ekarri dizkit; bai pertsonalak, bai akademikoak. Pertsonalki, autoexijentzia maila handiagoa dut, baita erantzukizunari dago-kiona. Horrez gain, nire denbora hobeto antolatzen ikasi dut. Ikasketa aldetik gauza asko ikasi ditut.

Marka askotariko automatikak programatzen ikasi dut, bakoltzaren software propioa erabiliz. Eskema elektriko argiagoak egiten ere ikasi dut CAD (Computen Aided Design) Elektrikoko programak erabiliz. Honetaz aparte, esperientzia honek lan munduan pausoak ematen jarraitzeko balio izan dit, beste enpresa batzuekiko proiektuak egiten duen enpresa batek zelan funtzionatzen duen barrutik ikusita.



# Errugbi taldeari lagundu, eta primeran afaldu

Arrasate Rugby Taldekoak Herriko Plazaren jabe izango dira domekara arte, Garagardo Azokaren 21. edizioarekin. Puntako garagardoak dastatu ahalko dira, eta lagunartean txerri-ukondoa jateko ohitura dutenek ez dute hutsik egingo

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Urtean behin, badago asteburu bat, non lagunekin ogitartekoa afaldu beharrean, arrasatearrek jatorri alemaniarra duten jakiak jaten dituzten. Eta duela bi hamarkadatik hona, Arrasate Rugby Taldekoek dute ohitura gastronomikoak aldatzearen *errua*.

Aurtengoa 21. edizioa da eta atzo ireki zituen atekak, besteak beste, pintxo-potearekin bat egin ez. Mondragon Unibertsitateko ikasleen herri kirolak eta zinegotzien afaria ere egin zituzten atzo bertan.

## Garagardo Azoka, zifratzen

Aurtengo jaialdirako 2.190 litro garagardo eskatu dituzte klub zuri-moreko arduradunek, best marka ezberdinetakoak. Ohikoa den moduan, garagardoa pitxarretatik edango da, nahiz eta atzo botilatxoak erosteko aukera ere izan zen –litro laurdene-ko 750 unitate eskatu dituzte–. Aipatzekoa da, urtetik urtera eskaria handitu izanaren ondorioz, iaz bezala aurten ere alkoholik gabeko garagardoa pitxarretatik zuzenean edateko aukera izango dela.

Edatekoa bakarrik ez, jatekoa ere egongo da, eta, kasu honetan, ere kantitate erraldoietan, urtero legez: 2.700 opil, 375 oilasko,



2013ko karpan, lagun bat bi garagardorekin. IMANOL SORIANO

## JATEKO, 2.700 OPIL, 375 OILASKO, 720 TXERRI-UKONDO ETA 140 POTE SALTXITXA ESKATU DITUZTE

720 txerri-ukondo eta 140 pote saltxitxa gertu ditu Arrasate Errugbi Taldeak. Edari eta jaki horiek guztiak prestatu eta zerbitzatzeko, klubeko kideak ibiliko dira jo eta su lanean Herriko Plazako karpan.

## Egun handia, zapatua

Zapatua izango da egunik maitetsuena, iaz bezala, aurten ere egun horretan klub zuri-moreak herritar guztientzako herri bazkaria antolatu baitu karpan bertan, menu paregabearekin: paella, oilaskoa eta postrea. Txartelak 20 euroren truke jarriko dituzte salgai.

Zapatuan bertan ere, Nazioarteko Zazpiko Txapelketa jokatuko dute Mojategin; goizean beteranoen txanda izango da eta arratsaldean, aldiz, seniorena.



Ttak! taldekoak, gaztetxean ateratako talde argazkian. MARIA OSES

## Ttak! eguna, bihar, musikaren presentzia nabariarekin

AEDren talde gazteak prest du dena urteroko jai egiteko, eta aurten, hiruko kontzertu bat lotu dute

## X.G. ARRASATE

Ttak! taldeak –AEDko gazte taldea– urteroko festa eguna egingo du bihar, zapatua.

Bazkaria egingo dute, lehenik eta behin, eta ostean, mikro irekia antolatu dute 17:00etarako, nahi duenak ekarpentxoak egiteko aukera izan dezan. "Idoia Asurmendik eta Garazi Barrenak AEDko lokal kanpoaldean joko dute, baina edonork har dezake parte", azaldu du Maria Oses taldekideak. Mikro irekiaren ostean, musikak ez du etenik izango eta karro-poteoa egingo dute herrian zehar, "arrasatea-

rrak festara batzen joan daitezen".

Eguna borobiltzeko, hiruko kontzertua egingo dute gaztetxean, eta bertan, The Potes, WC eta Azken Hatsa taldeak igoko dira oholtzara. "Garrantzitsua da The Potes edo WC bezalako taldeek jaiarekin bat egitea, euren bitartez jendea festara batuko dela bermatu baitezakegu".

## 20-25 lagun

Taldearen gaur egungo argazkia zein den galdetuta, hona Osesen erantzuna: "20-25 lagun gaude taldean, denak emakumeak eta 16 eta 18 urte bitartekoak".

## OHARRAK

### Pentsiodunen elkarretaratzea

Astlehenean egingo dute, 12:00etan, Herriko Plazan.

### Etxaluze egoitzarako zerbitzari bila

Urtebeterako kontzesioa eskaintzen du Udalak, eta interesa dutenek ekainaren 11ra arte izango dute dagokion eskaera orria BAZen entregatzeko. Oinarriak udal webgunean daude.

### Sorosleen lan-poltsa

Hautagaiak maiatzaren 29tik ekainaren 3 arte dute epea izena emateko: Lanbiden, BAZen edo udal webgunean.

### Kiroldegiko atezainen lan-poltsa

Hautagaiak maiatzaren 29tik ekainaren 3 arte dute izena emateko: Lanbiden, BAZen edo udal webgunean.

### Sanjuanetako ekitaldiak udaletxeko balkoitik

Haurren eta nagusien danborrada edo errementari-dantza leku pribilegiatu horretatik ikusteko, ekainaren 1etik 10era eman beharko da izena udal webgunean edo BAZen. Behin hori eginda, ekainaren 12an jakinaraziko dira irabazleak, zozketa egin eta gero. Iaz, 132 lagunek eman zuten izena.



**JOSEBA MAIDAGAN**  
ART-KO BETERANOA

"Orain, saltxitxak, oilaskoak eta txerri-ukondoak jatera ohitu gara, baina gogoratzen dut lehen edizioan sardina erreak prestatu genituela".



**PATXI GOROSABEL**  
ART-KO BETERANOA

"Garagardo Azokarekin bezala, Zazpiko Txapelketarekin ere aitzindariak izan ginen. Orain, horrelako asko daude, eta parte hartzea jaitsi egin da".



**ANE AGIRRE**  
ART-KO PRESIDENTEA

"Denborarekin, ohiturak aldatuz doaz. Azken urteetan, alkoholik gabeko garagardoa botilatan saltzen genuen, baina iaz hasi ginen pitxarretan ateratzen".

# EAJk irabazi, EH Bilduk gora eta PSE-EEK giltza

EAJri eta PSE-EEri on egin diete Gobernuan egindako lau urteek, eta 2015ean baino babes handiagoa lortu dute. EH Bildu izan da boto gehien irabazi dituen; sozialistek Gobernuko giltza dute poltsikoan; eta Elkarrekin Podemosek "porrot gogorra" izan du

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Espainiako hauteskundeek utzitako emaitzen ostean, lehia estua espero zitekeen Arrasateko alkatetza lortzeko, baina EAJk duela lau urteko aldea mantendu du EH Bildurekiko, eta, ondorioz, herriaren gidaritzza izango dute, beste lau urtez.

Jeltzaleek gora egin dute botoetan eta baita eserlekutan ere. 4.474 boto eskuratu zituzten -2015ean baino 736 gehiago-, eta eserleku bat gehiago izango dute udalbatzan; bederatzia, alegia. "Pozgarria izan da arrasatear askok gure proiektu komunitarioan sinistu dutela ikustea, eta berriz ere euren konfiantza guri eman izana. Hori da, guretzako, garrantzitsuena", adierazi zuen irabazle zirela jakin eta gutxira.

EH Bildurentzat gau gazi-gozoa izan zen. Ez zuten alkatetza berreskuratzeko helburua lortu, baina boto eta zinegotzi gorakada izan zuten. 4.103 boto lortu dituzte -2015ean baino 755 gehiago- eta zortzi ordezkari izango dituzte udalbatza berrian. Hona Maider Morras alkatetza egindako hausnarketa, emaitza zehatzak esku artean zituela. "Garaipena nahi genuen, eta ez dugu helburu hori lortu. Baina 755 boto gehiago lortu



EAJko hautagaiak, batzokian, garaipena ospatzen. IMANOL SORIANO

## Botoak, hauteslekuz hautesleku

	EAJ	EH BILDU	PSE-EE	ELK. ARRASATE PODEMOS	AURRERA	PP
<b>Erdigunea</b>	1.989	1.979	323	274	103	76
<b>Musakola</b>	502	520	158	118	32	25
<b>Santa Marina</b>	264	197	276	166	18	37
<b>San Andres</b>	530	368	229	93	61	50
<b>Erguin-Uribarri</b>	1.068	935	379	222	51	60
<b>Baserri auzoak</b>	121	104	8	8	6	5
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.474</b>	<b>4.103</b>	<b>1.373</b>	<b>881</b>	<b>271</b>	<b>253</b>
	%39,08	%35,84	%11,99	%7,70	%02,37	%02,21
<b>Zinegotziak</b>	<b>9</b>	<b>8</b>	<b>3</b>	<b>1</b>	<b>0</b>	<b>0</b>

ITURRIA: ARRASATEKO UDALA

## Orientazio sexuala eta genero identitatea hizpide martitzenean

Emakume Txokoak eta Aldarte Aholkularitzak antolatuta, bi gai horiekin lotutako gorroto delituak aztertuko dituzte ekainaren 4an, martitzenean, Kulturateko areto nagusian.

Dokumental bat proiektatuko dute, lehenik eta behin, eta ostean, eztabaida tarte bat egingo dute. Hain zuzen, hitzordua 18:30ean hasiko da.

## Sozialisten zerrendan egondako afera, artxibatetik gertu

Udal hauteskundearen aurretik, Arrasateko PSE-EEko zerrendako bi kidek salatu zuten euren baimenik gabe sartu zituztela hautagaien zerrendan. Bergarako hauteskunde batzordeak epez kanpo jaso zuen errekurtsioa, eta ostean, Donostiako fiskaltzara bideratu zuen. Bertako iturriek GOIENARI esan diotenez, kasua artxibatu egingo dute.

## 'Euskeraz goza, herriaren poza' esaldiarekin irabazle

AEDk, Euskal Herrian Euskarazek, Debagoieneko AEK-k eta Udaleko Kultura Sailak antolatutako esaldi laburren lehiaketan, Gorka Etxabe izan da irabazlea. Guztira, 27 proposamen aurkeztu dituzte, eta Etxaberen lelo irabazlea San Juan Jailetako zapietan serigrafiatuko dute. Ohore horrez gain, 100 euroko diru-saria ere jaso du hark.



Gorka Etxabe, sariarekin. AED

## Erreka garbiketa zapatuan, AHEko Gurasoek deituta

Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteak erreka garbiketa antolatu du zaturako. Auzolanean egingo dute, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte; eskolakoak izan edo ez. 10:00etarako egin dute hitzordua, Euskararen Plazan. Eskularruak eta katiuskak eramatea gomendatu dute, eta 12:30ean luntxa egingo dute partaide guztiekin batera.

## San Andres eta Uribarri-Erguin, gako

Alkatetzarako lehia 371 botoko aldea izan da EAJren eta EH Bilduren artean, eta bi hautesleku horietan lortu dute abantailaren %80 jeltzaleek. Erdigunean EAJ izan da garaile, baina 2015ean baino alde txikiagoarekin. Aipagarria da parte hartzeak izan duen gorakada hautesleku horretan -%12,9koa-. Musakola izan da EH Bildu gailendu den hautesleku bakarra. 18 botoko aldea ateratu dio EAJri -duela lau urte baino zortzi gehiago- eta auzoko parte hartzeak %6,6 egin du gora. Santa Marinar alderdi sozialista izan da botatuena, nahiz eta EAJk aldea murriztu dion -12 botora geratu dira-. San Andresen EAJ izan da botatuena, eta gakoak izan da alkatetza lortzeko, bertan ateratu baitiote EH Bilduri alderik handiena -162 boto-. Uribarri-Erguino hauteslekuan ere jeltzaleek irabazi dute, eta auzo hori ere garrantzitsua izan da alkatetza mantentzeko, EH Bilduri 133 bototik gora ateratu baitziote. Hala ere, EH Bilduk igoera nabaria izan du -159 boto gehiago-. Baserri auzoak izan dira proportzioan parte hartze gorakada handiena izan dutenak -%17-, eta EAJk irabazi du.

## Europako hauteskundeetan EH Bildu izan da garaile

Jeltzaleek baino 297 boto gehiago jaso ditu EH Bilduk. Horri azalpen bat ematea zaila dirudi, baina ziurtat jo daiteke jende askok ez duela boto bera eman Europarako eta Udalerako. Izan daiteke boto emaitzeak alkatetzarako Maria Ubarretxena hautatzea eta Europarako EH Bildu. Baliteke ere EAJko boto emaitzeak Europako hauteskundeetan botorik ez ematea. Izan ere, Europakoetan Udalerakoetan baino 831 boto gutxiago izan dituzte EAJkoek. Azkenik, kontuan izan behar da Arrasate Aurrera! botatu duten 271 lagunek ezin zutela botoa errepikatu Europarako.

ditugu. Alde horretatik, pozik gaude, eta eskerrak eman nahi dizkiet EH Bilduren alde egin duten guztiei".

Hirugarren indarra PSE-EE izan da. 1.373 boto jaso dituzte, 2015ean baino 52 gehiago, eta hiru zinegotzi izaten jarraituko dute. Oscar Garciak balorazio positiboa egin zuen, batez ere, Gobernu osatzeko giltza sozialisten poltsikoan dagoelako. "Bai EAJk eta bai EH Bilduk ere gurekin hitz egin beharko lukete alkatetza lortzeko; beraz, balorazioa positiboa da".

Aipatu behar da Elkarrekin Podemosek izandako beharakada. 2015ean, Baleikek eta Irabazik 1.759 boto jaso zituzten, eta oraingoan, batera joanda, 881. Hiru zinegotzi izatetik bakarra izatera pasa dira, eta, Igor Urisarren hitzetan, "porrot gogorra" izan da. "Autokritika egin behar dugu, gure proiektua berregiteko".

Arrasate Aurrera!-k eta PPK 271 eta 253 boto izan dituzte, hurrenez hurren, eta ez dute ordezkartzarik lortu. Amaitzeko, aipagarria da parte hartzearen gorakada, abstentzioa %38,31tik %33,65era pasa baita.

# Hamaika urte, eta baita hamaika ahalegin ere

Igor Isasik ez du Arrasate Rugby Taldea entrenatzen jarraituko. 2008an heldu zen Arrasatera, eta hemen egindako hamaika urteetan ekarpen handia egin dio klubari, jokalarien hitzetan "lagun talde bat izatetik, errugbi ekipo bat" izatera pasa baitira

## Xabi Gorostidi ARRASATE

Errugbi munduan ibilbide oparoa eginda heldu zen Igor Isasi eibartarra Arrasatera. Hamar urtez elite mailan aritu zen jokalaria: Eibar, Argentinako Euskarians, Donibane Lohitzune, Getxo, Kitmar Ordizia... Baina Arrasaten egindako lesio baten eraginez, jokalaria izatetik entrenatzaile izatera pasa zen.

ARTren gidaritzan hartu zuten "talka" handi bat gertatu zen, batez ere, bertan aurkitu zuen konpromiso eta inplikazio mailak ez zuelako zerikusirik bere jokalaria ibilbidean ezagututakoarekin. "Ez zegoen seriotasunik. Jende asko ez zen entrenatzera etortzen, eta ez zuten abisatu ere eginen. Ezin nuen hori onartu. Norbaitek behartzen zaituelako bazaude errugbian, uler nezake; baina bertako guztiak euren borondatez zeuden taldean", adierazi zuen Isasik duela lau urte egindako elkarrikeria batean.

Jokalarientzat ere talka handia izan zen. "Lehen urtean Valentzia nengoen, eta ezin izan nuen taldearekin jokatu. Baina gogoan dut taldekideek esaten zutena: 'Arrasatera etorri zen munduko talderik onena entrenatzera bezala'. Gu beti izan gara lagun talde bat. Errugbia ondo pasa-



Igor Isasi, Mojategin, 2013an. MIREIA BIKUÑA

tzeko zerbaite bezala ulertzen genuen, eta exijentzia maila ez zen beste kirol batzuetan dagoen bestekoa", azaldu du Xabi Gardokik, Isasiren aginduetara bederatzi denboraldi egin dituen jokalaria.

Baina Isasik ez zuen horren aurrean amorerik eman, eta, gutxika, diziplina jokalarien mentalitatean barnatzea lortu zuen. "Bere jokaera gogortu egin zuen, eta harremana ez zen erreza izan. Baina bere bideekin eta moduekin, onartu egin behar da oso ondo lortu duela dizipli-

na geure buruei aplikatzea. Behin helburua lortzen hasita, bere jarrera ere malgutu egin zen, eta sekulako harremana izan dugu. Eta garrantzitsua dena, errugbiari buruz dakien guztia irakatsi digu, eta kuadrilla bat izatetik errugbi ekipo bat izatera pasa gara berari esker".

## Urtebeteko atsedena

Urtebeteko geldialdia egingo du Isasik, etxekoekin egoteko denbora edukitzeko. Baina entrenatzea "faltan igarriz gero", ez du itzuleraren atea gutziz ixten.



Igor Isasi, goiko ilaran lehena, ezkerretik hasita. XABI URZELAI

## Ibilbide luzea, hasi berritan


2008-2009 denboraldian ekin zion Igor Isasik ART talde nagusiaren gidaritzari. Arkaitz Ibarquen prestatzaileak utzitako lekukoa hartu zuen, eta gutxika hasi zen bere lan metodologia aplikatzen. Irudian, urte horretako jokalarien talde argazkia.

## Zein izan da Isasiren ekarpena?



**XABI GARDOKI**  
ART-KO JOKALARIA

"Gorrotzetik maitatzera pasa izan naiz. Nire bizitzan aldaketa handi bat eragin duen pertsona izan da, ez soilik errugbi mailan. Bizi osorako lagun bat da niretzako. Askok eskertzekoa da talde honi egin dion ekarpena, eta uste dut talde guztiaren izenean esan dezakedan zerbaite dela".



**JOKIN DOLARA**  
ART-KO JOKALARIA

"Askok igarri da bere lana. Hasieran, arraroa egin zen berak ezarritako exijentzia maila, baina denborarekin kristoren fruituak eman ditu. Teknikoki eta mentalki beste maila batera igo ditu jokalaria. Askok irakatsi digu errugbiari buruz, baina baita balioei buruz ere".

## Alkideba mailaz igo da

La Salleri 65-48 irabazi ostean, lehenengo mailan jokatu du datorren denboraldian Arrasateko taldeak. Bigarren zatian poltsikoratu zuten partidua, batez ere, hasi eta gutxira hiru minutuan lortutako 0-15 partzialari esker. Bilbokoek erreakzionatu egin nahi izan zuten, baina ez zuten urrunetik asmatu. Irabazita, mailaz igozteko lortu du Alkideba Ointxe!-k.



OINTXE!

## Mondrako kadeteak, txapeldun eta maila bat gorago

Igoera fasean txapeldun izatea lortu dute zuri-moreek, eta, horri, esker koxka bat gorago jokatu dute datorren urtean, ohorezko kadete mailan. Igoera fasean talderik indartsuena izan da, Urki taldearen aurretik. Villabonak, Aloña Mendik, Aizkorri-Goierrik eta Oartzunek ere lortu dute ohorezko mailan jokatzeke txartela. Zorionak!



Jokalaria, garaikurrekin. MONDRA TWITTER



Ibai-arteke kideak eta Ebert eta JimTNT musikariak, jaialdi berriaren kartelaren alboan. XABI GOROSTIDI

# 'Arrasate Blues' jaialdia, Ibai-arteren apustu berria

Ibai-arteke zuzendaritza gauzak antolatzeko gogoz dabil, eta asteen, musika jaialdi bat aurkeztu du. Gaur-gaurkoz, zortzi blues kontzertu lotu dituzte herriko tabernetan, uztailaren 19tik 21era, eta talde gehiago erakartzeko lanean ari dira

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Idea garatzeko orduan, elkarreko presidente Jon Apraizek asko eskertu zuen herriko eragile batzuek eman dizkioten erraztasunak. "Musika taldeak lortzeko, adibidez, Arrasate Musikaleko Martarengana jo nuen, eta segituan hasi zen taldeak eta musikariak lotzen. Kontzertuak emateko tabernei dagokienez, Kajoi tabernako Antonio ere hasieratik egon da laguntzeko prest". Gaur-gaurkoz lotu dituzten zortzi taldeetatik gehienak arrasatearrak dira, edo Arrasaterekin lotura izan duten musikariak dituzte. Horrez gain, Allnighters bezalako puntako taldeak ere badaude egitarauan. Azken hau Udalaren laguntzarekin ekarriko dute. Hala ere, lanean dihardute talde gehiago ekartzeko. "Kanpotik datorren taldea Soriakoa da, eta bertako *Enclave del agua* blues jaialdia antolatzen dute. Hala, ez dugu baztertzeko Sorian joko duen talde amerikarren bat ekartzea".

Zortzi kontzertuak sei tabernetan egingo dituzte, baina, talde gehiago lortuz gero, Irati eta Taupa tabernak egitarauan sartzea aztertzen ari dira.

**Aurkezpena eta Instagram**

Martitzenean egin zuten jaialdiaren aurkezpena, Kulturaten, behin dendariak komertzioak itxi ostean. Bertan, pintxoak,

ardoak eta Kajoi tabernako goimailako gin-tonicak egon ziren dastagai, Ebert-ek eta Jim TNTk blues doinuak jotzen zituzten bitartean. Aipatu behar da gonbidatuta egon arren, ez zela herriko alderdi politikoetako ordezkariarik izan. Jaialdiari buruzko berriak eta argazkiak jasotzeko Instagram kontu bat egin dute (@arrasateblues).

## 'Arrasate Blues'-en egitaraua

**Uztailak 19, ostirala**

- 19:00 Kritikak Latin Blues, 1990 gastrotekan.
- 21:00 The Song, Aterpe tabernan

**Uztailak 20, ostirala**

- 12:00 Mario Fernandino, Monte tabernan.
- 13:00 Blues de Luxes, Kajoi eta Itzala tabernen artean.
- 19:00 Aldakan, Kajoi eta Itzala tabernen artean.
- 21:00 Leike, Tantaka tabernan.
- 22:00 The Allnighters, Herriko Plazan.

**Uztailak 21, ostirala**

- 13:00 Garcia del Val, Ezkiña tabernan.



Harvey Wang, New Yorkeko argazkilaria. HARVEYWANG.COM

## Harvey Wang argazkilaria Arrasatera dator eguaztenean

'From darkroom to daylight' azken dokumentala proiektatu eta hari buruzko xehetasunak emango ditu

**X.G.** ARRASATE

Argazkilaritza analogikotik digitalera bizitako trantsizioa du ardatz filmak. Argazkilaria amerikar ezagunen testigantzen bitartez, ikusleak argazkilaritza mundura erakartzeko lanetan izan duen eraginari buruz hausnartzen dute. Ekimena Photo Gune Espaciok antolatzen du, beste hainbat udalerriren babesarekin, eta, Arrasateko Udalak, herriko Artgazki argazkilaria taldearekin ekimenaren inguruan hitz egin eta informazioa partekatu ostean, ekimena-

rekin bat egin du. Dokumentala Kulturateko areto nagusian ikusian ahalko da, ekainaren 5ean, arratsaldeko zazpitan. Amaitu ostean, Wang bera egongo da ikusleei ekoizpenaren inguruko azalpenak eta xehetasunak kontatzen.

**Ospedun argazkilaria**

Wangen argazki galeriak AEBetako museo ospetsuenetan egon dira ikusgai. Horrez gain, Milton Rogovin argazkilaria buruz egin zuen film laburrak Tribeca Film Festivaleko dokumental onenaren saria jaso zuen.

## 'Musika kalean', gaur, Arrasate Musikaleko partaideen eskutik

Atzo hasi eta hiru egunez jarraian, dohain musikalak taularatuko dituzte Arrasate Musikaleko artistek. Atzo, adibidez, perkusio ikasleek erakustaldia egin zuten Musika Eskolan. Gaur, ordea, bi hitzordu dituzte. 18:00etan, Kulturaten, Amaia Garroren zuzendaritzapean Suzuki taldeko partaideek erakustaldia egingo dute. Aldi berean, ordea, beste hainbat musikaririk zuzeneko kale emanaldiak egingo dituzte, Ibai-arteren laguntzaz antolatu duten *Musika kalean* dinamikaren baitan. Zapatuan, 12:00etan, gaitako ikasleek emanaldia egingo dute Musika Eskolan bertan, Domentx Ucinen gidaritzapean.

## OHARRAK

### Kolonbiako ipuinak

*Cuando jugaba con mi pez* ipuina gaztelaz eta euskaraz entzuteko aukera ekainaren 6an. Hitzordua: Usaetxeke Luditekan, 18:30ean.

### La Banda del Abuelo

Arrasateko talderik bidelapurrenak bideo klip berria du Youtuben ikusgai. *Mihura* izena du kantuak, eta hirukotearen *Rockanrolla mailu bat da* azken diskoan dago.

### Sara Vitoria

Ekainaren 12an, eguaztenean, *No entiendo a mamá* liburua aurkeztuko du arrasatearrak. Hitzordua: Kulturaten, 18:30ean.



Neska-mutikoak, iaz, patinete lasterketa ekiteko gertu Durana kalean. IMANOL SORIANO

# Kirola gertutik bizitzeko egunak

'Kirolez busti' aste bukaera antolatu du UDAk, beste behin; gaurtik domeka eguerdira bitartean, kirol mordoak ezagutzeko eta egiteko aukera eskainiko diete herritarrei; besteak beste, gimnasia erritmikoa, boulderra, pilota, zumba, dokea eta trialsina

## Mirari Altube ARETXABALETAK

Kirol ezberdinak gertutik ezagutzera atera gura ditu herritarrak kalera Aretxabaleta kirol elkarteak hiru egunotan. Eta, horretarako, egitarau dotorea gertatu dute, seigarrenez, *Aretxabaleta kirolez busti* jaialdiaren baitan. Parte hartuko duten taldeen artean honako hauek daude: Arizmendi kirol elkarte, Arlutz xake taldea, Debagoieneko eskalatzailak, Oztopo trialsin taldea, Ointxe! saskibaloia elkarte eta Dorletako Ama txirrindulari elkarte.

"Gero eta ekintza gehiago antolatzen ditugu, urtetik urtera indar handiagoa hartzen dabilen ekimena izanik UDAREN festa erraldoi bihurtu da", dio elkartearen presidente Agurtzane Elkorok: "Edonorendako kirola eta kirol librea sustatu gura dugu, herri guztia mugimenduan jarri".

## Kantu boulderra da berrikuntza

Kantu boulderra da aurtengo nobedadeetako bat. Hilabeteko azken egubakoitzetan kantuan jarduten duen Kantu Poteoko taldeak eta herriko eskalatzailak bat egingo dute gaur iluntzean herria girotzeko. Txokorik txoko eta hormarik horma joango dira kantuan eta eskalatzen, eta probatu gura duen edonori egingo diote lekua.

Horrez gain, gaur, patinete lasterketak izango dira, urtero lez, Durana kalean, eta gimnasia erritmikoa eta xakea gertutik ezagutzeko aukera plazan.

## MASTER CUP TXAPELKETAN JARDUN DUTEN PILOTARIAK IZANGO DIRA BIHAR

## Elite mailako pilotariak

Pilota partidu dotoreak ikusteko aukera izango da zapatu goizean. Lehenengo, herriko pilotariak jardungo dute nor baino nor gehiago; aurtun, gainera, herri arteko txapelketan parte hartu berri dute, eta indartsu daude. Ondoren, elite mailakoen txanda izango da; Master Cup txapelketan jardun duten goi mailako pilotariak gerturatuko dira. Eskuz binaka arituko da Miren Larrarte eta Miriam Arrilaga bikotea Olatz Arrizabalaga eta Oihana Orbegozoren aurka; eta ondoren, palarekin, Amaia Irazustabarrena eta Maddi Mendizabal, Irati Otaegi eta Itxaso Erasoren aurka. "Guztiak ere pilotari handiak dira, txapelketa garrantzitsuetan ibili direnak emaitza bikainekin. Partidu politak eskainiko dituzte; hortaz, gerturatu pilotalekura".

## Inklusioa jardunaldia

Substantzien kontsumoaren gaineko jardunaldia egingo du UDAk San Juan de Dios ospitalearekin batera, Donostian, ekainaren 5etik 7ra bitartean, eta 500 lagunetik gora elkartuko direla jakinarazi dute. Lehen bi egunetan, 16 urteko gazteak joango dira; hirugarrenean, bi adituk emango dituzten saioak entzutera 220tik gora heldu: gurasoak, prebentzioan dihardutenak, hezitzaileak... UDAko kideak pozik daude izan duen erantzunarekin eta oso eskertuta babesa erakutsi dieten guztiekin.

## Hauteskunde deialdia

Zuzendaritza batzordeak bi urte bete ditu, eta orain, hauteskunde deia egitea dagokio. Hautagaiak aurkezteko epea zabalik dagoela jakinarazi dute ekainaren 14a artean. Horretarako bideak, hona hemen: [udaretxabaleta@gmail.com](mailto:udaretxabaleta@gmail.com), [www.udaretxabaleta.eus](http://www.udaretxabaleta.eus) eta Correosen, 10 posta-kutxa.

Hautagai zerrenda bat baino gehiago aurkeztuz gero, uztailean ezohiko batzarra deituko dute – ohiko batzar nagusiarekin batera –, eta boto gehien jasotzen duena hautatu.

## Txirrindularitza Araba ibilbidean

Txirrindularitza ezagutzera emateko, ostera, Dorletako Ama elkarteak kideak izango dituzte lagun. Benjaminen, alebinen eta infantilen lasterketak daude zapatuan (16:00), Araba ibilbidean, eta, hori aprobetxatuta, neska-mutiko guztiei zabaldu dizkiete ateak. Hala, benjaminen mailako -7 eta 10 urte- edonork izango du parte hartzeko aukera; baldintza bakarra da bizikleta eta kaskoa norberak erotea. "Gainera, guztiendako izango ditugu dominak!", dio Elkorok.

Hiruko saskibaloia txapelketa ere izango da, Arlutzeko kantxan, eta Mitarte kalea puzgarriz beteko dute gaztetxoendako.

## Domekan Ibarra futbol zelaian

Domekako ekintza guztiak futbol zelaian egingo dituzte, eta Eskua Proiektua jaia izena jarri diote; futbolaren inguruko jaialdia izango da. "Gurasoekin jokoak izango ditugu, eta bukatutakoan zumba erakustaldia. Hori guztia borobilduko dugu paella janda. 250 lagunendako gertatuko dute, eta gehiagorendako ezin, paella egiteko ontzi handiagorik ez dugulako!", adierazi du Elkorok.

## ESKUA PROIEKTUA JAIAREKIN BUKATUKO DA DOMEKAN, 250 LAGUNENDAKO PAELLA EGINDA

## 'Kirolez busti' ekimenaren egitaraua

### Maiatzak 31

- **17:00** Patinete lasterketak Durana kalean.
- **17:30** Gimnasia erritmikoa Herriko Plazan.
- **18:00** Xakea Herriko Plazan.
- **19:30** Kantu boulderra.

### Ekainak 1

- **09:00** Herriko pilotarien partiduak, pilotalekuan.
- **10:00** Doke txapelketa.
- **11:00** Trialsin erakustaldia, pilotaleku alboko kantxan.
- **11:30** Elite mailako pilota partiduak, pilotalekuan.
- **12:30** Elite mailako pala partiduak, pilotalekuan.
- **16:00-19:30** Puzgarriak Mitarte kalean.
- **17:00** Hiruko saskibaloia txapelketa Arlutzeko kantxan.

### Ekainak 2 (Ibarra futbol zelaian)

- **10:00** Eskua Proiektua jaia.
- **13:00** Gurasoekin jokoak.
- **13:30** Zumba erakustaldia.
- **14:00** Paella dastatzea (platerkada 2 euro).



# EAJ garaile sendoa, boto abertzaleak gora eginda

1.826 boto eskuratuta EAJ izan da udal hauteskundeetako irabazlea, eta EH Bilduk ere gora egin du; Elkarrekin Podemosek eta PSE-EEk, ostera, galdu egin dituzte botoak, eta, ondorioz, udalbatza bi alderdik bakarrik osatuko dute lehenengoz

**Mirari Altube** ARETXABAETA

Parte-hartzeak 3,21 puntu egin zuen gora 2015eko udal hauteskundeekin alderatuta, eta, horrekin batera, boto kopuruak ere bai abertzaleen kasuan. EAJk boto zaparrada jaso zuen, 2015ean baino 210 gehiago, eta EH Bilduk 120 gehiago. Biek ala biek zinegotzi bat gehiago izango dute agintaldi honetan. PSE-EEk eta Elkarrekin Podemosek –lehen irabazi–, ostera, galdu egin dituzte botoak eta ez dute zinegotzirik eskuratu. Ondorioz, bi alderdi abertzaleek bakarrik osatuko dute udalbatza.

Alkate izango den Unai Elkoro oso pozik dago: "Bagenuen ira-

bazteko itxaropena, baina lehia estuagoa izango zela uste genuen; botoen %48 jaso dugu, eta oso emaitza ona da hori. Jarraitzeko indar handia ematen digu".

EH Bilduko Ion Albizuk dio herritarrek boto baliagarria hautatu dutela: "Gurea alternatibako proiektua da, sendotzen dabil eta etorriko da bere unea. Debagoieneko Mankomunitatea berreskuratu dugu eta pozik gaude".

Alderdi Sozialistako Miren Lorea Lana, ostera, triste zen: "Hutsegite bat izan genuen eta beste herri bateko boto-paperak banatu ziren etxeetara. Ondorioz, halako 36 boto jaso ditut, balio-gabeak, eta zinegotzi izateko

atarian geratu naiz". Elkarrekin Podemoseko Rafa Bernal ere penatuta zegoen: "Demokrazia-erentzat ez da ona alde biktasun hau".

Foru Aldundirako hauteskundeetan ere EAJ izan zen nagusi (1.653 boto) eta Europako Parlamenturakoan EH Bildu (1.460).

## Mahaiei dagozkien kaleak

Taulan jasotako emaitzei dagozkien kaleak: 1.: Otalora, Santa Kurtz, Murubide eta inguruak. 2.: Lausitta, Herriko Plaza, Mitarte, Andramari eta inguruak. 3.: Araba ibilbidea, Loramendi, Belorrieta eta inguruak. 4.: Markole, Txarapea eta baserri auzoak.



EAJko kideak, Unai Elkoro alkategaia erdian dela, batzokian ospatzen. AMAIA TXINTXURRETA

## Botoen emaitzak mahairik mahai

	EAJ	EH BILDU	PSE-EE	ELK. POD.	PP
<b>Iparralde</b>	403	245	67	41	12
<b>Erdigunea</b>	545	429	42	63	12
<b>Hegoaldea</b>	533	373	86	51	5
<b>Auzoak</b>	345	454	21	37	3
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.826</b>	<b>1.501</b>	<b>216</b>	<b>192</b>	<b>32</b>
	%48,23	%39,65	%5,71	%5,07	%0,85
<b>Zinegotziak</b>	<b>7</b>	<b>6</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## LANBIDE HEZIKETA DEBAGOIENEAN



“etorkizuna zure esku”

**ARETXABALETAN**



**ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola**

Etxebarri auzoa, z/g - 22 Pk. • 20550 ARETXABAETA  
☎ 943 79 79 00 / 943 79 79 43  
ia.iaaretxabaleta.com

[www.iaaretxabaleta.com](http://www.iaaretxabaleta.com)

**BERGARAN**



**Miguel Altuna LHII Bergara**

Ibargarai, 1 • 20570 BERGARA  
☎ 943 76 24 91 / 943 76 38 40  
info@maltuna.eus

[www.maltuna.eus](http://www.maltuna.eus)

**OÑATIN**



**IES RM Zuazola - Larraña BHI**

Larraña auzoa, 16 • 20560 OÑATI  
☎ 943 89 93 00  
013015aa@hezkontza.net

[www.onati.net](http://www.onati.net)

2019-2020 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA: Ekainaren 3tik 14ra (biak barne). MATRIKULA: Uztailaren 11tik 17ra (biak barne).



Bihar Txotxongilo Taldearen 'Kli! Kla! Birzikla!' ikuskizuna. BIHAR ANTZERKI TALDEA

## '7x7 kultura kalean' zikloa izango da ekainean

Zazpi egunetan zapi kultura hitzordu izango dira ekainean Aretxabaletan. Haur, gazte eta helduentzako antolatutako egitaraua prestatu dute, eta musikaz, antzerkiaz, dantzez eta bestelako ikuskizunaz gozatzeko aukera izango dute herritarrek

**Imanol Beloki** ARETXABALETA

Zazpi egunetan zazpi hitzordu antolatu ditu Aretxabaletako Udalak ekainerako. *7x7 kultura kalean* izenpean, musika, antzerkia eta bestelako ikuskizunak eskainiko dituzte herriko zenbait lekutan.

"Ekaina girotzeko asmoz antolatu dugu *7x7 kultura kalean* zikloa, eta adin guztiei zuzendutako hitzorduak izango ditugu; haur, gazte eta helduentzat. Horrekin batera, auzo guztietara zabaldu nahi dugu kultura. Santakurtzeko plazan, Mitarte kalean, Santa Rita lorategian, Gipuzkoa plazan, Herriko Plazan eta Durana kalean izango ditugu ekintzak", adierazi du Joxe Migel Uribarren Kultura zinegotziak.

**Hasteko, txotxongiloak**

Ekainaren 5ean izango da lehengo hitzordua, eta haurrei zuzendutakoa izango da. 19:00etan, Santakurtzeko plazan, Bihar Txotxongilo Taldeak *Kli!*

### Egitaraua

- **Ekainak 5** 19:00etan. *Kli! Kla! Birzikla!* txotxongiloak Santakurtzeko plazan.
- **Ekainak 7** 19:00etan. *Screamers and Sinners* taldearen kontzertua Mitarten.
- **Ekainak 12** 19:00etan. *Voces Riberas* taldearen kantaldia. Santa Rita lorategian.
- **Ekainak 13** 19:00etan. *Rock Eroak* ikuskizuna. Gipuzkoa plazan.
- **Ekainak 14** 19:00etan. Bandaren emanaldia Santa Rita lorategian.
- **Ekainak 18** 18:00etan. Musika eskolako kontzertua, plazan.
- **Ekainak 19** 19:00etan. Jaiki Elkartean eta Altraste dantzaren ikuskizunak, Duranan.

*kla! Birzikla!* ikuskizuna eskainiko du. Historia horretako protagonistak zabor artean aurkituriko gauzak gordetzen ditu: botilak, kaxak, paper bilduak... eta ezkutuan txotxongiloak egiten ditu. Bere neska-laguna jendeari ipuinak kontatzen hasteko konbentzitzen du, eta, atsegingarria iruditzen zaienez, aurrerantzean ere berrerabil daitezkeen gauzak gordetzea erabakitzen dute, horrela aktoerak, objektuak eta txotxongiloak nahastuz istorio berriak kontatu ahal izateko.

**Herriko taldeak**

Herriko taldeek ere izango dute protagonismoa *7x7 kultura kalean* egitasmoan. *Screamers and Sinners* Aretxabaletan sortutako psychobilly taldeak kontzertua eskainiko du ekainaren 7an, Mitarte kalean, eta ekainaren 19an, berriz, Jaiki Elkartean Gorputza Gogoan izeneko dantza ikuskizuna eskainiko du Durana kalean.

## Udarako kirol eskaintza zabala, nerabeendako, Ibarra kiroldegian

Kiroldegiak antolatu dituen nerabeendako udako jardueretan izena emateko azken eguna ekainaren 16a izango da

**I.B** ARETXABALETA

Aretxabaletako Ibarra kiroldegiak uztailerako bi eskaintza proposatu ditu, haurrei eta nerabeei zuzenduta. Batetik, igeriketa ikastaroa izango da; uztailaren 1etik 5era, 3 eta 4 urte bitarteko haurrentzat, (09:30-10:15) eta 5 eta 10 urte bitartekoentzat (10:15-11:00). Ondoren, uztailaren 8tik 12ra ere beste txanda bat izango da.

Bestetik, nerabeendako udako jarduerak ere izango dira. Uztailaren 1etik 5era, 10:00etatik 11:30era bitartean, hainbat kirol ezagutu eta praktikatzeko auke-

ra izango dute 12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek: badmintona, beisbola, *floorball*-a, eskubaloia eta boleibola. 11:30etik 13:00etara, berriz, patinaje ikastaroa izango da. Hori horrela, hainbat kirolen saioan, patinaje edo bietan eman ahalko dute izena nerabeek. Horretarako azken eguna ekainaren 16a izango da. Egun horietan ezin duenak beste txanda bat ere izango du uztailaren 8tik 12ra bitartean. 10:00etatik 11:30era, eskalada izango da eta 11:30etik 13:00era, fitness jarduerak, hain zuzen ere.



ALE

## Lankidetzaren hitzarmena, sinatuta

Aretxabaleta Lanbide Eskolaren izenean Joseba Beristainek eta Adom Autonomiaren (Erreka kooperatiba) ordezkari Jabi Odriozolak hitzarmena sinatu dute, heziketaren sustapena eta inguruaren garapena helburu duen kolaborazioari hasiera emateko. Ikasleak tratatzea eta herritarren eta bailarako profesionalen ezagutza aberastea dutela helburu adierazi dute.

### Kirolaren eta elikaduraren gaineko hitzaldia hilaren 11n

Kirola egiterakoan elikadurak duen garrantziaren gainean egingo du berba Andere Etxabe dietista-nutrizionistak ekainaren 11n (18:00), Ibarra kiroldegian. Zer eta noiz jan behar den, kirol osagarriak beharrezkoak diren eta beste hainbat kontu argitu dituzte.

Aurrez eman behar da izena kiroldegian (943-03 98 42).

### OHARRAK

#### Hitzaldia

Gaur, 10 urtez *bizikletaz munduan zehar* hitzaldia eskainiko du Laura Martinezek Loramendi elkartearekin, 19:00etan.

#### Urbaltzeko egitaraua

Ekainerako hainbat hitzordu antolatu dituzte Urbaltzen. Lehena zapatu honetan izango da, mojito eta pintxada, 19:30ean.

# Gehiengo osoa lortuta, EAJ berriro garaile

Alderdi jeltzaleak sei zinegotzi izango ditu, EH Bilduk lau, Eskoriatzako Elizateen Elkarteak bat eta Elkarrekin Podemos eta PSE-EEk ez dute ordezkariarik lortu. Ekainaren 15ean, inbestidura egunean, Joserra Zubizarretak hartuko du aginte-makila

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Alderdi jeltzalea izan da garaile Eskoriatzan udal hauteskundeetan. Asko igo du boto kopurua; izan ere, 1.072 boto jaso ditu, guztira, 2015eko hauteskundeekin alderatuz 205 boto gehiago. EAJk Eskoriatzan izandako emaitzarik onena. Hori horrela, eserleku bat gehiago izango dute datorren agintaldian -6-. EH Bilduk, berriz, 751 boto jaso ditu, 2015eko datuekin alderatuz, 111 boto gehiago, baina zinegotzi kopuru berbera izaten jarraituko du, -4-. Eskoriatzako Elizateen Elkarteak 209 boto jaso ditu, elkarte sortu zenetik 1983tik gaur egunera arte inoiz jaso duen emaitza txarrean. Hala ere, eserleku bat lortuta, helburua bete dute baserriarrek. Elkarrekin Podemos 96 boto jaso ditu eta sozialistek, berriz, 95. Hori horrela, eserleku kopuru minimora ez direnez iritsi, ez dute ordezkariarik izango agintaldi honetan.



EAJ Eskoriatzak izango dituen sei zinegotziak talde argazkian. EAJ ESKORIATZA

## EAJ, "pozik", lanerako prest

Eguaztenean batzokian egin zuten agerraldia EAJko ordezkariak. Hauteskunde balorazioa egin zuten eta agintaldi honi begira osatuko duten taldea aurkezteko aprobetxatu

zuten hitzordua. "Herriarrei eskerrak eman nahi dizkiegu, lehenbizi. Partaidetza handia izan da eta emaitza onak izan ditugu; beraz, oso gustura gaude. Lantalde berriari dagokionez, berriz, esperientzia eta berri-

tasuna batzen ditugu. Hala, lan egiteko gogoz gaude, eta agintaldi honetan aurrekoaren bidea jarraituko dugu harreman eta parte-hartzearen bidea. Herriko elkarteak dira herriko oinarri sendoak, eta hauekin harremana sendotzea da gure asmoa. Azpimarratu nahi dut Jaur-laritzarekin eta Foru Aldundiarekin lan handia egin dugula; horrenbestez, euren laguntza eskertu nahi dugu, eta ildo beretik jarraituko dugu. Nahiz eta guk gehiengoa izan, beste bi alderdietara irekita egongo gara, baldin eta gurekin lan egiteko prest badaude. Eskoriatzarako ona dena guretzako ere ona da, eta elkarlanerako prest egongo gara", adierazi du Jose-rra Zubizarretak.

## Herrigintzarako prest

EH Bildu, alkatetza ez lortu arren, gustura geratu da emaitzekin: "Pozik nago. Berria naiz honetan, ez naiz politikaria, eta boto kopuruetan igo izanak esan nahi du guk aurkeztu ditugun proiektuak eta EH Bilduk erreprezentatzen duenari jendeak babesa ematen diola eta gure duela aurrera egitea. Eskoriatza hobea, lagunkoi, feminista, euskaldun eta autonomoagoa egiteko helburua da gurea, zinez sinisten dugulako Eskoriatzak behar duela, eta eskoriatzarrok merezi dugulako...", adierazi du Eluska Irazu Eskoriatzako EH Bilduko zerrendaburuak.

## Emaitzak

Alderdiak	Botoak	%	Zineg.
EAJ	1.072	%47,60	6
EH BILDU	751	%33,35	4
ELIZATEAK	209	%9,28	1
ELK. POD.	96	%4,26	0
PSE-EE	95	%4,22	0
Zuriak	29	%1,28	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.252</b>	<b>%100</b>	<b>11</b>

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## Elizateen botoek, beherakada

Eskoriatzako Elizateen Elkarteak 2015ean baino boto gutxiago jaso dituzte, baina zinegotzi bat lortuta helburua bete dutela adierazi du Iñaki Kere-xeta EEEko zerrendaburuak: "Boto gutxiago izan ditugu, eta hori aztertu beharko dugu. Hala ere, pozik gaude zinegotzi bat lortzearekin".

## Ordezkaritza barik

Elkarrekin Podemos koalizioak, bestalde, ez du ordezkariarik lortu Eskoriatzako Udalean. Hori horrela, Salva Gonzalezek adierazi du lanean jarraituko dutela: "Ez naute askorik harritu emaitzek. Izan ere, hemengo borroka alderdi jeltzalearen eta EH Bilduren artekoa zen. Ni, gainera, kanpokoa naiz, eta horrek ere eragiten du".

## Berbalagunen kurtso amaierako jairako gonbidatu bereziak daude

Eñaut Elorrietak eta Mikel Markezek 'Baga, Biga, Higa' hitzaldi musikatu eskainiko dute ekainaren 7an

**I.B** ESKORIATZA

Ikasturte amaierako ekitaldia egingo dute Eskoriatzako Berbalagunek ekainaren 7an. Baina itxiera ekitaldia etapa berri bati hasiera emateko ere aprobetxatuko dute. Izan ere, hurrengo ikasturtean, hamar urte beteko dituzten Eskoriatzako Berbalagun egitasmoak, eta horren hasiera moduan ere hartuko dute jaialdia; horretarako, gonbidatu bereziak izango dituzte.

Zaldibar antzokiko oholtzara Eñaut Elorrieta eta Mikel Markez musikariak igoko dira,

19:00etan, *Baga, Biga, Higa* hitzaldi musikatu eskaintzera. Euskarazko musikaren transmisioa helburu izango du saioak, eta 60ko hamarkadaren aurreko garaietatik hasi eta gaur egunera arteko euskarazko musika ezagutzeko aukera paregabea izango dute bertaratzen direnek.

Hitzaldi musikatura joateko deialdia irekia da, baina Eskoriatzako Berbalagunetatik hamar urte hauetan aritu diren parte hartzaileei bertaratzekei egin gura izan dieten, bereziki.

## Talde heterogeneoak eta irekiak

Iratxe Arrese izan da aurtengo Berbalagunak egitasmo koordinatzailea Eskoriatzan. Lau talde izan ditu, eta horietako bat guraso taldea izan da. Aurtengo berreskuratu dutena. Ikasturte honetako balorazioa ona dela adierazi du: "Pertsonalki, egitasmoak funtzionatzen duela uste dut. Nire lehenengo urtea da koordinatzaile moduan, eta parte hartzaileen erantzuna oso ona dela uste dut, esperientzia aberasgarria baita beraientzat. Talde heterogeneoak eta esku-zabalak izan ditugu, gazteak eta helduak nahastean dira berrikerian egin eta euskara praktikatu eta ikasteko. Hala, giro ederra izan dela uste dut. Horrekin batera, Euskaraldia egitasmoak ere jende asko erakarri duela uste dut".



ARIZMENDI IKASTOLA

## Almen gunekoak, Katalunian

Arizmendiko Almen guneko Unai Busturia BHko zuzendaria, Aritz Oianguren LHko zuzendaria eta Mireia Muruamendiaraz pedagogia berrikuntzako arduraduna Katalunian izan dira, 2019-2022 urtealdian egin nahi den eraldaketa pedagogikoa planifikatzeko eta aholkularitza jasotzeko.

# 86 postu izango dira Eskoriatzako 23. Ferixian

Baserriko produktu eta elikagaiak, artisautza eta askotariko tresneria batuko ditu zapatu honetan egingo den 23. Ferixiak. Horrez gain, 'Zuk ekarri zuk jan' bazkaria, txapel jaurtiketa eta bestelakoak izango dira egun osoan

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Arizmendiko Jose Arana gune-koek antolatuta, Udalak babes-tuta eta herriko taldeek, komertzioek, babesleek eta ikastolako irakasle eta familiekin lagundutako Ferixiak 23. edizioa ospatuko du zapatu honetan. Urterokoari jarraituz, Euskal Herri osoko baserriak eta artisauak batuko ditu, beste urte batez, Eskoriatzako kaleetan. Gipuzkoako eta Nafarroako 40 herri-tik 86 postu izango dira, eta Errioxako ordezkariaren bat ere egongo dela adierazi dute antolatzaileek.

09:00etan emango zaio hasiera Eskoriatzako 23. Ferixiari, etxafuego jaurtiketarekin eta txistularien kalejirarekin. Jarraian, 10:00etan, azokako postuak irekiko dituzte. Hala, postuetan baserriko produktuak eta artisautza-lan ugari ikusi eta erosi ahal izango dira.

**Txorimaloak eta gazta dastaketa**

Urteroko txapelketek ere ez dute hutsik egingo: 10:15etik 11:15era, erreka ondoan egongo dira lehiaketara aurkezten diren herriko neska-mutikoak txorimaloak egiten, San Pedro eliza aurrean. Gazta dastaketa eta txapelketa, berriz, Santa Marina plazan izango da, 11:30etik 13:00etara bitartean, eta ferriako postuetan ere izango dira sariak.

Giroa alaitzeko ere egongo dira zenbait ekintza: trikitilari-ekin kalejira, Almeneko ikasleen ikuskizuna eta Eskoriatzako dantza taldekoen saioa. Haur eta gazteentzat zuzenduta, tailerrak eta puzgarriak ere izango dituzte Jose Aranako jolas-tokian. Iaz lortutako arrakastaren ondoren, Arrasateko erraldoiak ere izango dira aurturiko herriko kaleetan zehar bueltaka. Bazkalaurretik, 14:00etan, bestalde, sari banaketa eta errifa zozketa egingo dute Jose Aranaren.



Iaz, Joseba Iñurrategi pilotalekuan egindako bazkarian. ARIZMENDI IKASTOLA

## Zapaturako prestatutako egitaraua

**Fernando Eskoriatza plazan**

- **09:00** Etxafuego jaurtiketa.
- **09:30** Txistularien kalejira.
- **10:00** Ferixiaren hasiera.
- **10:15** 22. Txorimalo lehiaketa.
- **11:00** Tailerrak eta puzgarriak (Jose Aranaren).
- **11:30** XI. gazta dastaketa eta txapelketa (Santa Marinar).
- **12:00** Almeneko ikasleen ikuskizuna (Gorosarrin).
- **12:45** Eskoriatzako dantza taldea (Gorosarrin).
- **14:00** Sari banaketa (Jose Aranaren).
- **15:00** *Zuk ekarri, zuk jan* bazkaria.
- **19:00** VIII. txapel jaurtiketa txapelketa.
- **20:00** Kantu poteoa. Goizean zehar Arrasateko Erraldoi Taldea kalean zehar.

**Bazkaria, norberak eramanda**

*Zuk ekarri, zuk jan* estilora egingo da eguneko bazkaria. Egurraldiak laguntzen badu, Fernando Eskoriatza plazan izango da, eta 15:00etan hasiko da. Txarra egiten badu, bestalde, frontoian egingo dute. Bakoitzak bere jana eraman behar badu ere, mahaian erreserba egitea derrigorrezkoa izango da, eta, horretarako, 696 91 86 87 telefono zenbakira deitu beharko da.

**Txapela urrunen nork botako**

Azken urteotan errota egin den hitzordua da txapel jaurtiketa txapelketa. Hori horrela, aurturuko zortzigarren urtez egingo dute, eta Fernando Eskoriatza plaza aurrean egingo dute, Jose Arana kaleko errepidean, 19:00etan hasita.

Txapelketara begira bete beharreko hainbat baldintza ere adierazi dituzte antolatzaileek: partaide bakoitzak bi jaurtiketa izango ditu eta luzeana izango da txapelketarako balioduna, txapelak errepideko marren barruan geratu behar du eta txapela jaurti eta distantzia luzean lortzen duena izango da txapelduna, besteak beste.



2017an egindako Txikirri-txikirri mendi martxan batutakoak. GOIENA

## Hildako mendizale eskoriatzarren omenezko mendi martxa, prest

Ekainaren 9an egingo da Txikirri-txikirri mendi martxa, eta aurtengo ibilbideak 25 kilometro izango ditu

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Hildako mendizale eskoriatzarren omenez egiten den Txikirri-txikirri oinezko mendi martxa bi urtetik behin egiten dute eta aurturko ekainaren 9an izango da. Hamabigarren edizioa izango da, eta dagoeneko jarri dute zein izango den ibilbidea: Fernando Eskoriatza plaza, Atxorrotx, Makatz-gain, Pago Bedeinkatu, Aumategi, Andarto, Degurixa, Kurtzebarri otea, Mendiola, Fernando Eskoriatza plaza.

Eskoriatzako Kirol Elkarteak antolatutako eta Eskoriatzako Udalak babestutako egitasmoan

parte hartu nahi dutenek bost euro ordaindu beharko dituzte, eta izen-ematea egunean bertan egingo da, irteera puntuan, 06:30etik 07:30era bitartean. Martxa, berriz, 07:30ean hasiko da. Informazio gehiago nahi duenak 943 71 43 27 telefono zenbakira deituz jaso dezake.

**Parte-hartzea**

Parte-hartzeak gora egin du azken edizioetan. Hain zuzen ere, 2017an, 261 parte-hartzaile eta ibilbideko hainbat puntutan hogeita boluntario inguru izan ziren laguntzen.

## San Pedro jaietarako esaldi lehiaketa 20. urtez egingo dute

Domeka izango da lanak entregatzeko azken eguna; kultura etxean edo liburutegian entregatu beharko dira

**I.B** ESKORIATZA

San Pedro jaietako hogeigarren esaldi lehiaketa martxan da eta parte hartu nahi duenak aukera izango du ekainaren 2ra arte lanak aurkezteko.

12 urtetik gorako edozein eskoriatzarrek edo Eskoriatzako ikastetxeetan ikasten dutenek hartu dezakete parte, hiru pertsona edo gehiagoko taldeak osatuz. Lanak kultura etxean, liburutegian eta ikastetxeetan dauden buzoietan entregatu beharko dira, gutun-azal batean, taldearen izena eta esaldiak sartuta; barruan, beste

gutun-azal batean, datuen txartela sartu beharko da.

Ez dira onartuko neurritz kanpoko kontsumoa edo jarrerara sexistak bultzatzen dituzten lanak, eta hiru sari-kategoria izango dira. Irabazlea: San Pedro jaietako esaldia izango da eta 100 euroko saria jasoko du. Pegatitarrako esaldia: lau esaldi sarituko dira kategoria horretan, eta bakoitzak 50 euro jasoko ditu. Esaldi gaztea: 16 urtetik beherakoek egindakoak bokata eta edaria jasoko ditu herriko taberna batean, San Pedro jaietarako.



Gabez Takarraran mendi lasterketaren gaineko prentsaurrekoa egin zuten eguaztenean, osoko bilkura aretoan. IMANOL BELOKI

## IX. Gabez Takarraran, ordubete lehenago

Gabez Takarraran Eskoriatzako gaueko lasterketa ekainaren 15ean izango da, eta dagoeneko izen-ematea egin daiteke 'Kirolprobak' webgunean. Helduen eta gazteen lasterketaz gain, aurten, bigarren urtez, oinez egiteko aukera ere izango da

### Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako udaletxean aurkeztu dute Udaleko Maite Uribe ordezkariak, Kirol Elkarteko zuzendari Javi Corbalek eta antolakuntzako Iñaki Uribe-txeberriak ekainaren 15ean izango den Gabez Takarraran lasterketaren bederatzigarren edizioa.

Aurreko urteetan bezala, lasterketak Eskoriatzako bi aldeak zeharkatuko ditu 24 kilometro eta 1.200 metroko desnibela duen ibilbidean. Korrikalariak Asensio mendia igo beharko dute lehendabizi, eta, ondoren, plazara itzuli eta bigarren zatia egin beharko diote aurre, Atxorrotx pasa ondoren Ma-

katzgaineraino igota (980 metro). Horren ondoren, beheko bidari ekin eta plazaraino iritsiko dira. "Iazko edizioan bezala, helduen lasterketarekin batera gazteentzat egokitutako ibilbidea egongo da eta, bigarren urtez, baita mendi martxa oinez egin nahi dutenentzat ere; hala, edozeinek izango du Gabez Takarraranen parte hartzeko aukera", adierazi du Iñaki Uribe-txeberriak.

### Seinalizazioa eta teknologia

Lasterketako seinaleztapenari dagokionez, aurreko urteetako ildo beretik jarraituko dutela gaineratu du Uribe-txeberriak: "Bidegurutzak zinta plastikoz

moztuko dira eta 50-60 metrora argia igortzen duten barra txiki batzuk erabiliko dira. Horretaz gain, segurtasuna bermatzeko aldera, parte-hartzaile guztiek GPS bidez posizioa igortzen duen gailu bat eramango dute. Sistema honek korrikalarien jarraipena zuzen-zuzenean Internetez egiteko aukera ahalbidetzen du".

### Herriko plazako giroa

Mendian sortzen den giroa mantentzeaz gain, aurten lasterketa (22:00) eta martxa (20:00) ordu bete aurreratuko dira, horrela are eta ikusle gehiagok lasterketan murgiltzeko aukera izan dezaten.



Gaztainuzketako mendi-etxe nagusiko kanpoaldea. GAZTAINUZKETA MENDI-ETXEAK

## Proiektu bakarra aurkeztuta, erabakia hartuko dute laster

Laster jakinaraziko du Udalak mendi-etxeen gainean aurkeztu duten proiektua onartuko duten edo ez

### Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Udalak Gaztainuzketako apartamentu turistikoaren ustiapenaren esleipenerako lizitazioko bigarren deialdia jarri zuen martxan, lehenengoan proiekturik aurkeztu ez zelako. Hori horrela, bigarren saiakera honetan lau pertsonak interesa erakutsi dute, baina horietako bakarrak aurkeztu dio proiektua Udalari. Hala ere, oraindik erabakia hartu gabe dago.

"Pozik gaude, jendeak interesa erakutsi duelako. Hainbat talde izan ditugu Gaztainuzketako mendi-etxeak ikusten, baina horietako bakarrak soilik aurkeztu du proiektua. Hori horrela, aste honetan erabaki bat hartuko dugu, idazkariarekin proiektua aztertu ostean. Hala, aurkeztu digun proiektuaren bueltan xehetasun batzuk finkatuko ditugu, eta, azkenean,

baiezkoa ematen badiogu, hurrengo pausoari ekingo diogu", adierazi du Juanito Bengoa Gatzagako alkateak.

### Fidantza, 12.000 euro

Udalbatzak erabakia hartzean, fidantza jarri beharko du Gaztainuzketako zazpi mendi-etxeak kudeatuko dituenak. Hasiera batean, lau urterako hartuko dituzte alokairuan mendi-etxeak, eta epe hori pasatutakoan berrikusi egingo du kontratua Udalak, eta, arazorik egon ezean, 20 urte arte luza dezake.

### Partida bat konponketarako

Udalak diru-kopuru bat inbertituko du bertan. "40.000 euro inguruko inbertsioa egingo dugu konponketa lan batzuk egiteko. Hala ere, alokatzen duenarekin batera zehaztu nahi genituzke, lehentasunak markatzeko", adierazi du Bengoa.

## Elkartearen eguna, ederto

Jai giroan agurtu zuten denboraldia, pasa den zapatuan, Eskoriatza Kirol Elkartekoek. Urterko moduan, kirola kalera atera zuten eta giro bikainean egin zituzten ospakizunak Fernando Eskoriatza plazan. Paella erraldoia izan zuten bazkaltzeko, eta, horrez gain, umeez eta gurasoek jolasak izan zituzten: saskibaloia eta areto futboleko jolasak.



IMANOL SORIANO

## Foru eta Europako hauteskundeetan EH Bildu garaile

Leintz Gatzagako hauteskundeak bereziak izan dira. Izan ere, hiru hautetsontzi eta hiru erabaki hartu beharrean, bi hartzeko aukera izan dute herritarrek.

Udal hauteskunderik ez da izan, baina bai Foru Aldundirako eta Europako Parlamenturako ordezkariak aukeratzeko hautetsontziak. EH Bildu

izan da nagusi bi bozketatan, 72 botorekin, eta bigarrena EAJ izan da; Europako Parlamenturako 34 boto jaso zituen alderdi jeltzaleak eta Foru Aldundirako, berriz, 38 boto. Elkarrekin Podemosek Europako Parlamenturako hauteskundeetan 4 boto jaso zituen eta Batzar Nagusietarako, 3 boto. VOX alderdiak, bestalde, boto bat izan zuen Europako Parlamenturako hauteskundeetan eta Foru Aldundietarako hauteskundeetan ez zen bozkatua izan.



Domekan, botoa ematen. JULEN IRIONDO

## EH Bilduk zazpi hautetsi izango ditu eta EAJk, bi

Domekako hauteskundeak nagusitasunez irabazita, Lierni Altunak jarraituko du Aramaioko alkate izaten. Eurena herritarrez osatutako zerrenda izateari eta azken agintaldietan egindako lanari egotzi die, besteak beste, emaitza: "Oso pozik gaude"

### Julen Iriondo ARAMAIO

Normaltasun osoz joan zen domekan Aramaioko hauteskunde eguna. 20:00etan hauteslekuak itxi eta zenbaketa eginda, emaitza argia izan zen: 570 boto – %68,76– eta zazpi zinegotzi EH Bildurentzat eta 218 boto –%26,30– eta bi zinegotzi EAJrentzat; PSE-EEk eta PPK, hamalau botorekin eta boto bakarrekin, hurrenez hurren, ez dute ordezkaritza izango udalbatza berria ere.

2015eko udal hauteskundeekin alderatuta, parte-hartzea handitu egin da oraingoan, nahiz eta puntu batetik behera –hemeretzi boto gehiagorekin, absentsia %28,80 izan da; 2015ean, %29,66–; eta hiru puntutik gora hazi da EH Bilduren ehunekoak, 40 boto gehiagorekin. Duela lau urte baino zinegotzi bat gehiago lortzera eraman dute emaitzak.

EAJk, oster, aurreko hauteskundeetan baino hamar boto gutxiago lortu ditu oraingoan, eta ia bi puntu egin du behera.

Orain arte bezala, bi alderdiok osatuko dute datozen lau urteotan ere Aramaioko udalbatza.

Emaitzak eskuan, "oso pozik" ageri zen Lierni Altuna: "Herria herritarrok ezagutzen dugu; kanpotik etor zaitezke intentzio onenarekin, baina hori gure alde izan dugu. Azken agintaldietan lan handia egin dugu, eta hori ere babestu du jendeak".

### Emaitzak

Alderdiak	Botoak	%	Zineg.
EH BILDU	570	%68,76	7
EAJ	218	%26,30	2
PSE-EE	14	%1,69	0
PP	1	%0,12	0
Zuriak	26	%3,14	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>829</b>	<b>%100</b>	<b>9</b>

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EAJko Pedro Elosegik, berriz, emaitza edozein izanda moduan "herriaren alde lanean" jarraituko dutela zioen.

### Hiru hauteskunde

Batzar Nagusietarako eta Europarako hauteskundeak ere baziren domekan, eta emaitzak ez ziren guztiz berdinak izan; kontuan izan behar da, besteak beste, alderdi gehiago aurkezten zirela beste bi hauteskundeetan.

Horrela, EH Bilduk udal hauteskundeetan jaso zuen babes handiena; izan ere, 506 boto izan zituen Batzar Nagusietarako, eta 491 Europarako; EAJk, berriz, Batzar Nagusietarako lortu zuen boto gehien, 253, eta 243 Europarako. PSE-EEren eta PPren kasuan, udal hauteskundeetako emaitzak baino apur bat hobeak dira besteetakoak, eta udal hauteskundeetara aurkeztu ez ziren alderdien artean, %5aren bultzatzen ibili zen Elkarrekin Podemosen boto portzentajea beste hauteskundeetan.



Kiroldegiko kanpoko frontoia. J.I.

## Foru Planerako eskakizunak: Barajuen eta kiroldegia

Auzo hartan eta kirol instalazioan lanak egiteko eskatzea onartu du udalbatzak osoko bilkuran

### J.I. ARAMAIO

Barajuengo azpiegitura lanak egitea aurreko Foru Planerako ere eskatu zuen Udalak, baina Aldundiak ez zuen onartu, lanotarako behar adinako aurrekonturik ez zuela eta. 2020-2021 aldirako, beraz, eskaera egingo dute berriro.

Hori, Foru Planaren azpiegituren atalerako; ekipamenduen atalean, berriz, kiroldegiaren gaineko eskaera egingo du Udalak: "Frontoiko teilatuak arazo handiak ematen ditu; duela hiruzpalau urte gastatu zen diru bat konpontzen, baina materia-

lak ere eman du berea, eta dena aldatu behar da", zioen Hirigintza batzordeko buru Martin Arriolabengoak.

### Bi eskaera eta ez hiru

Behin kiroldegian lanak egiten hasita, kanpoko pilotalekua estaltzea ere nahi du Udalak, eta hori ere eskatuko dute.

Foru Planerako hiru eskaera egiteko aukera du Aramaiok, eta gero Aldundiak aukeratuko lituzke bi. Egitekotan, egingo diren lanak Udalak lehenesten dituenak izan daitezken, bi eskaeri soilik egitea erabaki dute.

## Gorbeialdeko emakumeen topaketa, hurrengo barikuan

Urkabustaizen izango da, eta Josebe Iturriotzek hitzaldia egingo du berdintasun planen garrantziaren gainean

### J.I. ARAMAIO

Laiak eskolak, Gorbeialdeko Kua-drillak eta Udalak antolatuta egingo da barikuan emakumeen topaketa, Urkabustaizko kultura etxean.

Begoña Ganzabal jarduneko alkateak egingo die ongietorria bertaraten direnei, 17:00etan. Jarraian izango da Josebe Iturriotzen hitzaldia, berdintasun planen garrantziari buruzkoa. Hori amaitutakoan, berriz, Red Kuorumeko teknikarien txanda izango da; Gorbeialdeko Kua-drillako Emakumeen eta Gizonen

Berdintasunerako Planaren aurkezpena egingo dute.

18:15ean, ondorioetarako tarte bat, baina era arin eta dibertigarrian, Oihulari Klownen *Klownklusioak* ikuskizunaren bitartez. Luntxa izango da, ondoren, eta *Urkabustaizen emakumea izan* izenburudun amaiera hitzaldia, azkenik.

Topaketarako autobusa 16:00etan aterako da Aramaioko eskolatik, eta ludoteka zerbitzua ere izango da; biak, doan, hila-ren 4a aurretik izena emanda: [berdintasuna@gorbeialdea.eus](mailto:berdintasuna@gorbeialdea.eus).

# Julian Unzueta hil da, Aramaioako seme kuttuna

Herriko alkate izan zen 1972 eta 1979 artean, eta Arabako diputatu eta Bergarako Alkateen Taldeko kide ere bai. Garai gogorak egokitu zitzaizkion, eta hainbat mehatxu eta eraso ere jasan zituen; lehergailuz egindako bat ere bai, tartean

## Julen Iriondo ARAMAIO

Martitzenean hil zen Julian Unzueta, 89 urterekin. Oso pertsona maitatua herrian, seme kuttun izendatu zuten duela bi urte, EAJren udal taldeak proposatu eta udalbatza osoaren adostasunarekin.

Omenaldi polita egin zioten 2017ko urrian, Aramaioarentzat egindako lana eskertuz. Lana, garai zailetan, gainera, Unzueta alkate zela zinegotzi jardun zuen Jesus Zabalak astean eta Lierni Altuna alkateak 2017ko omenaldi egunean azaldu bezala; kalte pertsonalik eragin ez zuen lehergailua ere jarri zioten etxean, 1979ko urtarrilean.

"Bere alkate denbora oso garai latza izan zen. Gorabeherak izan zituen gobernadorearekin. Tella mendiko gurutzan lehergailua jarri zutenean, akordio gogor batzuk hartu genituen osoko bilkuretan; eta gobernadoreak ez zituen akta haiek onartu nahi, eliminatu egin nahi zituen, eta bi edo hiru aldiz, behintzat, Gasteiza eraman gintuen udaletxe osoa", zioen Jesus Zabalak; izan ere, guardia zibilei leporatu zieten lehergailua jarri izana.

Eta Lierni Altunak, horren harira, berri: "Tella mendiko gurutzarenekin izan zuen ausardia hori, nola egin zien aurre, eta herri mugimendu hori bere gain hartu izana, hori asko baloratzen dut. Eta gauza denen gainetik, oso gizon umila dela, langilea eta umila".

Eta Unzueta izan zaren gainean, Zabalak: "Oso izaera onekoa izan da; kargu bat eramateko asko aguantatu behar da, baina berak oso ondo eramaten zuen: nik inoiz ez dut ikusi postura txar baten". Bere umiltasunaren adierazgarri, seme kuttun izendatu behar zutela esan ziotenean izan zuen erreakzioa: "Alkateari esan nion: 'Gusturago esango nizuke ezetz, baina badakit askok ez dutela



Julian Unzueta, Aramaioako seme kuttun izendatu zuten egunean, 2017an. GOIENA

## OSO IZAERA ONEKOA ZELA NABARMENTZEN DU HAREKIN ZINEGOTZI IBILITAKO JESUS ZABALAK

hori onartuko, eta aurrera", zioen Unzueta 2017ko ekainean.

Baina izendapena guztiz mehezitakoa izan zen, Jesus Zabalaren ustez: "Alkate sartu zen garaiaz gero, herrian ikusten diren gauza gehienak berak

mugituta egin ziren. Diputazioarekin bazuen harremana, eta, alkate sartu zenean, Diputazioako presidenteari baldintza moduan jarri zion Santa Agedarako bidea zabaltzeko".

Horrekin batera, Aramaion "ume denak erdaraz" entzuten zituela-eta, adibidez, euskarazko hezkuntzaren bultzatzaileetako bat ere izan zen Unzueta, alkatezatik. Herriko mugetatik at, Bergarako Alkate Taldeko kide izan zen, arabarrei ahotsa emanaz; Arabako diputatu ere izan zen, EAJrekin.

## Ikurrinaren anekdota, ederra

Pasarte berezi eta anekdota ugari utzi ditu Julian Unzueta bederatzi hamarkadako bizitzak; horien artean ederra da 2017ko urriko omenaldi egun hartan bere iloba Julen Arriolabengoak kontatutakoa. 30eko hamarkadan, Julianen aitona ikurrina ipini zuen Aramaioko udaletxe bakoian –aitona zen orduan alkate–, eta errepublika ezarri zenean, kendu egin zuten ikurrina, bandera errepublikanoa ipintzeko.

Orduan, Julianek hiru urte besterik ez zituen, eta aitona esan omen zuen hiru urteko mutiko hori izango zela berri ere ikurrina Aramaioko udaletxean ipiniko zuena. Baita asmatu ere. 1977ko urtarrilaren 19an, ikurrina legeztatu eta hurrengo egunean, Julian Unzueta ipini zuen ikurrina udaletxe bakoian.



NIRE USTEZ

LIERNI ALTUNA ARAMAIOKO JARDUNEKO ALKATEA

## Pertsona apartak

Aramaio pertsona ekosistema txiki ezberdinak ditu, udalerririk osoko ekosistema osatzen dutenak, gainontzeko herri edo hiri guztiek bezala. Ekosistema hauek elkar eragiten dute, eta beraien nahasketan edo batuketan ekosistema berriak sortzen dira.

Edozein ekosistematan, pertsona apartak aurki daitezke, ekosistema horren ongizatean alaitasuna, gertutasuna, laguntasuna, babes... ekartzen duten pertsona zoragarriak, ekosistemak elkartu eta sendotzen dituztenak... eta Aramaioko ekosistemari horrelako pertsona bat joan zitzaion aurreko astean.

Azken urteetan, datozenei ongi torria egiten diegun bezala, doazenak ere badaude, hori da-eta bizitza.

Bere familia eta lagun hurbilenez aparte, ume, gazte, heldu zein nagusi asko irribarre handi batekin, kalean gora eta behera, zaintzen gintuen.


Kaleko, Ibarako, auzo-alkate urte askoan egon da, kaleak hobetzeko eta mantentzeko ahalegin handia egin du, herriaren, herriarren, ongizateari begira.

Dolua pasatzen... nik uste dut egin diezaiotzeko omenaldirik onena, berak erakutsi digun bezala, elkar zaindu eta elkarrekin herria zaintzea dela; eta, horrela, gure ekosistemaren parte izaten jarraituko du. Bihotz-bihotzez, eskerrik asko, benetan, Fernando!

...eta zer den bizitza, artikulua hau bidaltzekotan nengoenean, herriarengatik asko egin duen beste pertsona bat galdu du ekosistemak. Eskerrik asko zuri ere, Julian!

## Herriartekoan Gasteiz kontrario, eta Olaizola txapeldunorde

Aramaio 2-1 irabazi zion Urkabustaizi Herriarteko Txapelketaren ligaxkako azken jardunaldian. Hala ere, aramaioarrek laugarren amaitu dute euren multzoan, eta beste multzoko liderra, Gasteiz, izango dute kontrario asteburuan, etxean, final laurdenetan. Bestetik, Olaizola eta Arbaizak galdu egin zuten Zaramagako finala, 17-22.



Arbaiza eta Olaizola. APE

## Aurtengo Santi Kurtz ospakizuna domeka honetan egingo dute

Ekaineko lehenengo domekan egiten dute beti Santi Kurtz eguneko ospakizuna, eta aurtengoa domekan izango da, ondorioz. 12:00etan meza egingo dute, ohi bezala, eta meza ostean salda eta txorizoa banatuko dituzte beheko txabolan; trikitilarietarako alaituko dute mokadua. Arexolako eta Arriolako auzotarren antolatutako festa da.

## San Martin jaietarako leloa ekainaren 6ra arte aurkez daiteke

Jaiak iragartzeko lelo lehiaketa deitu du Udalak; jaien inguruko mezua izan behar du, esaldi batean. 12 urtetik gorako aramaioarrek har dezakete parte, eta bakoitzak hiru lelo aurkez ditzake, [itxasokultura@gorbeialdea.eus](mailto:itxasokultura@gorbeialdea.eus) helbidean. Ekainaren 6ra arte dago aukera, eta irabazlea 11n jakinaraziko dute. Saria 50 euro da.

# EH Bildu sendoago eta EAJ oposizio lanetarako

Indartuta atera da EH Bildu domekako udal hauteskundeetatik, eta pozik dira jasotako emaitzekin. Jeltzaleen balorazioa da EAJ berriz sartu dela Elgetako udalbatzan. Igorritako lehen mezuetan, lanerako konpromisoa berretsi dute alde biek

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA 860 elgetar zeuden domekan botoa ematera deituta, eta 648k bete zuten eginkizun horrekin. Parte hartzea, hortaz, %75,35 izan da. EH Bilduko Iratiz Lazkanoren hautagaitzak 412 boto jaso zituen eta EAJko Aintzane Oiarbiderenak, 205. Elias de Castro sozialistaren zerrendak 13 boto jaso zituen.

Herritarrek adierazitakoa aintzat hartuta, EH Bilduk sei zinegotzi izango ditu hurrengo udalbatzan eta EAJk, hiru.

Balorazio positiboa egiten du Elgetako EH Bilduk. Albiste honetan Iratiz Lazkanoren hitzetan jasotako balorazioa zerrendaburuarena baino gehiago taldearena dela adierazi dute. Hauteskundeetara aurkeztutako zerrendaren hurrenkera errespetatzen bada, Ane Bilbao, Sebastian Arantzabal, Garbiñe Irazabal, Ibai Larrañaga eta Ibai Etxaniz izango dira zinegotzi

Lazkano buru izango duen Udal Gobernuan.

## EAJ, oposizioan

Domekako emaitzak ikusi ostean, Aintzane Oiarbide zerrendaburu jeltzaleak EAJ Elgetako udalbatzara bueltatu izana jartzen du balioan, eta oposizioan kokatu du bere burua. Oposizio

## Emaitzak

Alderdiak	Botoak	%	Zineg.
EH BILDU	412	%64,48	6
EAJ	205	%32,08	3
PSE-EE	13	%2,03	0
Zuriak	9	%1,41	-
Baliogabeak	9	%1,17	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>648</b>	<b>%100</b>	<b>9</b>

ITURRIA: BARNE MINISTERIOA

sendoa egingo dutela ziurtatu du. Kasu honetan ere, hauteskundeetara aurkeztutako zerrendaren hurrenkera errespetatzen bada, Iruñe Berasaluze mendarorarrak eta Josu Leturia bergararrak hartuko dute zinegotzi akta Oiarbiderekin batera.

## Udalbatza berria, bi aste barru

Ipinita dago udalbatza berria eratzeko eguna. Inbestidura ekitaldia ekainaren 15ean izango da udaletzeko areto nagusian. Prozedurak eskatzen du lehenengo eta behin zinegotziek hartu behar dutela kargua, eta ondoren egingo dute alkatea aukeratzeko bozketa. Sei zinegotzirekin Iratiz Lazkanok jasoko ditu boto gehien, eta hark hartuko du bigarrenz Elgetako aginte-makila.

## Agintaldiko azken bilkura

Martitzenean elkartu zen agintaldi honetako udalbatza azken aldiz. Hain zuzen ere, maiatzeko

## "Babesa zabala izan da"



IRAITZ LAZKANO  
EH BILDU

"Eskerrak eman nahi dizkiegu elgetarrei, oso pozik gaude hauteskunde hauen emaitzekin. EH Bilduren zerrendak jaso duen babesa zabala izan da, Elgetan udal hauteskundeetan zerrenda batek inoiz jasotako boto kopuru handiena. Helburua bete egin dugu, seigarren zinegotzia lortuta. Emaitza hauekin, herritarrek babestu egin dute azken lau urteotan Elgetako Udalean egin dugun lana. Horrez gain, uste dugu EAJk babesa galdu duela, batez ere, herrikoak ez diren pertsonekin zerrenda osatu izanagatik. Lanean jarraituko dugu Elgeta hobetzeko!"

## "EAJ Udalean da berriz ere"



AINTZANE OIARBIDE  
EAJ

"Elgetako EAJk eskerrak eman nahi dizkie botoaren bitartez konfiantza eman diguten guztiei. Eskerrik asko baita ere gure taldea osatzen duten guztiei. Hemendik aurrera oposizio konstruktiboa egiteko asmoa dugu, betiere, Udal Gobernu kontrolatuz, hori baita oposizioaren egiteko nagusia. Gure programako zutabe nagusien inguruko proposamenak egingo ditugu elgetarren bizi kalitatea hobetzeko bidean. EAJ bueltatu da berriz ere Elgetako Udalera eta datozen urteetan jaso duen babesa handitzea du helburu".

ohiko osoko bilkura egiteko elkartu ziren. Udalbatzak onartzeko zeuden azken aktak onartu zituen, eta, hilerio moduan, Iratiz Lazkanok alkate erabakien berri eman zuen. Horien artean nabarmentzen da baserrietako

hobi septikoak garbitzeko dirulaguntzen ebazpena.

Laguntza hori eskatzeko aukera izango dute hobi septikoak 2019an garbitzen dutenek. Laguntza izango da lanen aurrekontuaren %25.

## Suspertze ariketak ikasten

DYA Gipuzkoako hezitzaile baten bisita izan dute aste honetan Herri Eskolan. Larrialdi baten aurrean zelan jokatu erakutsi die Lehen Hezkuntzako neska-mutikoei. Lasaitasuna mantentzeko eta 112 telefonora deitzeko esan, eta lehenengo suspertze ariketak zelan egin erakutsi die. "Umeek arreta handia ipini dute, eta garrantzitsua da zelan jokatu jakitea", esan du.



ELGETAKO HERRI ESKOLA

## Azaleko ipuinak 0-2 urteko umeendako, liburutegian

Martitzenean, ekainak 4, egingo dute lehenengo saioa, eta, plaza mugatuak izan arren, bada oraindik ere izena emateko aukera.

Aurrekoetan moduan, Saroa Bikandi ipuin kontalariak gidatuko du tailerra, eta 0 eta 2 urte arteko neska-mutikoendako eta haien gurasoendako da. Guztira, ordubeteko hiru saio izango dira. Beste biak ekainaren 11n eta 18an izango dira, betiere, 18:00etatik 19:00etara. Masajeak komunikaziorako eskaintzen dituen baliabideetan sakonduko dute, eta, horretarako, ipuinak, poemak, kantukak, jolasak... erabiliko dituzte. Hala, entzumena, kontaktua, ikusmena eta usaimena landuko dituzte.

## Domekan neska-mutikoendako mendi irteera Atxorrotxera

Badira urte batzuk Elgetako Kantsatzeke mendi taldeak neska-mutikoendako eta familia giroan egiteko irteerak antolatzen dituela. Udaberri honetako domekan, ekainak 2, egingo dute.

Taldea 09:00etan elkartu da eta autoetan egingo dute Leintz Gatzagarainoko bidea. Bertan emango diote hasiera ibilaldia, eta Atxorrotx izango dute helmuga. Bueltan, Gatz Museoa bisitatzeko aukera izango da, talde bisita egiteko txanda eskatu baitute antolatzaileek. "Bisita nahi duenak egingo du. Museoko sarrera debalde izango da 8 urtetik beherakoentzat eta 4 euro beste guztientzat", azaldu dute Kantsatzekeko ordezkariak.



# PAZKOAK 2019

BERGARA  
JAIETAN!



- Jaietako egitaraua
- Egitarau herrikoa
- Kartela eta zapia
- Txupinazoa
- Txoko Morea
- Udal Musika Banda
- 'Sagartu' emanaldia
- Txosnagunea
- Kirol aukerak
- Erraldoiak
- Haurren jokoak
- Musika eskaintza
- Alkandora eta blusak



**UGARTE**  
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak  
Horma-Armairuak  
Altzariak neurrira  
Ateak · Eskailerak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

*Ondo pasa jaietan!*

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**AROSZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491



**BERGARA**  
aroztegia@ugartearoztegia.com



## EGUBAKOITZA 07

**19:30** Kattalin elkartearen eskutik txupinazoa eta BITORIANATXOREN JAITSIERA, San Martin plazan. Segidan, BERGARAKO MUSIKA BANDAREN KALEJIRA, hiriguneko kaleetan, San Martin plazatik irtenda.

**20:00** Matxiategin BARRAKAK IREKITZEA eta Bideberrin TXOSNAK IREKITZEA.

**20:30** Haur eta gurasoentzat PARRILADA auzolanean Seminarioko karpan. Antolatzailea: Oxirondo aisialdiguneko gurasoak. Txartelak salgai 6 eurotan azokako IZOTZ postuan.

**22:00** DJ PORRU 2.0 haur dantzaldia, Seminarioko karpan.

**21:30** Guda dantza taldearen KONTZERTUA San Martin plazan.

**22:30** En Tol Sarmiento taldearen KONTZERTUA San Martin plazan.

## ZAPATUA 08

**10:00** DIANA Bolutik, Bergarako trikitilariak; Labegarrietatik, Elgoibarko dultzaineroak eta Oxirondotik, Udal Txistulari Banda. Ondoren, herriko plazan elkartuko



Kuadrilla bat plazan, asteleheneko herri bazkarian. GOIENA

# JAIETAKO EGITARAUA

dira guztiak eta BETeko umeen erraldoekin batera Mizpirualdera egingo dute bisita.

**11:00** ERRALDOIEN GUNEA, San Martin plazan: erraldoien erakusketa, erraldoiak egiteko tailerra, puzgarriak eta jokoak.

**11:00** Herriko elkarten arteko BAKAILAO LEHIAKETA San Martin plazan. Sukaldarientzako lapiko eta amantalak: Lacor-ek emandakoak. Herritarrentzako mokadua etxe hauei eskerrak: Konde Panaderokua, Mizpildi, Ogizun, Ogiberri Elkoarti, Ogiberri Espoioia eta Mila Okindegiak; Vinos Atxega, Manso hermanos eta Txomin Zubeldia edari banatzaileak; Leturia, Imaz, Urcelay, Igarza eta Gorka harategiak.

**11:00** HOCKEYKO EUSKADIKO KOPA Labegarrietan –infantil maila–.

**11:30** Pentekosteetara ONGIETORRIA EMATEKO EKITALDIA, iazko Pentekosteetik hona mundura etorri diren bergarar txikitxoei, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Ondoren, argazkia kanpoaldean, San Pedro kalean.

**11:30** Espolotik Torrejon de Ardozko ERRALDOI KONPARTSEN KALEJIRA.

**12:00** ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA zezen-plazan. Sarrera 2 euro.

**13:00** Bergarako Erraldoien Konpartsako *Bitorianatxo* erraldoi berriaren AURKEZPENA plazan. Ondoren, ONGIETORRIA erraldoi taldeetako ordezkariak osoko bilkuren aretoan, eta ERRALDOIEN DANTZAK plazan.

**13:30** Bakailao lehiaketako SARI BANAKETA, San Martin plazan.

**17:30-21:00** Ndank Ndank tonbola solidarioa Irala kalean.

**17:00** *Free style* ERAKUSTALDIA Mariaren Lagundiko jolastokian.

**17:30** Buruhandi eta kilikien IRTEERA San Martin plazan.

**18:00** Bergarako eta Torrejon de Ardozko ERRALDOI

KONPARTSEN KALEJIRA Bergarako kaleetan. Ibilbidea: San Martin. Bidekurutzeta. Ramon M. Lili, Ibargarai, Irizar, Kruz Gallastegi, Bideberri, Fraiskozuri, Herrilagunak, D. Irala, Barrenkalea, San Martin plaza.

**18:30** ERREKORTADORE GAZTETXO (8-15 urte) eta GAZTEEN TXAPELKETA (16-20 urte) zezen-plazan. Sarrera: 3 euro

**20:30** Low Cost Deluxe eta Black Lemon Bergarako taldeen KONTZERTUA Irizarko plazatxoan.

**23:00** ESNE BELTZA taldearen kontzertua San Martin plazan.

**00:00-03:00** Testing Irala kalean.

## DOMEKA 09

**09:00** BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera 2 euro.

**11:00** MEZA NAGUSIA San Pedro parrokian.

**11:00** UMEENTZAT GOITIBEHERA ZIRKUITUA Herrilagunak kalean.

**11:00** HOCKEYKO EUSKADIKO KOPAKo emakumezkoen finala Labegarrietan.

**11:30** 38. HAUR ETA GAZTEEN SIMON ARRIETA PLASTIKA SARIKETA San Martin plazan.

**13:00** Haur eta gazteen Simon Arrieta plastika lehiaketako SARI BANAKETA San Martin plazan.

**12:30** BERGARAKO UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA Udal Pilotalekuan. EGITARAUA: *Campo de rosas* (pasodoblea), M. Glez. Bastidarena; *El lago de los cisnes* (suitea), P. I. Txaikovskiyrena; *1832*, A. Glez. Chirlaquerena; *Forrest gump suite* (soinu banda), A. Silvestri-rena eta A. Glez. Chirlaque moldatua; *Pompa y circunstancia*, E. Elgar-ena; *Bergarako ereserkia*, A. Glez. Chirlaquerena. Zuzendaria: Alfredo Gonzalez Chirlaque.



Iazko bakailao lehiaketa. ARGAZKIJABEAXXX

## J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea



RPS: 258/18

Tel.: 943 76 56 88  
Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA  
www.gorosabeldental.com

**Bisita ezazu gure webgune berria: [www.gorosabeldental.com](http://www.gorosabeldental.com)**

- Ortodontzia. Odontopediatria. PADI (Osakidetza).
- Odontologia orokorra.
- AHO eta INPLANTEEN ZIRUGIA punta puntako teknologiarekin.
- Estetika eta hortzen zuritzea TEKNIKA BEREZiarekin.
- PRGF (PLASMA).
- SEDAZIOarekin, nahi baduzu, zirugia eta gainontzeko tratamenduak

Ondo pasa  
jaietan!

**1990. URTETIK ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DANO!**



San Martzialen behera iazko goitibehera lasterketan. GOIENA

**15:30 GOITIBEHERA LASTERKETA** San Martzialgo bidean. Antolatzailea: INERTZIA Kirol elkarte.

**17:00-20:00 ZIRKU ESKOLA** Gaztetxoendako, Arrizuriaga azpiko jolas-parkean.

**18:00-20:00** Andoni Ollokiegirekin KANTU ANIMAZIOA Irala kalean.

**18:30 EUSKAL HERRIKO ERREKORTADOREEN IKUSKIZUNA** ziburua, tankredoa, quad eta hainbat modalitate Seminarioko zezen-plazan. Sarrera: 3 euro.

**20:00 GIMNASIA ERRITMIKOKO ERAKUSTALDIA** San Martin plazan. Antolatzailea: Ariznoa gimnasia erritmiko elkarte.

**22:00** Oinkari Dantza Taldearen eta Hika konpainiaren SAGARTU dantza emanaldia San Martin plazan.

## ASTELEHENA 10

### KUADRILLEN EGUNA

**10:30-12:00** PENTEKOSTE SARIA PLATER TIROKETA Arraten. Ondoren, bazkaria (Oilagorrako zuzendaritzan apuntatu beharra dago). Antolatzailea: Bergarako Oilagorra Ehiza Elkarte.

**11:30** KUADRILLEN ARTEKO HERRI KIROLEN TXAPELKETA, zezen-plazan, Zaldibiako trikitilariak eta Incansables txarangak animatuta.

**12:30** DANTZALDIA La Nueva Talisman Orkestrarekin Espoloian.

**14:30** HERRI BAZKARIA San Martin plazan. Menua: entsalada errusiarra, iberikoak, txerri-saiheskia parrilan, postrea eta kafea, ogia eta ura. Txartelak salgai: 13 euro.

**15:30 - 17:30** PENTEKOSTE SARIA PITXOI TIROKETA Arraten. Antolatzailea: Bergarako Oilagorra Ehiza Elkarte.

**18:30** Txarangarekin zezen-plazaraino joan ostean,

GAZTETXOENTZAKO BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 3 euro.

**19:30** Kantu Kolore taldearekin haurrentzako bereziki prestatutako ERROMERIA plazan.

**19:30** Bergara Hiria mutilen pilota finalak Udal Pilotalekuan.

**23:00** CAMP DANTZALDIA La Nueva Talisman Orkestrarekin Espoloian.

**23:00** ERROMERIA Ilargi Beltza taldearekin, San Martin plazan.

## ASTEARTEA 11

### UMEEN EGUNA

**09:00** BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2 euro

**11:00 - 14:00** HAURRENTZAKO JOLAS PARKEA Ipintza II-ko patioan.

**12:00** IDI PROBEN ERAKUSTALDIA Bergarako abeltzainen eskutik San Martin plazan. Aurkezlea: Iñigo Almortza.

**13:00** LOS TENAMPAS eta MARIATXI TALDEA, D. Irala kalean.



Kuadrillen arteko jolasak iazko pentekosteetan. GOIENA

PENTEKOSTE JAIAK  
2019  
BERGARAN

EKAINAK 7-11

# ONDO PASAU JAIXAK!!

Begarako Udala

**14:30** BAZKARIA San Joxepe elkartean eta, ostean dantzaldia. Antolatzailea: San Joxepe.

**16:30** Bergarako BOLO, TOKA ETA ISEL TXAPELKETA San Joxepen. Antolatzailea: San Joxepe.

**17:00-20:00** HAURRENTZAKO JOLAS-PARKEA (puzgarriak, jokoak eta ekintza ugari) Ipintza II-ko patioan.

**17:00** PILOTA PARTIDA PROFESIONALAK Bergarako Udal Pilotalekuan.

**17:30** JAGO MAGOAREN ERAKUSTALDIA Simon Arrietan.

**18:30** ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

**20:00-22:00** Bidean erromeria taldearen eskutik, ERROMERIA San Martin plazan.

**22:00** BITORIANATXOREN IGOERA San Martin plazan.

**00:00 arte** Bidean erromeria taldearen eskutik, ERROMERIA San Martin plazan.



Haurrak eta gurasoak gustura Ipintzako patioa jolas parkean. GOIENA

## Egitarau herrikoia

Xaxauk egitarau zabala prestatu du jaietarako. Hainbat musika estilo entzuteko aukera egongo da, baita ekintza ugari. Horrez gain, hurrendako jolasak ere egongo dira. Martxantereekin elkarlanean, Txoko Morea egongo da txosnagunean, eta taula gainean, lanean, barran, arduretan edota festan "genero berdintasunarekin bat" egin dutela gogorarazi du txosna batzordeak.

### Egubakoitza, ekainak 07

- **13:30** Triki-poteoa.
- **15:00** Ikasle bazkaria.
- **19:00** Ttek! elektrotzaranga herriko kaleetan zehar.
- **20:00** Txosnagunearen irekiera Kopla Barik bertso eskolaren eskutik.
- **21:00** Turtukiña DJa.
- **23:00** Barne Guda, Crim eta Brigade Loco taldeen kontzertuak.
- **03:00** DJ Alabarruna feat DJ PZ.



Txosnagunea gainezka. GOIENA

- **08:00** Gaupasero argazkia eta Ttek! elektrotzaranga herriko kaleetan zehar.

### Zapatua, ekainak 08

- **15:00** Preso eta iheslarien aldeko bazkaria Bideberrin.
- **19:00** Ezten Giro taldearen eskutik erromeria.
- **00:00** Urgatz eta Egurra Ta Kitto taldeen kontzertuak.
- **02:30** Ttun Ttun Brigade eta Gorpuzkingz musika taldeen emanaldia
- **04:30** MTR DJak.

### Domeka, ekainak 09

- **12:00** Haima migratzailea txosnagunean.
- **14:00** Bazkaria txosnagunean (bakoitzak berea eramanda).
- **16:00** Haur eta gurasoentzat *Makedo* sormen tailerra Jau!-ren eskutik eta mahai jokoak Maijokuren eskutik.
- **17:30** Niala magoaren ikuskizuna.
- **19:30** Izaki Gardenak taldearen kontzertua.
- **21:00** Txapak girotutako afaria.
- **22:00** Film laburren lehiaketako emanaldia.

### Astelehena, ekainak 10

- **20:00** Laket taldearekin erromeria.
- **23:00** Modus Operandi eta Bad Sound musika taldeen kontzertuak.
- **03:00** Karaokea.

### Asteartea, ekainak 11

- **19:30** Joseba Irazoki eta Lagunak-en kontzertua.



## Lagun Garajea

Santalaitz, 3  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Ondo pasa  
jaietan!

autopullmans  
**Araba**



Ondo pasa jaiak!



Angiozar 3-1 BERGARA • Tel.: 943 76 55 70 - 686 47 68 52  
www.arababusbergara.com • info@arababusbergara.com

# Bitorianatxo, jaietako irudien protagonista

Mariñe Jauregi da Pentekosteak iragartzeko kartel irabazlearen egilea. Zapiak umeendako eta nagusiendako egingo ditu Jardunek eta diseinua ere lehiaketa bidez aukeratu dute: Nagore Aranburu da nagusien irabazlea; haurrena, berriz, Noa Lezeta

**Jone Olabarria** BERGARA

Urtero bezala, jaiak ilustratzeko irudia lehiaketa bidez aukeratu du Udalak. Aurten, bost lan aurkeztu, dira, eta, astebetean udal webgunean ikusgai egon ostean, herritarrek gustukoena bozkatu dute.

Hala, Mariñe Jauregiarenak eskuratu ditu herritarren alde-tik boto gehien: 388 pertsonatik, 157k bozkatu dute. Era berean, Udaleko ordezkariak ere kartel bera aukeratu dute gogokoena bezala.

"Argi nuen jaietako ikur den Bitorianatxori eta herritarrei eman nahi niela protagonismoa, eta uste dut jaietsiera dela festen

irrika hori irudikatzen duen umea", kontatu du Jauregik.

Sortze prozesuaz galdetuta, hauxe azaldu du: "Lehenengo bozetoa arkatzez egiten dut eta koloreak eskuz gehitzen ditut, baina gero, ordenagailura pasatzen naiz, hobetu eta azken uki-tuak emateko".

Arte Eder ikasketak bukatzean da Mariñe Jauregi, eta sorkuntza eta ilustrazioa ditu espezialitate. Lehen aldiz aurkeztu du bere lanetako bat lehiaketa batera, eta irabazle irteteak "ezustean" harrapatu duela aitortu du. Hain zuzen, 400 euroko bonua jasoko du, herriko komertzioetan gastatzeko.

**Inoizko parte hartze handiena**

Zapiei dagokienez, nagusien irudi irabazlea Nagore Aranburuk egindakoa izan da, eta haurren kasuan, Noa Lezetak egin duena. Horretaz gain, aurten lehen aldiz leloak bakarrik aurkezteko aukera egon da eta Uxue Larrañagarenak irabazi du: *Hitz eta pitz gu euskaraz gabitz!*

Jarduneko ordezkariak diote inoiz baino lan gehiago aurkeztu direla, eta jakinarazi dute zapiak euren egoitzan eta herriko zenbait tabernatan erosi ahalko direla, 3 eurotan. Ekainaren 6an Irizar kalean eta 7an plazan jarriko duten postuan ere salduko dituzte.



Mariñe Jauregi, aurtengo jaiak iragarriko dituen kartela eskuetan duela. GOIENA



Helduen irudi irabazlea. JARDUN



Haurren irudi irabazlea. JARDUN

**Goitu** construcciones  
eraikuntzak S.L.

Ondo pasa jaiak!



- Eraikuntza orokorra • Fatxadak • Teilatua
- Terrazak • Birgaitze orokorra • Baserriak
- Unifamiliarrak • Pabilioiak • Proiektuak...

Tel.: 943 76 11 23 - Faxa: 943 76 30 41 | Masterreka 14-16 / 20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
goitu@grupogoitu.com | www.grupogoitu.com

**4ki**  
aholkularitza  
**LAUKI**  
AHOLKULARITZA

- AHOLKULARITZA FISKALA
- AHOLKULARITZA LABORALA
- KONTABILITATEAK
- ERRENTA AITORPENAK

- USUFUKTU DOHAINTZAK
- HAINBAT ZERBITZU
- GESTORETZA

Ondo pasa jaietan!

Ibargarai 18, behea - BERGARA • Tel.: 943 76 12 28  
Faxa: 943 76 38 36 • lauki@asesorialauki.com

# Katxalin elkartearen eskutik hasiko dira jaiak

Ohi dena baino ordu erdi lehenago jaitsiko da aurten Bitorianatxo, egubakoitzean, 19:30ean, eta Katxalin elkarteak izango du Pentekosteei hasiera emateko ardura (Bularreko eta Ginekologiako Minbizia duten Emakumeen Elkarte)

**Jone Olabarria** BERGARA

Azken urteetako bideari jarraituz, elkarte bat izango da jaietan omendua. Hala, Bularreko eta Ginekologiako Minbizia duten Emakumeen Elkarte, Katxalin, aukeratu du jai batzordeak 2019ko Pentekosteei hasiera emateko.

Egun, 110 kide dira Katxalinekin Bergaran duen delegazioan, Debagoien osotik etorriak, baita inguruko herrietatik. Udaletxe-ko balkoian egongo zirela jakinarazi zietenean, "pozik eta harro" sentitu zirela kontatu dute: "Orain arteko lanaren aitortza dela sentitzen dugu, eta, gure egoitzatik pasa edo ez, gaitasun hau ezagutu duten guz-



Katxalin elkarteko kideak, Bergaran duten egoitzan. GOIENA

tiei eskaini nahi diegu". Oraindik ere "bide luzea" egiteko dutela gaineratu dute, eta gaitasuna ahalik eta era positiboenean bizi dutela azpimarratu: "Minbizia existitzen da eta ikusarazi beharra dago, horri buruz hitz egin, baina, betiere, sendatu daitekeela argi izanda".

Elkarteko kideek diote Katxalinen lana minbizia duten pertsonen eta haien familiei laguntza eta sostengua eskaintzea dela. Bularreko eta ginekologiako minbizian oinarrituta dauden arren, "elkarte irekia" direla azaldu dute, gizon edo emakume izan, eta minbizia edozein motatakoa izanda ere laguntza eskaintzen dutela: "Egoera berean dauden edo egon diren pertsonak dira gure ispilu, haiek ulertzen zaituzte ondoen, eta, sendatu direnak ikusita, itxaropena ere badira".

Familiekin ere lan egiten dute; izan ere, "minbizia agertzen denean, gaixoa soilik ez, senideak ere oso galduta sentitzen dira, lagundu nahi arren ez dakite oso ondo nola egin", diote. Elkarteak saioetara gerturatzeko aukera eskaintzen die guztiei.

**Proiektu ugari abian**

Talde "oso aktiboa" dela diote; astero batu eta laguntza talde bat eratzeaz gain, maiz antolatzen dituzte hitzaldi eta tailerrak. "Halako ekintzek efektu bikoitza dute; kideekin hitz eginda barrenak arintzen dituzu, eta, gainera, besteen esperientzia ezagututa zure arazoak beste modu batera ikusten dituzu", azaldu dute taldekideek.

Azken urteetan oso harrera ona izan duen proiektuetako bat dira bihotz formadun burkoak: "Ospitalean dauden pertsonen oinarritzen dizkiegu, bularra galdu dutenen kasuan besapean jarri eta eroso egon daitezen".

Era boluntarioan egiten dituzte, dohaintzan eman dizkieten oihalekin, eta, azaldu dutenez, burkoak banatzen dituztenean, "ilusio handiz" hartzen dituzte erietxean daudenean.

**"EGOERA BEREAN DAUDENAK DIRA GURE ISPILUA ETA, SENDATZEKO ORDUAN, ITXAROPENA"**

**itesa**

*Ondo pasa jaietan!*

BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97

**ibili**

**Ondo pasau jaixak!**

www.ibilimenaje.com



Iazko Txoko Morea, txosnagunean. MARTXANTERAK

# Jaiak feminismotik eraikitzeko gunea

Iaz bezala, Txoko Morea antolatuko du Martxanterak talde feministak, txosnagunean, Xaxaurekin batera. Erreferentziatzeko gune izateaz gain, jai ereduari buruzko gogoeta bultzatzeko tresna izatea espero dute; betiere, umoretik landuta

**Jone Olabarria** BERGARAN  
Herritar orori irekita eta Pentekosteak feminismotik eraldatzeko asmotan abiarazi zuten Txoko Morea duela urte batzuk. Jarrera matxisten aurrean erreferentziatzeko gune izateaz gain, jai ereduari buruzko gogoeta bultzatu nahi du Martxanterak talde feministak txosnaguneko Espazio Morean.

"Gure lana, askotan, indarkeria matxistaren aurrean erantzuna ematera mugatzen zela sentitzen genuen. Pauso bat gehiago eman eta ohiko egoerak eraldatzeko zerbait egiteko unea zela ikusi genuen", azaldu du taldeko Ainhoa Narbaizak. Hala, aurrean, bi dinamika ezberdin landu dituzte: "Jaien aurretik pilula feministen tailerra egin genuen, batez ere, jaiak feminismoz busti eta festa giroa ikuspegi zorrotzagoz aztertze. Bertan ikasitakoarekin eta herritarren ekarpenak kontuan hartuta, txokoa antolatzeko bilerak egin ditugu".

Aurreko esperientzietatik ikasita, badakite "garrantzitsua" dela espazio fisiko bat eskaintzea, baina, diotenez, "jendeari kos-

ta egiten zaio bertara gerturatzeari". Horri buelta emateko, umorea baliatzea estrategia aproposa izan daitekeela uste dute Martxanterek, eta, adibidez, Tarot Feminista ekintza antolatuko dute.

## Jolasak baino askoz gehiago

Informazioa eskaintzeaz gain, protokoloa ezagutarazi eta ekintza ugari antolatuko dituztela diote: "Ez dugu nahi jendeak pegatina eta papera hartu, eta gure lana horretan gelditzea. Joko moduan aurkeztuko ditugun arren, gogoeta bultzatzen duten ekintzak antolatu ditugu".

Galdera-erantzunen bidez, egunerokoan gertatzen diren egoerak azaleratu nahi dituzte Txoko Moreko ekintzek. Horretaz gain, *photocall* bat jarriko dutela jakinarazi dute Martxanterak talde feministako kideek.

**"JOKO MODUAN  
AURKEZTU ARREN,  
GOGOETA BULTZATZEN  
DUTEN EKINTZAK  
ANTOLATU DITUGU"**

Super Amaran ere bai!

**SUPER AMARA**

San Lorenzo pol. 9 • Amilaga 18  
Tel.: 943 76 99 34

---

Ibargarai 24 • Tel.: 943 76 70 29

**BERGARAN**



Ordutegia: 08:30 - 20:30 | Ibargarai Ibilbidea 11 | Tel.: 943 76 28 92



Pazko jai  
zoriontsuak!

# Mende erditik gora kaleak musikaz betetzen

Alfredo Gonzalez Chirlaque zuzendariarekin batera agur esango diote aurten Udal Bandari hiru kidek: Ricardo Perez tronboi joleak, Jose Ramon Lazkano baritono joleak eta Jose Mari Arrondo tronpa joleak. Hirurek 60 urtetik gora daramatzate bertan

**Jone Olabarria** BERGARA

Gaztetxoak zirela hasi ziren Ricardo Perez, Jose Ramon Lazkano eta Jose Mari Arrondo Bergarako Udal Musika Bandan. Bertan, Miguel Gonzalez Bastidaren eskutik –oraindik egungo zuzendari den Alfredo Gonzalez aita– musika munduan murgildu eta tronboia, baritonoa eta tronpa jotzen ikasi zuten, hurrenez hurren.

"Ilusioz" gogoratzen dituzte hirurek lehen urte haiek. Ricardo Perezen kasuan, Galizian jo zituen bere instrumentuaren lehen doinuak, 11-12 urte zituela: "Herrian bazen banda txiki bat eta han hasi nintzen. Bertan

erakutsi ziguten tronpeta jotzen, baina, laster, motz geratu zitzaizkigun azalpenak". 16 urte zituela Soraluzera joan zen lanera eta bertako bandan aritu zen urtebetez, Bergarara aldatu zen arte. "Bergaran tronboiak falta zirela eta, tronpeta utzi eta tronboiarekin hasi nintzen, 17 urterekin", azaldu du Perezek, hastapenez galdetuta.

Miguel Gonzalez Bastidaren eskutik ikasi zuen dakien "guztia", eta, azaldu duenez, "zorrotza zen, ezin genuen hutsik egin, baina oso zuzendari ona izan zen".

Era berean, 14 urterekin hasi zen bandan Jose Ramon Lazka-

no, eta ordutik hona saxofoia jotzen ibili da; egun, baritonoa da. "Solfeoa egiten genuen arren, ia zuzenean ikasten genuen instrumentua jotzen, ezin daiteke egungo musika eskolarekin alderatu", azaldu du, ikasteko metodoez galdetuta.

Jose Mari Arrondok ere ondo gogoratzen du bandan jo zuen lehen aldia: "14 urte nituen eta Aste Santua zen, Bergarako plaza beteta zegoen eta gu bertan aritu ginen". Lehen urte haiez galdetuta dio "plazan askotan" jotzen zutela: "Neguan, normalean. Udan, ordea, dantzagarriak jotzen genituen Espoioian eta, jendetza ibili ohi zen bertan".



Perez, Gonzalez Chirlaque, Arrondo eta Lazkano, Bergarako musika eskolan. GOIENA

**"ZUZENDARI ONA BAINA ZORROTZA ZEN MIGUEL, DAKIDANA ERAKUTSI ZIDAN"**

RICARDO PEREZ, TRONBOI JOLEA

**"SOLFEOA ETA MUSIKA IKASTEN GENITUEN ARREN, EZ ZEGOEN MUSIKA ESKOLARIK"**

JOSE RAMON LAZKANO, BARITONOA



**TXOMIN ZUBELDIA**  
- 1944az geroztik -

**75**  
URTEURRENA  
1944 - 2019

**TXOMIN ZUBELDIA EDARIAK**  
Elorregi auzoa 47 Bergara  
txominzubeldia@txominzubeldia.com  
943 76 72 12 / 629 68 26 71  
[www.txominzubeldia.com](http://www.txominzubeldia.com)



Jai zoriontsuak guztioi!



**efizientzia energetikoa**



**dirulaguntzak**



**eusko jaurlaritza I.D.A.E. (estatua)**



**irigaritasuna igogailuak**



**zeta**bi****  
arkitektura bulegoa

zetabi@zetabi.eu 943 76 53 09





## "DANTZAGARRIAK JOTZEN GENITUENEAN, JENDETZA IBILI OHI ZEN ESPOLOIAN"

JOSE MARI ARRONDO, TRONPA JOLEA

Udal Banda "familia kontua" ere badela azaldu dute. Izan ere, Ricardo Perezek kenduta, gainerakoek senideren bat dute haiekin batera jotzen; semeak, Arrondoren eta Lazkanoren kasuan. Gonzalez Chirlaque zuzendariaren hirugarren belaunaldia da, bai aitak, bai aitona Bergarako banda gidatu baituzten, 187 urteko ibilbidea osatuz.

### Banda, "esku onenetan"

Hortaz, Pentekosteetako azken kontzertua izango da 2019koa bandako lau kide horientzat. Alfredo Gonzalez Chirlaquek erretiroa hartuko du, zuzendaritzan 32 urte eman ostean. Era berean, Ricardo Perezk 61 urte daramatza bandan, 64 urte Jose Ramon Lazkanok eta 60 Jose Mari Arrondok.

Bat etorri dira denak, eta hemendik aurrerako lana "esku onenetan" utzi dutela diote. Are gehiago, Bergarako Udal Musika Banda "osasuntsu" dagoela adierazi dute, eta belaunaldi berriak "oso indartsu" datozela. Horren harira, Musika Eskolak egiten duen lana azpimarratu dute denek.

# Sagarra eta dantza baino askoz gehiago

'Sagartu' du izena Hika konpainiak eta Oinkarin dantza taldeak elkarlanean eraturako ikuskizunak. Domeka iluntzean, 22:00etan, eskainiko dute euskal dantza eta antzerkia uztartzen dituen emanaldia, San Martin plazan

### Jone Olabarria BERGARA

Duela hiru urte ekin zioten *Sagartu* kale ikuskizunari Hika konpainiako kideek, Oinkarin dantza taldeko villabonarrekin batera. Orditik ona, herriz herri ibili dira, sagarraren historiari buruz dantzan.

Obraren zuzendari Agurtzane Intxaurreagak azaldu duenez, bi geruzatan lantzen da ikuskizuna: "Alderdi fisikoan, sagarra hartzen denetik sagardo bilakatzeko prozesua irudikatzen dugu. Horretaz gain, historian zehar izan dituen esanahiak lantzen ditugu, paradisuako sagar debekatutik, egungo Apple sagarra arte".



Ikuskizunaren zenbait une. HIKA TEATROA

### Formatu berritzailea

360 graduan lantzen dute ikuskizuna, "publikoaren gertutasuna" sentitzeko. Herriko plazetan

antzeztua izateko sortutako emanaldia dela diote taldekideek, eta plazaren biribiltasuna "obraren esentzia" dela.

## Inork ez daki zaintzen zerbait, sortu duenak baino hobeto

Kontrata itzazu gure Mantentze Zerbitzuak:

- Gas-galdararen urteko azterketa.
- Joan-etorri eta esku-lan guztiak sartuta.
- Eta hemendik aurrera, **zure galdarak 15 urte bete arte, jatorrizko pieza guztiak barne.**

Sematec Guipúzcoa  
Zerbitzu Tekniko Ofiziala

943 76 06 61

www.guipuzcoa.saunierduval.es



ERABATEKO  
estaldura  
**15**  
urtetan



  
**Saunier Duval**



Txosnak gainezka jaietako astelehenean. GOIENA

## Dena prest Bideberrin txosnagunea irekitzeko

Egitarau zabala, parekidea eta herritar guztientzat egindakoa sortu nahi izan du Xaxau konpartsak. Aurten, hainbat arazo izan dituzten arren –jende falta eta dirulaguntza handitzeko beharra–, gogotsu iritsi dira Pentekosteetara

**Jone Olabarria** BERGARA

Urtero bezala, ostiraletik asteartera arte zabalik egongo dira txosnak Bideberrin. Aurten ere musikaz gozatzeko aukera soilik ez, ekintza ugari prestatu dituzte Xaxauko kideek.

"Herritar guztientzako aukerak eskaintzen saiatzen gara; horren adibide dira domeka goizeko haima migratzailea eta ume eta gurasoentzat antolatutako Makedo sormen tailerra", azaldu dute Xaxauko kideek.

Pentekosteetako hitzordura garaiz iristeko, urtarrilean hasi ohi dira konpartsan bilerak egiten. Aurten, ordea, kide gutxi zirela-eta urgentziatzeko mezu bat helarazi zuten, "jende berriaren beharra" aldarrikatuz. Mezu hura eraginkorra izan zen eta 26 pertsona agertu ziren lehen bilera hartara.

Azken hilabetean, baina, duela zenbait urtetatik datorren aldarrira azaleratu da: dirulaguntza handitzea. Izan ere, konpartsako kideek diotenez, azken bost urteetan jasotzen duten diru kopuruak ez du gora egin, ezta KPIaren balioan ere.

**"EGITARAU ZABALA SORTUZ, HERRITAR GUZTIEI AUKERAK ESKAINTZEN SAIATZEN GARA"**

**"OSO POZIK GAUDE BERGARARREN ERANTZUNAREKIN, BAI SINADUREKIN, BAITA XAXAURA BATUZ"**

**Herritarrekin pozik**

Hain zuzen, Udal Gobernuari dirulaguntza handitzea eskatzeko 830 sinadura aurkeztu zituzten duela hiru aste herri-tarren arreta zerbitzuan: "Pozik gaude bergararren erantzunarekin, bai sinadura bilketan, bai eta urtarrileko bileran Xaxaura batu zirenekin ere". Era berean, urtero txosnetako txandak ezin beteta ibili ohi direla azaldu dute eta aurten, ordea, jendeak azkar eman duela izena diote.



**iBARRALDE**  
Administrazio zerbitzuak SL

- Fiskalak
- Laboralak
- Kontableak
- Finken administrazio zerbitzua

**Ondo pasa jaiak!**

25.068 kolegiatu  
zenbakia

Ibargarai 30 BERGARA  
Tel.: 943 76 52 88 - Faxa: 943 76 25 64



**Murillo Garajea**  
Auto konponketak orokorrean

**Ondo pasau  
jaietan!**

Leizeaga 4 - BERGARA  
Tel.: 943 76 13 84

# Kirol hitzordu ugari Pentekosteei begira

'Free style' erakustaldia, goitibeherak eta errekortadoreak izango dira Pentekosteetako protagonistak. Eskaintza zabala eta adin guztiei zuzendutakoa prestatu dute aurten. Horretaz gain, ohiko pilota partidek ere ez dute hutsik egingo

## Jone Olabarria BERGARA

Duela hamar urte ekin zioten Goitibeherak kirol elkarteko kideek Pentekosteetan txapelketa antolatzeari. Ordutik, jaie-tako klasiko bilakatu da San Martzialen beherako proba, eta ikusle ugari batu ohi ditu domeka bazkalostean.

Aurten ere, ekainaren 9an, 15:30ean izango da hitzordua, baina aurretik, goizeko hamaitketarako, zirkuitu txiki bat antolatu dute Herrilagunak kalean. Bertan, goitibeheren mundua gertutik ezagutzeko aukera izango dute umeeek, baita ibilgailuetako zenbait probatzeko ere.



lazko goitibehera txapelketako irudia. GOIENA

Arrisku kirolak gustuko dituztenek ere badute hitzordua, zapatuan, Mariaren Lagundiko patioan. Iaz bezala, *free style* erakustaldia egingo dute; *trialsin*, *dirt jump* eta *flatland* estiloak landuko dituzte. *Ryder*-ak ikusteko aukera, 17:00etan.

Horretaz gain, txapelketa ugari jokatu dira ostiraletik asteartera bitarte: asteburuan, infantil mailako Euskadiko hockey kopa izango dute Labe-garaietan eta domekan, emakumezkoen finala. Udal Pilotalekuak ere partida ugari hartuko ditu: astelehenean, 19:30ean, Bergara Hiria mutilen pilota txapelketako finalak eta asteartean, 17:00etan, profesionalen arteko pilota partidak.

Domekan, San Martin plaza musikaz eta kolorez beteko dute Ariznoa gimnasia erritmiko taldeko gimnastek. Izan ere,

**TRIALSIN, 'DIRT JUMP' ETA 'FLATLAND' ESTILOETAN ARITUKO DIRA 'FREE STYLE' ERAKUSTALDIAN**

erakustaldia egingo dute, arratsaldeko zortzietan.

## Zezenaren aurrean

Aurten, 25. aldiz jarriko dute zezen-plaza herrian, eta, Iñigo Almortza Bergarako zezenak ganadutegi eta errekortadore eskolako sortzailearen esanetan, "afizio handia dago herrian". Hain zuzen ere, ia egunero izango da ekintzaren bat zezen-plazan; txapelketak, erakustaldiak, errekortadore eskola eta bigantxak. Ahots kritikoak betidanik egon diren arren, publikoaren erantzunaz galdetuta, hauxe dio: "Jaietan jende gehien ibiltzen den ekintza errekortadore ikuskizunak dira; gurean betidanik egon da zezenekiko afizioa, baina guk profesionalizatu egin genuen, txapelketa bihurtu", diote taldeko kideek.

**"GUREAN BETIDANIK EGON DA ZEZENEKIKO AFIZIOA, BAINA GUK PROFESIONALIZATU EGIN GENUEN"**

# GOKI

erreformak

Teilatuak, fatxadak, igogailuak, sukaldeak, bainugelak.

*Ondo  
ibili  
jaietean!*

Irizar ibilbidea 1 behea  
BERGARA

Tel.: 943 76 53 42

Faxa: 943 76 52 16

bergara@gokierreformak.com

www.gokierreformak.com

**JAI ZORIONTSUAK BERGARAR GUZTIOI!**

**Industrias  
UGATU s.l.**

**EROSTEKO AUKERA ZABALA  
www.ugatu.com ONLINE DENDAN**

Tel.: 943 76 98 23 • www.ugatu.com • ugatu@ugatu.com



**FINKATZE MOTA  
GUZTIETARAKO  
KONPONBIDEAK**

**60 URTE**  
1958-2018

www.tuv.com  
TÜV Rheinland  
CERT  
ISO 9001

**TÜV Rheinland®  
CERT  
ISO 9001**

# Bitorianatxok ere izango du bere erraldoia jaietan

Larunbatean, ekainak 7, aurkeztuko dute erraldoi berria, haurren tamainara egina eta Pentekosteetako ikur den Bitorianatxoren omenez. Hainbat lekutatik etorritako konpartsen erraldoiak ere egongo dira ikusgai

**Jone Olabarria** BERGARA

Ehundik gora kide ditu egun Bergarako erraldoi taldeak, gehienak haurrak, eta haientzat, bereziki, diseinatu dute taldeko erraldoi berria: *Bitorianatxo*. "Betikoak handiegiak dira haurrentzat eta ezin dituzte erabili. Azken urteetan, tamaina txiki-koak gehitu ditugu, eta, hobeto moldatzen direla ikusita, berri bat sortzea erabaki dugu", azaldu dute konpartsa kideek.

Herriko ikur izateaz gain, Bitorianatxo aukeratu izana ez da kasualitatea: "Gabonen bueltan *Begarako kolore erraldoiak* liburua argitaratu genuen. Umeek gustuko dituzte kontaktzen diren



Iazko Erraldoi Eguna. GOIENA

istorioak, eta bertako protagonistak erraldoi bihurtu nahi izan ditugu".

Hala, Bitorianatxo berriarekin, hemezortzi dira, guztira, taldeak dituen erraldoiak; horietako asko, herriari biziki lotuak: *Guti* eta *Felixin* eta *Elhuyar anaiak*, esaterako.

## Egun osoko egitaraua

Larunbatean 13:00etan aurkeztuko dute, plazan, bitorianatxo berria. 11:30ean, talde gonbidatuak kalejiran joango dira Espolitoik San Martin plazaraino; eta ondoren, dantza erakustaldia egingo dute bertan. Goizean, umeendako puzgarriak eta jokoak izango dira San Martin plazan, baita krispeta-makina ere. Kanpoko taldeekin bazkaria egin ostean, arratsaldean kalejiran ibiliko dira denak, herrikoak zein kanpokoak.

## "HERRIKO HAINBAT ISTORIOTAKO PROTAGONISTAK BIHURTU DITUGU ERRALDOI"

## Torrejondik, Deustutik eta Urretxutik

Urtero hainbat lekutako gonbidatuak ekartzen dituzte herrira Bergarako Erraldoi Taldekoek (BET), eta halako egunak aprobetxatzen dituzte elkar ezagutzeko eta, bide batez, baita kanpotik etorritako erraldoiak erakusteko.

Aurten, Deustuko, Urretxuko eta Torrejon de Ardozko kideak izango dituzte Pazkoetan. Iaz ezker, elkartruke gurutzatu batean parte hartzen ari dira bergararrak, eta programa horren baitan jaso zuten iazko jaietan Reuskoen bisita. Urrian Bergaratik Torrejonera joan ziren eta orain, haiek dira herrira datozenak. Irailean egingo dute Reusera bidaiak BETekoek.

# ESKERRIK ASKO!



**HAUTESKUNDE EGUNAREN BERRI GOIENAKO HEDABIDEEN BIDEZ IZATEARRREN**

'GOIENA ALBISTEAK' (TWITTER), 'GOIENA.EUS', GOIENA TELEBISTA ETA GOIENA ALDIZKARIA  
HAUTESKUNDE EGUNEAN ETA BIHARAMUNEAN:

**GOIENA.EUS:**

ERABILTZAILEAK: **20.000**

BISITAK: **33.000**

IKUSITAKO ORRIAK: **118.000**

GOIENA TELEBISTAKO 'STREAMING'-A 'GOIENA.EUS'-EN: **3.000 ERABILTZAILE**

**GOIENA TELEBISTA:**

**11.000 IKUS-ENTZULE**

**goiena**

Zu hemen zaude.

# Eskaintza zabala, etxeko txikienek goza dezaten

Parrilada, goitibehera zirkuitua, magia trikimailuak eta musika emanaldiak daude hurrekin egiteko planen artean. Urtero bezala, Umeen Egunerako askotariko puzgarri eta jokoak antolatu dituzte Ipintzako patioan

**Jone Olabarria** BERGARA

Jaiak hasi bezain laster izango dute gaztetxoek festaz gozatzeko aukera. Bitorianatxo jaitsi ostean, 20:30erako, haurrentzako eta gurasoentzako parrilada antolatu dute Oxirondo Aisialdi Guneko gurasoek, Seminarioko karpan. Tripa ondo beteta, gerrira mugitzeko aukera izango dute txikienek, 22:00etan, DJ Porrurekin, dantzaldian.

Bigarren egunean, goizetik hasita eta azken urteetan bezala, ongiatorria egingo zaie iazko Pentekosteetatik hona mundura etorri diren haurrei, 11:30ean, udaletzeko osoko bilkuren aretoan. Ondoren, guztiek batera,

argazkia aterako dute udaletxe atzean, San Pedro kalean. Eguerdian, 12:00etan, zezentxoek aurrean trebatzeko aukera izango dute txikienek, errekortadore



Haurrak gustura, iaz, parriladan. GOIENA

eskola-ibiltariak antolatuta, zezen-plazan, bi euroren truke.

Arratsaldean, buruhandi eta kilikiek gozatu ahaliko da, herriko kaleetan zehar, 17:30ean hasita.

Domekan, goizeko hamaiketarako, goitibehera zirkuitua antolatu dute Herrilagunak kalean, eta plazan, duela 38 urtetik artista txikien bilgune den Simon Arrieta plastika sariketa egingo dute. Arratsaldean, 17:00etatik 20:00etara, Jolasen Eko-txokoa egongo da Arrizuriaga azpiko jolas-parkean.

Kuadrillen Egunean ere, astelehenean, Honolulu haur erromeria izango da San Martin



Ipintzako patioko jolas-parkea. GOIENA

plazan, arratsaldeko zazpi eta erdietan.

**Umeen Eguna, martitzenean**

Txikienek gogotsu hartzen duten eguna izan ohi da martitzena. Aurten ere, Ipintzako patioan jarriko dute jolas-parkea, eta goizez (10:00-14:00) eta arratsaldez (17:00-20:00) egongo da puzgarrietan saltoka aritzeko aukera. Horretaz gain, goizean

barraketako bidaia erdi prezioan egongo da -1 euro ohikoetan eta 1,5 euro berezietan-, baita martitzenean ere, egun osoz.

**ASTELEHEN GOIZEAN  
ETA MARTITZENEAN,  
BARRAKETAKO  
BIDAIA EURO BAT  
KOSTAKO DA**



Bergara •  
**metagra**  
México • Group

Ondo  
pasau  
jaixetan

# Musika aukera zabala, denen gustura egina

Urtero moduan, musikaz blai etorriko dira aurten ere Bergaran Pazkoetako jaiak. Izan ere, adin guztietarako eskaintza izango da, eta bergararrek estilo askotariko emanaldiez gozatzeko aukera izango dute herriko hainbat txokotan

Udalaren eta txosna batzordearen egitarauetan presentzia nabaria du musikak eta askotariko estiloak entzun eta dantzatzeko aukera egongo da; herriko taldeek, dantzaldiek eta DJek osatuko dute eskaintza.

## GUDA DANTZA

Plaza / Egubakoitza / 21:30

Uribe Kostan sortua, 2012tik hona rock, reggae eta ska doinuak eraman dituzte herriz herri. Hiru disko kaleratuta, azkena: *Argibideak* (2018, Baga-Biga).

## EN TOL SARMIENTO

Plaza / Egubakoitza / 22:30

Arabako Errioxatik dator ska-

rock estiloko taldea. Reggae eta punk-rock doinuak ere sartzen dituzte lanetan. Lehen lana, *Vendimia seleccionada*, 2008. urtean grabatu zuten eta ordutik beste lau lan kaleratu dituzte.

## BRIGADE LOCO

Txosnak / Egubakoitza / 23:00

Bergara, Deba eta Hernaniko kideek eratua, azken urtean

## BRIGADE LOCO TALDEAK ARRAKASTA HANDIA IZAN DU AZKEN URTEAN

gorakada handia izan du taldeak, batez ere iazko udazkenean lehen diskoa kaleratu ostean: *Ekintzek dute hitza*. Momentuko taldea, bereziki gazteen artean.

## CRIM

Txosnak / Egubakoitza / 23:00

Punk-rock doinuak jotzen dituzten katalanek txosnagunea beteko dute zapatu gauean. Azkenaldian gure plazetan ibiliak.

## BARNE GUDA

Txosnak / Egubakoitza / 23:00

Talde bergararra txosnetan ari-tuko da herritarren eta lagunaren artean.



Brigade Loco, momentuko taldeetako bat. AINGERU BIDAURRETA

## ESNE BELTZA

Plazan, zapatuan, 23:00etan hasita.

Reggae, ska eta hip-hop doinuak nahastuz, euskal doinuen fusioa da, trikitiarekin. Jaietako kontzertu nagusian

## EZTEN GIRO

Txosnagunean, zapatuan, 19:00etan.

Trikiti doinuek girotuko dute Ezten Giroko gazteen erromeria zapatua animatzeko.

## URGATZ

Txosnak / Zapatua / 23:00

2012. urtean Bermeon sorturiko rock musika taldea. Rock afrosiakioko bezala definitzen dute euren musika.

## EGURRA TA KITTO

Txosnak / Zapatua / 23:00

2008an Azpeitian sorturiko ska-rock taldea. Iazko 10 urte diskoarekin datoz.



**BERGARA**

[www.alet-taldea.com](http://www.alet-taldea.com)

Tel.: 620 56 13 16

669 36 69 53

## Ingenieritza eta Instalakuntza

Energia fotovoltaikoa • Energia Termikoa • Geotermia  
Biomasa • Zoru Erradiatzailea • Biomasa galdaratan aukera zabala

**BERRIA: Pellet eta egurrezko galdara mistoak jartzen ditugu.**

Aeroterminia eta aire berriztapenean adituak.

*Ondo pasau jaixetan!*



**ESTELLA**

FARMACIA-ORTOPEDIA SEKZ.

Matxiategi 5 • Bergara • 943 76 19 63

Orain, egin zure enkarguak!

688 899 851



*Jai zorientsuak opa  
dizkiegu bergararrei!*

**Zure betiko  
farmazia,  
guztiz  
berrituta!**

**TTUN TTUN BRIGADE****Txosnak / Zapatua / 23:00**

Eusko elektropop taldea, 2015ean sortua. Taula gainean, musika egiteaz gain, ikuskizuna ere eskaini ohi dute bergararrek. Jaia eta desfasea, aurten er, txosnetan.



Esne Beltza. MARK THOMPSON

**GORPUZKINGZ****Txosnak / Zapatua / 23:00**

Hondarribian sortua, 2016. urtean, euskaraz abestutako traparen aitzindariak dira. Euren letrak drogez, armez eta halakoez hitz egiten dute. Kaleko kontuak agertokira.

**LAKET****Txosnagunea / Astelehena / 20:00**

Jaien asteleheneko klasikoak erromeria doinuak girotuko du Kuadrillen Eguneke iluntzea. Kalejirak, fandangoak, arinarinak dantzatzeko gertu?



Crim katalanak. GOIENA

**KUADRILLEN EGUNEKO  
KLASIKOAK, LAKET-EK,  
ERROMERIA DOINUAK  
ERAMANGO DITU  
TXOSNAGUNERA**

**MODUS OPERANDI****Txosnak / Astelehena / 23:00**

2017. urtean Gasteizen sortutako ska musika taldea. Vendetta, Betagarri eta Lauroba taldeetako hainbat kidek sortua.

**BAD SOUND****Txosnak / Astelehena / 23:00**

2003an Irunen sortutako taldea da. Reggae, dancehall eta ragga estiloak biltzen ditu.



Ttun Ttun Brigade. TTUN TTUN BRIGADE



Iruneko Gorpuzkingz. GORPUZKINGZ

**IZAKI GARDENAK****Txosnak / Domeka / 19:30ean**

2012an Jon Basagurenen bakar-kako abestiak janzteko sorturiko taldea da. Rocka, popa, americana... elegantziaz.



Izaki Gardenak. GOIENA

**JOSEBA IRAZOKI ETA LAGUNAK****Txosnak / Martitzena / 19:30**

Baztango taldeak rock doinuak nahasiz sortzen du bere melodia. Ikuskizuna eta kalitatea.

**EUSKAL TRAPAREN  
AITZINDARI DEN  
GORPUZKINGZ-EK  
LETRA GORDINEZ  
BETEKO DU ZAPATUA**

# TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean  
pintzera arte dena gure esku  
Fabrikako prezioetan

Elgeta bidea,  
gasolindegitik  
300 metrora  
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41  
Astelehenetik  
larunbatera  
10:00etatik 13:00etara  
eta  
16:00etatik 20:00etara zabalik

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain

**ALFONBRAK**

# Blusen ohitura zaharra biziberrituz

## UNAI BARRUTIABENGOA

"10 urte genituela egin genuen gure lehen blusa, umetan. Gerora, kamisetak modan jarri zirenean, alkandora alde batera utzi eta serigrafiadun kamisetak egin genituen. Dena den, blusak askoz ere alaiagoak dira eta jai giroa ematen dute.

Hala, duela bost bat urte berriz ere alkandoretara bueltatu nahi izan genuen, eta berri bat egin. Halako blusa bat ez duzu egunerokoan janzten; jaietan, ordea, gure kuadrillan derrigorra da, gutxienez, ostiralean eta astelehenean janztea".



## NORA LASKURAIN

"Lehen aldiz umetan egin genuen jaietako blusa. Gero, institutu garaian, 90eko hamarkadan egin genuen gaur egun dugu alkandora. Dendara joan, eta ahalik eta oihal koloretsuena aukeratu genuen, hura zen orduko moda. Egia esanda, egun ere gustuko dugu blusa zahar hau. Ez dugu askotan janzten, baina azkenaldian berri bat egin edo ez bueltaka gabiltza, haurrekin eta guzti. Herriko ohitura polit bat dela iruditzen zaigu, eta haiek ere ezagut dezaten".



## ANDREA GONZALEZ

"Gure lehen alkandora iaz egin genuen arren, aurretik pare bat kamiseta izan genituen. Txikiak ginenean, haurrek kamisetak eramaten zituzten, bakoitza bere izenarekin, eta guk ere hori egin genuen. Hala ere, herrian aspalditik egon da alkandora janzteko tradizioa, eta ohitura jarraitu nahi genuen. Gainera, kamisetak baino alaiagoak direla iruditzen zaigu, koloretsuak dira, jai giro-rako aproposak".



## IBON UNAMUNO

"Jardunek blusa txapelketa antolatzen zuen orduan eta guk bereziki bertan parte hartzeko sortu genuen. 1991. urtean izan zen eta lehen postua eskuratzeko balio izan zigun. Kuadrilla handia ginen, eta, estiloa aukeratzeko, nolakoa zen gehiegi pentsatu gabe, 30 lagunendako nahikoa oihal zuena aukeratu genuen. Gaur egun, oraindik ere, duela ia 30 urteko alkandora bera jantzita irteten gara Pentekosteetan".



## LUIS MARKIEGI

"Aspalditik daukagu eta alkandora bera janzten jarraitzeko intentzioa dugu oraindik ere. 1981. urtean estreinatu genuen Nagixak kuadrillakook gure blusa, garai hartan berria zena. Orduetik hona, urtero jantzi izan dugu marradun alkandora hau. Duela 38 urte, jende pila bat ginen kuadrillan, denak joaten ginen berdin jantzita Pentekosteetan; egun, dozena erdik jarraitzen dugu ohitura mantentzen, eta Pentekosteetan kalera irteten garen bakoitzean eramaten dugu soinean".



## MAIDER GURIDI

"12 bat urte genituela egin genuen gure lehen alkandora. Modan zeudenez, pare bat urtetan kamiseta erabili genuen, baina gero, alkandorara bueltatzea erabaki genuen. Txikitan, zaharragoei ikusita egin genuen blusa, gehiegi pentsatu gabe, baina azken urteetan herriko ohitura mantentzeko asmotan ere egin dugu. Orduetik hona, zazpi urte igaro dira eta blusa berarekin jarraitzeko intentzioa dugu".



ONDO PASAU JIAKI!



San Juan Auzoa, Larramendi industrialdea  
20570 Bergara (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 82 94 83  
[www.embalan3.com](http://www.embalan3.com) / [www.epack3.com](http://www.epack3.com)



ENBALAJE INDUSTRIALEN FABRIKAZIO INTEGRALA  
ENBALAJERAKO ETA LOGISTIKARAKO PRODUKTUEN MERKATURATZEA



# "Zaintza egoera asko jasangaitzak dira"

**KONTXI LOPEZ SORIA** GIZARTE LAGUNTZAILEA ETA ZAINZTAILEA

Zaintza lanen banaketa eredu berria izan zen Martxoaren 8ko aldarrikapen nagusia, eta erantzunkidetasunaz eta zaintzaileen osasun egoeraz aritu da aditua Elgetan

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Kontxi Lopez Soriak (Donostia, 1965) *Zaindu, geure burua zainduz* hitzaldia egin du Elgetan. Hogeitabat emakume elkartu ziren eta bizi dituzten zaintza egoerak partekatzearekin batera ardura horien banaketa ereduaz hausnartu zuten.

**Zein da gaur egun indarrean dagoen zaintza lanen banaketa eredu?**

Gehienetan, emakumeek hartzen dute ardura hori, eta garrantzitsua da zaintza eredu erantzunkide baterantz urratsak egitea. Ezinbestekoa da lan eskerga horri merezi duen ikusgarritasuna ematea; izan ere, ez da ikusten. Ikusezin egin dugu. Aitorpena ere zor zaio. Kasu askotan, lan bat da, atsedunik gabeko 24 orduko lana, gainera. **Ikusgarritasuna, aitortza... Nola lortzen da hori?**

Emakume askok baldintza oso eskasetan egiten dituzte zaintza lanak. Eta zergatik egiten dute ia bakarrik emakumeek? Lan handia egin behar da gizarte mailan, baina bada beste lan bat norberak egin behar duena. **Zer-nolako lana da hori?**

Zergatik sentitzen gara emakumeak hain ezinbesteko gai hauek? Nondik datorkigu erruduntasun sentimendu hori ustez aurreikuspenak betetzen ez



Kontxi Lopez Soria, eguaztenean, Elgetako Mendizaleen Plazan. L.Z.L.

## "GIZARTE HONEK IKUSEZIN BIHURTU DU ZAINZTA LANA, ETA EMAKUMEEK EGITEN DUTE, GEHIENBAT"

ditugunean? Hori guztia landu egiten da, eta baliabideak aurkitu behar dira zaintza egoerak jasanezin bihurtu aurretik. Zaintza behar duen pertsona garrantzitsua da, baina zaintzen duenaren egoera fisikoa eta menta-

la ere bai. Askotan pilotu automatikoan sartzen gara, eta bagoaz aurrera, baina nork bere buruaren gaineko ardura hartu behar du eta hori ez da berekoikeriaz jokatzeari.

**Zer aholkatzen duzu?**

Gustuko ditugunak egiteko tartea hartzea, delegatzen ikastea, gure buruarekin umiltasunez jokatzeari eta aitortzearekin ez garelako super-emakumeak, erantzunkidetasuna eskatzea... Argi izan behar dugu zaintzaileen ikusezinak garelako. Ez gaituzte ikusten. Planto ere egin behar da.

## Zaintza lan egoerak partekatzen

Hogeitabat emakume elkartu ziren saioan parte hartzeko. Lopez hitzaldia egiteko asmoarekin etorri zen, baina emakumeei bizi duten zaintza egoera azaltzeko eskatu zientean askotariko egoerak eta sentimenduak azaleratu ziren. Beste formatu bat hartu zuen orduan saioak. "Hitzaldi bat baino askoz aberasgarriagoa", esan du Lopezek.



Zaintza arduren gaineko saioa, eguaztenean, udaletxean. L.Z.L.



Mikel Gorosabel Norton. EH SUKARRA

## EH Sukarraren betiko kantak, bihar, Espaloia kafe antzokian

'Zugaz Tour 2019' birako hirugarren kontzertua egingo da aurten 30 urteko ibilbidea beteko duen taldeak

**L.Z.L.** ELGETA

Arantzan eta Getariako gazte txean izan dira aurretik, eta gogotsu datoz Elgetara. "Aurreko bi kontzertuak oso ondo joan dira. Jende gaztea ere gerturatu da. Gu hasi ginenean oraindik jaio gabe zeudenak, eta hasieratik erotuta, gainera, kantuekin. Oso gustura aritu gara", adierazi du taldeko buru Mikel Gorosabel Norton-ek. Elgetan eskainiko duten kontzertuaz hau esan du: "Kantu zerrenda aberatsa prestatu dugu. Jendeak ezagutzen dituen kantu asko joko ditugu, gure diskoetako esanguratsuenak,

eta horrekin batera berriak; izan ere, sortzen jarraitzen dut".

Urriaren beteko dira 30 urte EH Sukarra entseatzen hasi zela. "Ez gara duela 30 urteko EH Sukarra. Ezin da. Gauza batzuetan galdu egiten da, baina beste batzuetan irabazi. Nire ahotsa, esaterako. Uste dut urteekin sendotu egin dela. Eta esperientzia gehiago dugu, beste jakituria bat".

Aurretik ere Espaloia kafe antzokian jota dago EH Sukarra. Biharko kontzertua 22:30ean hasiko da. Prezioa da aurrez 12 euro eta egunean bertan 15 euro.

## Orturako landare exotikoen ikastaroa, martitzenean

"Hemen inongo arazorik gabe landa daitezkeen hainbat barazki daude: physalisa, Zeelanda Berriko espinaka, cornichon pepinoa... Barazki horiek ezagutzeko eta probatzeko ikastaroa egingo dugu Elgetan", adierazi dute Ekogunetik. Saioa martitzenean egingo dute, ekainak 4, 18:00etan baratze parkean. "Tailerra praktikoa eta teorikoa izango da. Barazki exotikoak zeintzuk diren azalduko dugu, argazkietan erakutsi ditugu eta landareak eramango ditugu nolakoak diren ikusteko. Hemen inongo arazorik gabe landa daitezkeen landareak dira eta batzuk doan banatuko ditugu ikastarora bertaratzeko diren artean".

## OHARRAK

### San Juan sua: bilera

Neska-mutikoekin batzarra, gaur, 18:00etan, udaletxean.

### Meza Asentzion

Domekan, 12:00etan, meza esango dute Asentzion.

### Goienar: hitzaldia

Eguenean, ekainak 6, Goienar kooperatibaren aurkezpena eta argindar faktura ulertzeko saioa, 19:00etan, udaletxean.

### Loteria: San Roke

Zozketako zenbaki saritua 953 da. Ordezkoa, berriz, 828 da.

### Beheko kaleko jaiak

Afaria ekainaren 14an izango da. Txartelak salgai daude. Helduek 15 euro eta umeek 6.



EH Bilduko kideek eta zenbait herritarrek Aitz Garbin ospatu zuten garaipena. M.A.

## EH Bilduk gehiengo osoa berretsi du Gobernuan

Beñardo Kortabarria izango da, bigarren agintaldiz, Antzuolako alkatea; ez da aldaketarik izan Udal Gobernuan eta EH Bilduk gehiengo osoz aginduko du, zazpi zinegotzirekin. EAJk hiru ordezkari izango ditu eta alderdi sozialistak, bat

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Normaltasun osoz egin ziren domekan udal, foru eta Europako hauteskundeak.

EH Bilduk irabazi zituen hiru hauteskundeak, herritarren botoen gehiengo osoa eskuratu. Udal hauteskunderi dagokienez,

EH Bilduk botoen %57,27 eskuratu du. Hala, zazpi zinegotziak mantenduko ditu, gehiengo osoari eutsiz. Beñardo Kortabarriak bigarren agintaldia abiatuko du, beraz. Aipatu behar da Antzuolan, demokrazian, errepikatuko duen alkategai bakarria dela

Beñardo Kortabarria. "Duela lau urteko emaitzak lortu ditugu, gutxi gorabehera, eta oso pozik gaude. Lau urteko epean herritarrek dituzten itzaropenei eustea lortu dugula uste dut eta kontuan hartzekoa da gaitasun hori. Lanean jarraituko dugu,

orain arte bezala. Gehiengo osoz jarraitzen dugu eta ikusten da herriak baduela, nolabait, atxikimendua EH Bilduren proiektuarekiko. Parte hartze prozesua oinarri duen herri proiektua dugu eta gure ardatzak horiek izango dira ondorengo lau urteetan", adierazi zuen emaitzak jakin bezain pronto.

EH Bilduk, baina, asteon egin du taldeko lehen balorazio itxia: "Hasteko, eskerrak eman nahi dizkiegu guran konfiantza izan duten antzuolarrei. Antzuolako emaitzak ontzat baloratzen ditugu. Aukera emango digute beste lau urtez gure proiektuan sakontzeko. Gainera, indartu eta motibatu egin gaituzte Antzuola hobetzen jarraitzeko. Orain arte bezala, antzuolar guztiekin eta denentzat gobernatzeko jarraituko dugu". Aurrerago, baina, herritarrendako egingo dutela balorazio batzar irekia adierazi du Antzuolako EH Bilduk.

EAJk, berriz, ezin izan du laugarren zinegotzia eskuratu. 28 boto gehiago eskuratu baditu ere -2015ean 339 boto-, 24 botoren faltan geratu dira jeltzaleak ordezkaria lortzeko. "Bageneukan laugarren zinegotzia ateratzeko esperantza. Positiboki baloratzen dugu boto kopurua areatu izana", kontatu zuen Basili Ormazabalak domekako emaitzak baloratzerakoan. Hala, aldaketarik gabe, jeltzaleek hiru zinegotzi izango dituzte agintaldi berrian ere.

## Emaitzak

Alderdiak	Botoak	%	Zineg.
EH BILDU	685	%57,27	7
EAJ	367	%30,68	3
PSE-EE	102	%8,52	1
<b>Guztira</b>	<b>1.154</b>	<b>%96,47</b>	<b>11</b>

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Alderdi sozialistak ere eutsi egin dio udalbatzan zeukan ordezkariari. 2015ean baino 13 boto gehiago eskuratu ditu. Miren Arrate Gallastegi izango da berriro zinegotzia. Balorazio ona egin du: "Zinegotzia mantentzea lortu dugu; eta oso pozik gaude horregatik. Horrez gain, botoetan gora egin dugu eta prest gaude antzuolarrendako lanean jarraitzeko".

### Parte hartze handia

Azpimarratu behar da maiatzaren 26ko hauteskundeetako parte hartzea igo egin dela. %74,24k eman dute botoa eta abstentzioa, aldiz, 25,26koa izan da. Hau da, 1.631 lagun zeuden botoa ematera deituta eta 1.219k eman dute. Boto zuriak 42 (%3,51) izan dira eta baliogabeak, berriz, 23 (%1,89).

## 350 lagunek egingo dute bat AKE Eguneko ospakizunean

Ekainaren 1ean, zapatua, ospatuko du Antzuolako Kirol Elkarteak aurtengo denboraldi amaierako festa

### Maidar Arregi ANTZUOLA

Lehen taldeak mailari eustea lortu du denboraldi honetan eta giro ederra izango du kirol elkarte gorriak ekainaren lehen egungo duten festan. "Mailari eutsita, oso pozik gaude; gainera, iazko denboraldiarekin alderatuta, estatusun gutxiago izan ditugu. Urtea, orokorrean, ona izan da, kategoria batzuetan jokalarikopuruarekin justu samar ibili garen arren", azaldu du AKEko presidente Ibon Gezalagak. Presidenteak gaineratu du AKEko lehen taldeak entre-



AKEko jokalariek ospakizunean. GOIENA

natzaile berriarekin abiatuko duela denboraldi berria: orain arte gazteen entrenatzaile izan den Iker Epeldek hartuko du Josu Zubikarainen testigua. Ibon Gezalagak aitortu du orain gazte mailako entrenatzailea bilatzeko lanean ari direla.

Eguerdiko hamabietan, karropotea egingo dute; 14:30ean, herri bazkaria Udal Pilotalekuan -sarrerak agortuta-; 17:00etan, sari banaketa eta aipamen berezia talde bakoitzean gorabehera gutxien izan dituzten jokalariei. Amaitzeko, 18:30ean, Elektro-txufra elektrotxarangaren eskutik dantza egiteko aukera.

Antolatzaileek, aurten ere, *Baietz Antzuola gorritu! Jantzi denok gorritz!* lelopean kamiseta gorria jantzteko dei egin diete antzuolar guztiei, festarekin bat egin dezaten.

## GORA ETA BEHERA



ANTZUOLAKO UDALA

## Trekutzeko iturria apurru egin dute

Txikituta, horrelaxe agertu zen pasa den astean Trekutzeko harrizko iturria. Antzuolako Udalak konpondu egingo duela aurreratu dio GOIENARI.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo 688 69 00 07.



Herriarrak, Kalebarrenen, Pausokak jarritako postuan sinatzen. MAIDER ARREGI

# Herritarren babesa eskola ereduari eusteko

Pausoka Guraso Elkarteak martxan jarri duen sinadura bilketan atxikimendua emateko azken eguna bihar, ekainak 1, da. Sinadurak Legebiltzarrera eroango dituzte, Herri Eskolaren pedagogia ereduak herritarren babesa ere baduela adierazteko

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Pasa den astean abiatu zuen Pausoka Guraso Elkarteak Antzuolako Herri Eskolaren eredu pedagogiakoa babesteko sinadura bilketa.

Hauteskunde aurretik alderdi guztiekin elkartu ziren eta inpresio ona jaso zutela azpimarratu du Pausoka Elkartearen presidente Nora Legorburuk: "Eusko Jaurlaritzara joan gara eta alderdi politiko guztiekin batu gara gure eskola pedagogiaren egoeraz jarduteko. Hasiera batean, erantzun ona jaso dugu; denak saiatuko direla zerbait lortzen eta irtenbideren bat bilatzen adierazi digute. Orain, ikusiko da zer egiten duten".

Sinadura bilketarekin, "herriak zenbaterainoko babesa ematen dion eskola ereduari" erakutsiko dutela azaldu dute guraso elkartearen kideek. "Ikusten da herritarren babesa handia dela, eta, atxikimendu honi esker, indarra badagoela erakutsiko dugu Legebiltzarrera joanda".

## Irakasle finkoen aldarria

Erretiroa hartzen doaz irakasleak, pixkanaka, eta dagoeneko irakasle finko asko galdu dituela Herri Eskolak gogorarazi dute Pausokako kideek. Eta horrek zuzenean eragiten diola eskola ereduaren egonkortasunari eta jarraikortasunari. "Finkoak diren irakasleak gutxi dira, hori da orain daukagun egoera. Irakasleen mugimendua, gainera, handia da. Sinadura bilketa hau finkotasun hori lortzeko da", azpimarratu du Nora Legorburu Pausokako presidentea.

Eskolaren ereduaren alde elkarlanean, Herri Eskolak eta Udalak badihardute Pausokarekin. Orain, baina, herritarrek batu zaizkie. "Herritarren artean

## HERRITARREN SINADURAK LEGEBILTZARRERA EROANGO DITU PAUSOKAK

ere laguntzeko gogoia badagoela sumatu dugu. Jende asko gerturatu da, oraingoz, sinadura ematera".

Bestalde, Pausokak gogorazi du eskola handitzeko lanak hastear daudela. Izan ere, ikasle kopurua handia da, hazi egin baita azken urteetan. Ondorioz, eta joera horrek goraka jarraituz gero, irakasle gehiagoren beharra ere izango dela ohartarazi du guraso elkarteak.

## Sinatzeako aukera

Oraingoz, bihar arte dute herritarrek sinatzeko aukera. Kalebarrenen jarriko dute mahaia, 12:00etatik 14:00etara bitartean. "Sinatzeko hirugarren egunerako 500 sinaduratik gora batu genituen; une honetan 647 ditugu eta balorazio ona egiten dugu. Haurrak ere etortzen dira euren atxikimendua ematera, eta orri sinboliko bat dugu ikasleendako. Agian egun gehiago jarriko ditugu sinadurak batzeko", azaldu dute Pausokako kideek.



ANTZUOLAKO UDALA

## Bernardina Zubillagak, 100 urte

Joan den maiatzaren 20an, Bernardina Zubillaga antzuolarrak 100 urte bete zituen. Gizarte Ongizate teknikari Karmele Kortak eta Beñardo Kortabarria Antzuolako alkateak egin zioten bisita. Herriaren izenean zoriondu zuten eta lore-sorta eman zioten Zubillagari. Ohi baino urduriago bazegoen ere, oso pozik hartu zituen ordezkariak.



LANDATXOPE

## Erretiratu abesbatzen doinuak

Landatxope, Basotxo eta Abaroa erretiratuen elkarteetako abesbatzak Antzuolako kaleetan barrena ibili dira kantuan. "50 lagun inguruk parte hartu dute eta eskerrak eman nahi dizkiegu bai abeslariari, eta baita soinu-joleei nahiz Arin tabernako jabeeri ere. Guztion laguntza eta babesari esker arratsalde polita igaro genuen harmoniaz eta alaitasunez".

## Galeanotarrak txapelkun!

Pasa den asteko zapatuan jokatu zen Euskadiko 37. Eskolarteko Kirol Jokoen Txapelketa. Eta irabazleak Antzuolako Nagore eta Leire Galeano ahizpak izan dira. Pilota goxoen nesken infantil mailako kategorian eskuratu dute garaipena. Gipuzkoako ordezkari gisa jokatu zuten finala, Bizkaiaren kontra, eta 18-3 irabazi zuten Galeano ahizpek.



PATXI OLABARRIA



EH Bilduko zerrendakide eta jarraitzaile batzuk, Gorka Artola buru dutela, hauteskunde gaueko ospakizunetan. IMANOL SORIANO

# Gehiengo osoz irabazita ere, oposizio eraikitzaile batekin lan egiteko gertu

EH Bildu 862 botoko aldearekin gailendu zaio EAJri, herriko bost hautesleketan irabazita; gehiengo osoa ematen duten bederatzi zinegotziak lortuta, Gorka Artolaren taldeak ez du akordiorik behar Gobernu osatzeko, baina elkarlanerako prestutasuna agertu dute

## Jokin Bereziartua BERGARA

Lehia estua espero zen EAJren eta EH Bilduren artean maiatzaren 26ko udal hauteskundetan, baina EAJk atxikimendua ia bere horretan mantenduta ere espero baino askoz alde handiagoarekin irabazi zuen EH Bilduk. 2015eko udal hauteskundeekin alderatuta parte-hartzeak ia hamar puntu (%9,16) egin du gora 2019koetan; %63ekoa izan zen duela lau urte eta domekan, berriz, %72,15ekoa.

## EH Bildu, espero baino errazago

Gorka Artola zerrendaburu duen taldeak 3.987 boto jaso zituen domekan (%48,25) eta Elena Leterenak 3.125 boto (%37,82); EH Bilduren jarraitzaile baikorrenek ere ez zuten esperoko EAJk baino 862 boto gehiago jasotzea. Emaizta horiekin, eta Bergarako 17 zinegotziz osatutako udalbatza

dela jakinda, gehiengo osoa lortu du EH Bilduk bederatzi zinegotzirekin; zazpi ordezkari lortu dituzte jeltzaleek eta bakarra PSE-EEk. Hain justu, Alberto Alonso zerrendaburu duen taldeak 525 boto jaso zituen (%6,35),

2015ean baino 146 gutxiago. Irabazik oraingoan ez du ordezkariarik lortu, Aiert Lizarralde zerrendaburu duen koalizioak 355 boto bakarrik jaso dituelako -2015ean baino 315 gutxiago, ia erdira jaitsi dira-. Maiatzaren 26

## Boto kopurua bost hautesleketan

	EH BILDU	EAJ	PSE-EE	IRABAZI PODEMOS	
<b>Erdigunea</b>	2.042	1.678	239	150	84
<b>Matxiategi</b>	955	753	135	100	63
<b>Martokoa</b>	532	471	113	77	32
<b>Labegaraieta</b>	319	147	24	20	20
<b>Osintxu</b>	139	76	14	8	8
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.987</b>	<b>3.125</b>	<b>525</b>	<b>355</b>	<b>207</b>
	%48,25	%37,82	%6,35	%4,30	%2,51
<b>Zinegotziak</b>	<b>9</b>	<b>7</b>	<b>1</b>	<b>-</b>	<b>-</b>

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## ARTOLA: "GEHIENGO OSOA IZATEAK EZ DU JUSTIFIKATZEN OPOSIZIOAREKIN EZ KONTATZEA"

gaueko beste inkogniteto bat zen Ahal Dugu-Podemos; Jose Maria Sasieta zerrendaburu duen alderdi moreak ez ditu aurreikuspenak bete eta 207 botorekin ez du zinegotzirik lortu.

## Udalbatza berria, ekainaren 15ean


Ekainaren 15ean eratuko da 2019tik 2023ra arteko agintaldirako udalbatza berria eta orduan izendatuko dute Gorka Artola alkate; Bergarak inoiz izan duen alkaterik gazteena izango da. Gehiengo osoarekin, EH Bilduk ez du EAJrekin edo PSE-EErekin akordiorako beharrik gobernua osatzeko. Hori bai, Artolak "bergarak guztiendako" gobernatuko duela esan zuen Goiena telebistan, hauteskunde osteko balorazioan: "Sekulako babes da. Agintaldi honetan askotan salatu dugu gehiengo oso batek ez duela inondik inora justifikatzen oposizioarekin ez kontatzea. Guk ez dugu akats hori egingo; oposizio eraikitzaile bat espero dugu eta harekin kontatuko dugu". Bi gako azpimarratu ditu Artolak aldaketa gertatzeko: "Batetik, azken lau urteotako kudeaketa kritikatu dute hainbatek, ez da kontatu herriaren parte batekin. Eta, bestetik, uste dut gure taldea ondo baloratu dela, sinesgarritasun bat helarazi dugula".

Jarduneko alkate Elena Letek, emaitzengatik EH Bildu zoriondu ostean, beste irakurketa bat egin zuen: "Eskerrak eman behar dizkiegu botoa eman digutenei, 2015eko atxikimendua mantendu dugu-eta. Parte hartzeak gora egin izanak eta ezkerren zatiketarik mesede egin dio EH Bilduri; oposiziotik defendatuko dugu gure programa".

## Agurraren osoko bilkura

Maiatzaren 27an azken ohiko bilkura egin zuen jarduneko udalbatzak. Elena Leteren (EAJ) esker on hitzez gain, Agurne Barrusok (EH Bildu), Leire Iruiñek (EH Bildu) eta Aiert Lizarralde (Irabazi) zinegotzi izateari utziko diote. Etorriko direnei zorte onena opatuz esan zuten agur udalbatzaren aurrean.


## Mezu bereziak azken ohiko osoko bilkuran



ELENA LETE

JARDUNEKO ALKATEA (EAJ)

"Harrokeriarik gabe, harro gaude egindako lanarekin; elkartekin egindako lana oso oparoa izan da, bereziki. Erabateko dedikazioa eskatzen du, eta familiaren laguntzarik gabe hau guztia ezinezkoa izango litzateke".



AGURNE BARRUSO 12

URTEZ ZINEGOTZI (EH BILDU)

"Askorako eman dute urte hauek guztiek eta uste dut merezita hartzen dudala erretiroa. Alderdikerietatik irten eta benetako elkarlana sustatu behar du Udal honek; ideiak trukatu, hausnartu... herri gisa pentsatzen jarri".



AIERT LIZARRALDE LAU

URTEZ ZINEGOTZI (IRABAZI)

"Gutxi ezagutu dezakete Udala barrutik eta, nahiz eta oposizioan egon oso Gobernu autoritario batekin, gustura egon naiz. Familia %100ean egon da nirekin, eta baita taldea; jota daude ez dugulako zinegotzia atera, baina ni baikor noa".

# "Garai bateko erromeriak suspertzeko garaia da"

**MAITE LAZKANO** MOISES ASPIAZU DANTZA TALDEKO ARDURADUNA

Musika eskolako dantza taldea, Janire Urbietak, Xamatx, Moises Aspiazu eta erraldoiak elkarrekin irtengo dira domekan San Martin plazara (12:00), jaialdi berezi baten bueltan

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Domekan herriko euskal dantza taldeek elkarrekin eskainiko duten jaialdiaren nondik norakoak azaltzeko, Goiena telebistan izan da Maite Lazkano asteon. Dio "ederra" izango dela garai bateko erromeria haietako giroa berreskuratzea, eta herritarrei bertaratzeko gonbita egin die. San Martin plaza dantzariz eta herritarrez betetzea espero dute; ekitaldia 12:00etan hasiko da.

**Zertarako antolatu duzue domekako ekitaldia? Zein da helburua?**

Ohitura handia zegoen lehen, maiatzean zehar, erromeriak egiteko. Azken urteetan, aldaketa batzuk izan dira dantza taldeetan eta ez da halako ekitaldirik sortu. Etenari buelta emateko asmoz, gaur egun Bergaran martxan gauden dantza taldeok erabaki genuen badela garaia erromerien ohitura hori berreskuratzea; domekakoa izango da lehen ekitaldia.

**Bergara beti izan delako oso herri dantzaria, ezta?**

Hala da. Bi talde nagusi izan ditugu tradizioz: batetik, taldeko dantzak landu izan dituen Xamatx egon da, 25 urtez lanean egon zena [2008an euren ibilbidea amaitutzat eman arren, urtean zehar ekitaldi jakin batzuetan hartzen dute parte]; bestetik, Moises Aspiazu dago, gure taldea, laster 30 urte egingo dituen eta solteko dantzak lantzen abiatu zena. Dantza solteko txapelketa da horren adibide, betiere, puntako dantzariekin. Taldeka zein soltean, Bergarak beti izan du tradizio handia, hainbat eta hainbat dantzari mugitzaile.

**Zenbat talde zaudete gaur egun?**

Hiru: batetik, Janire Urbietaren taldea dago, adin guztietako dantzariak batzen dituen; bestetik, duela sei urte sortu zen musika eskolako dantza taldea ere martxan dago; eta gero, gu gaude, Moises Aspiazu. Gainera, ezin



Maite Lazkano, Goiena telebistako platoon, martitzenean. JOKIN BEREZIARTUA

## "TALDEKA ZEIN SOLTEAN, BERGARAK BETI IZAN DU TRADIZIO HANDIA ETA DANTZARI ASKO"

dugu erraldoien taldea ahaztu, eta haiek ere parte hartuko dute etzi. Gure arteko harremanak onak dira, domekarako prestatu dugun ekitaldia da gure arteko harreman onaren adibide garbia.

**Elkarlana garrantzitsua delako, ezta?**

Talde bakoitzak bere asteroko eginbeharra dauka eta bere ekitaldiak antolatzen ditu, baina bai itzuli nahi dugula garai bateko erromeria haien testuingurura. Gure artean badagoelako ekitaldi berezi batzuk elkarlanean antolatzeko gaitasuna.

**Esan genezake Bergarako euskal dantza taldeak osasuntsu daudela?**

Osasuntsu eta indartsu gaude, bai. Talde bakoitzak bere ekintzak egiten ditu eta bere dantza estiloak landu, eta uste dut hori oso aberasgarria dela. Gu soltean hasi ginen, baina, gaur egun, dantza herrikoiak egiten ditugu eta bagabiltza dantza berri batzuk

sortzen. Musika eskolan, Aukeran taldeko kide bat dago irakasle moduan, eta, beraz, argi dago dantza garaikideek ere badutela euren lekua. Eta Janire Urbietak eta Jon Arrillagak gidatzen duten taldean arin-arina, fandangoa eta dantza tradizionalagoak lantzen dituzte.

**Domekara begira jarriko gara. Zer prestatu duzue? Zenbat dantzari elkartzeko zarete, gutxi gorabehera?**

Espero dugu domekan San Martin plaza dantzariz eta herritarrez betetzea. Hiru zati izango ditu jaialdiak: batetik, dantza taldeok eta erraldoiek bina dantza egingo ditugu, nor bere aldetik; bigarren zatian, dantza herriko batzuk dantzatzeko ditugu elkarrekin; eta, bukatzeko, lehengo erromeria kutsu haiek gogoratuz, herri osoa jarriko dugu dantzan. Espero dugu giroa sortzea ikusleak ere dantzan jartzeko...

**Jaien aurreko mokadutxo izango da etziko ekitaldia, hein batean...**

Jaietarako plaza berotzen hasiko gara; kar, kar. Itzulera hau lehen harria izan dadila datozen urteetan ere halako erromeriak antolatzeko. Erraza izan da berriro elkartzeko; guztiok ikusi dugu herriak merezi duela.



NIRE USTEZ

AINHOA NARBAIZA IRIZAR

## Bistatik galdu gabe

Hauteskunde-emaitzen atarian tokatu zait testu hau idaztea. Goxoki txiki bat. Egun hauetan egindako gogoeta eta sasi-analisi politikoetatik bi irudi berreskuratu nahiko nituzke. Zooma Euskal Herriko kanpainan jartzen badugu, hainbat politikariek erabilitako lengoaiaren perbertsioa –hitzen esanahia hustea, eraldatzea edo zuritzea– eta borroka sozialen apropiazioa azpimarratuko nuke. Marketin mota berri honek emaitzetan eragina izan duen susmoa dut.

Herriko emaitzek paisaia ezkertiar bat ireki diguten arren, herri mailan aldaketa sakonak planteatzeko erresistentzia eta mundu ikuskera kontserbatzailearen pisua hor dago. Datozen urteotan, eszenatoki eraldatzaile batera bidean sekulako lana dago egiteko, eta bide hori egiteko herrigintza indartsu bat egotea oso garrantzitsua iruditzen zait. Heldu diezaiegun, herrikideen arteko botere-harremani, herri mugimenduei, instituzioekiko ikuspegi kritikoari, herritarren auto-antolakuntzari, erronka deseroseoi, periferia eta zentroari. Eta ez dezagun bistatik galdu zein den tresna eta zein den helburua.

## Zubieta Berri elkarteak sortu dute, kalea eraberritzea helburu

Euren ustez urbanistikoki XXI. mendera egokitzeko "behar gorria" duen Zubieta kaleko bizilagunek Zubieta Berri elkarteak sortu dute. Helburua da Zubietan segurtasuna eta irisgarritasuna bermatuko duen plan integral baterako konpromisoak eskatzea dagokion erakundeari. Asteleheneko osoko bilkurara gerturatu ziren bizilagunek udal-

batzari eman zioten elkartearen sorreraren berri. Hain zuzen, ekainaren 15ean eratuko den udalbatza berriari eskatu zioten euren eskaerak aintzat hartzeko. Gainera, interes berezia dute eskola zahararen eremuan: "Eskola zaharra botatzeko asmoa dagoela enteratu gara eta auzokideon artean hamaika proposamen ditugu eremu horretarako. Zubietan ditugu sustraiak eta Zubietan jarraitu nahi dugu bizi izaten; auzoan gure beharrak asetzeko".

## OHARRAK

### Glutenik gabeko jaiak gaur San Martin plazan

17:00etatik 20:30era, askotariko ekintzak: puzgarriak, erraldoiak, umeentzat jolasak, postre lehiaketa, zozketa, taberna, DJa...

### Maravillas gaztetxearen aldeko elkartasun jaiak

Egun osoko egitaraua antolatu dute, biharko, kartzela zaharrean; mahai-ingurua (12:30), bazkaria (14:30) eta kontzertuak (22:30): Txerrikumeak, Tatxers, Streetwise eta Barne Guda.

### Ereindajan-en batzarra eta urteurren festa

Bihar, 11:00etatik 12:30era, urteko batzar orokorra egingo dute Aranzadi Ikastolako areto nagusian eta ondoren, 13:00etan, lehen urteurren festa egingo dute: luntxa, musika...

### Eskola kiroleko jaiak asteburuan Labegaraietan

Gaur arratsaldean eta bihar goizean, LHko ikasleen eskola kirola izango da protagonista. Askotariko jarduerak egingo dituzte.

### Bergara Loratzen: izen-ematea, gaur arte

Balkoiak apaintzeko lehiaketan izena eman daiteke gaur 20:00ak arte, eta balkoiek, gutxienez, ekainaren 3tik uztailaren 30era egon beharko dute apainduta –biak barne–: 943 77 91 62.



Pentekoste jaien aurkezpena. AMAIA TXINTXURRETA

# Herritar guztientzat egindako egitarau oparoa

Ekainaren 7an hasi eta 11ra bitartean ospatuko dira, Bergaran, Pentekoste jaiak. Egitaraua herriko eragile askoren arteko partaidetzatik eta herritar guztientzat osatu dute. Txupinazoaren jaurtiketa Katxalin elkarteak egingo dute

## Maialen Regueiro BERGARA

Eguaztenean aurkeztu zituzten ekainaren 7an hasi eta 11ra bitartean ospatuko diren Pentekoste jaiak. Herriko eragile desberdinen arteko elkarlana eskertzen dugu gurekin gogoratu izana. Gure elkarrekin momentu gogorak igarotzen dituzten emakumez osatuta dago, baina gu ere festa giroan murgiltzeko gogotsu gaude, eta baita positiboki bizitzeko ere".

raipatzeko eta herritarrek ikus-tarazteko. Hala, Katxalin elkarte arduradun Maite Valle honako hau adierazi zuen: "Bihotzez eskertzen dugu gurekin gogoratu izana. Gure elkarrekin momentu gogorak igarotzen dituzten emakumez osatuta dago, baina gu ere festa giroan murgiltzeko gogotsu gaude, eta baita positiboki bizitzeko ere".

## Erasorik gabeko jaiak

Jai hauek osatzeko orduan berdintasuna asko zaindu dela azpimarratu zuen Letek. Horren harira, Berdintasun teknikari Maider Urbietak honako hau adierazi zuen: "Jaietan ez da eraso matxistarik ezta LGTBI fobikorik onartuko, eta, horretarako,

prebentzio neurri batzuk hartu ditugu". Erasorik gerta ez dadin, aurreko urtean bezala, emakumezkoen zein gizonezkoen zuzendutako kartelak atera dituzte, non pautak batzuk aipatzen diren. Kartel horiek herriko gune desberdinetan jarrita egongo direla aipatu zuen Urbietak. Horrez gain, pautak horiek hobeto azaltzeko asmoz, ikasle bergarrek -DBHko 3 eta 4. mailetak eta batxilergoko ikasleek- profesional batzuen eskutik jasoko dute prebentziorako informazioa.

## Tonbola solidarioa

Ndank Ndank elkarte bergararren eskutik, ekainaren 8an tonbola solidarioa egongo da Irala kalean, 17:30etik 21:00etara bitartean. Elkarteko kide Eli Dominguezek herritarrek animatu zituen tonbolara gerturatzera, eta, horren harira, honako hau esan zuen: "Tonbolan jasotako dirua garrantzitsua izango da gure proiektuak aurrera eramateko".

## Katxalin elkarteak txupinazoa

Jaiak hasiera emateko, Bitorianatxo 20:00etan jaitsi izan da. Aurten, baina, jaien hasiera ordu erdi aurreratuko da -19:30ean izango da- eta txupinazoa jaurtitzearan arduradunak Katxalin elkarteak kideak izango dira, egiten duten lana go-

**EKAINAREN 7AN EGINGO DUTE EZTANDA JAIK, KATXALIN ELKARTEKO KIDEEN TXUPINAZOAREKIN**

## Euskal Herriko mendien xehetasunak, erakusketa gisa

Erakusketaren inaugurazioa gaur izango da, 18:30ean, eta irailaren 17ra bitartean egongo da ikusgai

### M.R. BERGARA

Laboratorium museoa gaur, 18:30ean, inauguratuko dute *Biribilak mendietan. Seles, kortak, sarioiak. El monte en circulos* erakusketa eta irailaren 17ra bitartean egongo da ikusgai. Erakusketa hau azterketa baten emaitza da, non Euskal Herriko mendien xehetasunak sakontzen diren.

### Erakusketaren ezaugarriak

Egindako azterketa horretatik ateratako emaitzak erakusteko, herritarrek dokumentazioa plasmazten duten paneletan aurkituko dute informazioa. Horrez gain, jatorrizko piezei, aireko argazkiei, kartografia eta ikus-entzunezkoen esker, ondare historikoa ezagutzeko aukera izango da. XVII eta XVIII. mendeetako jatorrizko krokisak ere erakutsiko dituzte, eta horiek

kortabasoei egiten diete erreferentzia. Testuei dagokienez, Juan Ramon Iturriza eta Pedro Bernardo Villarreal idazleen antzinako testuak eta Valladolideko artxiboko dokumentuak erakutsiko dituzte.

### Ukipen-pantaila

Herritarrek ukipen-pantaila bat izango dute eskuragarri, eta digitalizatu den dokumentazioa ikusi ahal izango dute. Pantaila horri esker, Geografiako Informazio Sistemen zerbitzura sarbidea izango da baita ere. Horrez gain, Xabi Crespok ekoiztutako ikus-entzunezkoa erakutsiko dute.

### Katalogoa

Erakusketan ikusgai dagoen edukia katalogo batean jaso dute eta Gernikako Euskal Herria Museoa egongo da salgai.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELKARTEAREN

## BATZAR OROKORRERAKO DEIA

Honen bidez, 2019ko ekainaren 13an, eguna, egingo dugun urteroko ohiko batzar orokorrerako deia egiten dut. Batzarra Arrasateko Kulturaren izango da. Jokin Zaitegi gelan, 17:30ean lehen deialdian eta 18:00etan bigarrenean.

### GAI ZERRENDA

1. Batzarreko akta onartzeko bi bazkide izendatzea.
2. 2018ko ekainaren 7ko batzar orokorreko aktaren onarpen txostena irakurtzea.
3. 2018ko kudeaketaren memoria azaltzea.
4. 2018ko kontuen berri ematea.
5. 2018ko emaitzen erabilera onartzea.
6. Zaintza Batzordeko kideen txostena irakurtzea.
7. 2019ko kudeaketa plana onartzea.
8. 2019ko aurrekontua onartzea.
9. Errektore Kontseiluko kideak izendatzea.
10. Kontseilu Sozialeko kideak izendatzea.
11. Bazkide ekarpenen eguneratzea.
12. Kontuen auditoretza enpresarekin hitzarmena sinatzea onartzea.
13. Gelderak eta eskaerak.

Aitor Izagirre Navarro  
Errektore Kontseiluko lehendakaria  
Arrasaten, 2019ko maiatzaren 28an.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

# Mahonero Egunarekin denboraldia borobiltzera

Denboraldi amaierako jaia egingo dute mahoneroek asteburuan. Gaur hasiko dute jaia, parriladarekin eta musika emanaldiarekin. Bihar, herri bazkariaren ostean sariak banatzeko momentua izango da; agurrak egongo dira, eta baita ongietorriak ere

**Xabier Urzelai** BERGARA

Mahonero Egunaren laugarren edizioa ospatuko dute, gaurtik hasita, Bergaran, eta helburua ez da aldatu: "Klubeko jokalaria, entrenatzaile, familia eta zaleekin batera, jai giroan asteburu atsegina pasatzea da asmoa", diote klubeko ordezkariak.

Gaur, 19:00etan hasita, gauera arte izango dira ekintzak; buruhandiak egongo dira, parrilada eta musika gaua Elvis Caino Djaren eskutik. Zapatu goiza, berriz, umeendako izango da: puzgarriak, jolasak, futbol ginkana, dantza... Eguerdian, nagusiendako triki-poteoa egongo da, eta ondoren, elkarrekin bazkalduko dute denek: "Seminarioko karpan egingo dugun herri bazkarirako azken txartelak salgai daude Depor tabernan egubakoitz eguerdira arte -nagusiek 20 euro eta umeek 15 euro-". Eta, bazkalostean iritsiko da asteburuko momentu goangarrietako bat, Mahonero sariak banatuko dituzte eta.

**Udako campusa, abian**

Aurten ere Udako campusa egingo du Bergara KEK. Ekaineko txanda dagoeneko beteta dago; eta uztailearen 1etik 5erako txandan izena emateko, hona idatzi: [kanpusbke@gmail.com](mailto:kanpusbke@gmail.com).



Bergara KEko ordezkariak Jose Javier Barkerorekin, eguaztenez. BERGARA KE

## Barkero izango da entrenatzailea

Futbol jokalaria moduan ibilbide oparoa izan zuen Jose Javier Barkerok izango du datorren denboraldian Bergara zuzentzeko ardura, Ohorezko Erregional Mailan. Barkero UDATik dator, han ohorezko gazte mailako taldea entrenatu du. Hala, aretxabaletarrak Mikel Juaristi azkoitiarra ordezkatzeko du, klubean lau urte egin dituen gizona. Juaristiren eskutik taldea mailaz igo zen duela hiru urte, eta azken bi denboraldietan arazo barik lehiatu da kategorian. Iaz, urte oso txukuna egin zuten mahoneroek eta bosgarren postuan amaitu zuten. Aurten, harrobiko jokalaria gazteen aldeko apustu garbia eginda, taldeari kosta egin zaio mailari eusteko beharrezkoak zituen puntuak batzea, baina esperientzia batzen joateko urtea izan da askorendako.

## "Jokalarien konpromisoa izan dut, eta klubaren partetik konfiantza"

Mikel Juaristik (Azkoitia, 1984) agur esango die bihar mahoneroei: "Tokatu egiten zait bertan egotea, eta gustura egongo naiz, gainera". Azkoitiarrak lau urte egin ditu Bergarako lehenengo taldea zuzentzen; Erregional Preferentean hartu zuen taldea eta bigarren urtean mailaz igo zuen Bergara. Futboleko egunerokotasunetik, oraingo, apur bat aldentzea da asmoa.

**Atsedean hartzeko unea da?**

Bai, halaxe sentitzen dut. Bergara Soraluzetik etorri nintzen, eta deia jaso aurretik atsedean hartzea zen nire asmoa. Baina Bergarari baiezkua eman nion, eta intentsitate handiko lau urte dira, urte onak. Orain, denbora familiarri eskaintzeko ordua dela sentitzen dut.

**Ze balorazio egiten duzu urte hauetaz?**

Balorazio ona, zalantza barik. Bergarara etorri nintzenezan banekien klub hau Gipuzkoa mailako talde handietako bat

zela, eta ez zegokion kategorian zegoela. Lehenengo urtean, mailaz igozko borrokan ibili ginen azken momentura arte, eta urte hartan Mondra igo zen gora. Hurrengo urtean, gu igo ginen Ohorezko Erregional Mailara, eta, kategoria berrian, lehenengo urtean oso denboraldi polita egin genuen, bosgarren sailkatu ginen.

**Aurten, gehiago kostatu zaizue lasaitasun postuetan ibiltzea.**

Bai. Aurten, atzean ibiltzea egokitu zaigu, baina, sailkapenak erakusten ez badu ere -14. amaitu dute-, urte garrantzitsua izan da Bergararendako. Jokalari gazteen aldeko apustua egin dugu, oso talde gaztea izan dugu lehiatzeko, eta minutu asko banatu ditugu gazte horien artean. Hori garrantzitsua da, gazteek izan dituzten minutu horiek baliagarriak izango direlako datorren urtean lehenengo taldeko erritmoan jokatzeko, Ohorezko Erregionaleko erritmoan ondo jarduteko.

**Zelan ikusten duzu kluba?**

Zuzendaritza talde honekin batera hasi ginen gu ere Bergaran, eta lau urte hauetan ikusi dut gauza on asko egin dituztela. Uste dut etorkizunerako oinarri sendoa jartzan dabiltzela, eta jokalaria gazteen aldeko apustua garbia da. Nire partetik, lanerako jokalarien erabateko konpromisoa izan dut, eta klubaren partetik konfiantza transmititu didate beti, eta lanerako askatasun osoa izan dut.

## Eskola Kiroleko jaia bihar

Agorrosinen egingo dute bihar, zapatua, Eskola Kiroleko jaia. Aranzadiko, Antzuolako, Mariaren Lagundiko, San Martingo eta Elgetako neska-mutikoak batuko dira, eta abilezia jolasak, ginkana, kirol alternatiboak eta *slackline* jarduerak egingo dituzte.

09:30ean hasiko dira Aranzadi eta Antzuolakoak, eta 11:15ean hartuko dute besteek erreleboa.



GOIENA

## Bergara Hiria Pilota Txapelketak baditu lehen finalistak

Martitzenezan jokatu zituzten Bergara Hiria Pilota Txapelketako lehenengo finalerdiak, eta dagoeneko kategoria bakoitzeko bikote bana ekainaren 10eko finaletarako sailkatuta daude.

Hala, promes mailan, Muruak eta Olidenek 22-16 hartu zuten mendean Alberdi eta Santamaria, eta nagusien kategorian Canabalek eta Aldabek lortu

zuten finalerako txartela; norgehiagoka horretan, finalistek 22-13 irabazi zieten Karregali eta Uriondori.

**Gaur, neskak; domekan, gazteak**

Gaur, egubakoitza, 19:30ean, Suberriko eta Bergarako emakumezkoak izango dira aurrez aurre, lau eta erdiko norgehiagokak jokatzeko dituzte. Domekan, berriz, 10:30ean hasita, Bergarako gaztetxoek txanda izango da; guztira, 12 norgehiagoka jokatzeko dituzte.



Aretxabaletan egindako tronboi joleen topaketa. B.M.E.

## Tronboi joleek hartuko dute San Martin plaza

Gipuzkoako eta Arabako hainbat tronboi jole elkartuko dira bihar: Tronboneitor topaketa egingo dute, aurten, 10. aldiz. Lau taldetan banatuta eskainiko dute kontzertua: talde bakoitzak bere saioa eskaini ondoren, 'Hor konpon' joko dute batera

**Arantzazu Ezkibel Galdos** BERGARA  
115 tronboi jole elkartuko dira zapatuan herriko kaleetan, Tronboneitor tronboi topaketaren aitzakiarekin, hain zuzen. Gipuzkoako eta Arabako 14 musika eskolotako ikasleak izango dira Bergaran.

Tronboi joleen 10. topaketa izango da aurtengoa. 12:00etan, kalejira egingo dute herriko kaleetan: Meredith Wilsonen *76 trombones* obra joko dute kalejiran. Ondoren, San Martin plazan eskainiko dute kontzertua.

### Kontzertua, lau taldetan

Bailara mailan, bi herrik parte hartuko dute: Aretxabaletako Musika Eskolak eta Bergarakoak. "Bergarako Musika Eskolako bederatzi ikasle izango dira topaketan, Alberto Laskurain irakaslearekin", azaldu du Marije Ugaldek. Biharko jardunaldian adin guztietako musikariek parte hartuko dute; hala, kontzertuari begira, adin tarteka banatu dituzte taldeak. Lau

talde izango dira: 8 eta 11 urte bitartekoak, 12 eta 15 urte bitartekoak, 16 eta 18 urte bitartekoak eta 18 urtetik gorakoak. Talde bakoitzak hiru obra joko ditu eta amaieran guztiek batera Migel Gonzalez Bastidaren *Hor konpon* obra eskainiko dute -Alberto Laskurainek tronboien dako egindako moldaketekin-. "Obra oso ezaguna" da Bergaran.

### "Pisua arintzea", helburu

"Topaketaren helburua da instrumentu horri bultzada ematea; izan ere, instrumentu minoritarioa da, baina, era berean, taldeetan behar den instrumentua", dio Ugaldek. "Instrumentu grabea da, eta horrelako instrumentuekin gertatzen dena da

**SAN MARTIN PLAZAN EGINGO DUTEN SAIOAN, GONZALEZ BASTIDAREN 'HOR KONPON' JOKO DUTE**

gaztetxoak ez direla animatzen, kosta egiten da", gaineratu du Ugaldek. Gaztetxoei gehiago gustatzen zaie "protagonista diren instrumentuak"; adibidez, tronpetak edo biolina.

Bestalde, azken urteetan tronboiak berak aldaketak izan dituela dio: "Lehen, pisu handikoak ziren, eta hori oztupoa izaten zen gaztetxoentzako; orain, aldiz, plastikozkoak egiten dituzte, koloretakoak direnak... izugarriak dira!".

### Musika eta zientzia

Bergarak musikarekin eta zientziarekin duen lotura nabarmendu nahi izan dute antolatzaileek. Hori horrela, zientziaren arloan wolframak eta Bergarak duten lotura gogora ekartzeko, jaialdia iragartzeko kartelean keinu txiki bat egin dute: *Tronwoneitor* idatziz: "Beste herri batzuetatik etorriko da jendea zapatuan, eta erakutsi nahi diegu Bergarak zientzia arloan izan duen garrantzia", dio Ugaldek.

## Bertsolariek "lagunarteko desafioa" jokatu dute

Bergarako eta Aretxabaletako bertso eskoletako kideen arteko bertso saioa izango da, Osintxun, 19:30ean

### A.E. BERGARA

Kopla dema izango dute bihar Osintxun: Bergarako Kopla Barrik bertso eskolak eta Aretxabaletako Lekaixoka bertso eskolak *Kopla KO* saioa egingo dute. "Lagunarteko desafioa" izango dela nabarmendu dute antolatzaileek. Saioa Txuringo tabernan izango da, 19:30ean.

"Urtarrilean bertso musikatuena saio bat egin genuen Aretxabaletan. Bergarako bertso eskola-koak Aretxabaletan egon ziren eta asko gustatu zitzairen ikusitakoa. Hala, pentsatu genuen

zerbait egin genezakeela elkarrekin", azaldu du antolatzaile lanetan ibili den Mikel Mendiarazek. Bi bertso eskolen arteko harreman onaren seinale da biharko saioa.

Lehia horretako "epailea" Ibon Leibar *Txinbo* izango da. "Taldea bakoitzetik sei bertsolari ibiliko dira kantuan", dio Mendiarazek. Bertso musikatu saioa izanda, musikariak ez dira faltako: Aitor Ziardegi eta oraindik zehaztu barik dagoen beste musikari bat izango dira agertokian, desafioari musika jartzen.

### 'Angelus' kontzertu sinfonikoa eskainiko du Hots abesbatzak

Domekan, 19:00etan, Mariaren Lagundiko elizan kontzertua eskainiko du Hots abesbatzak. *Angelus* kontzertu sinfoniko korala izango da emakumeen ahotsek eskainiko dutena. Aitor Biain izango da zuzendaria, eta bakarlariak Edurne Usandizaga, Nire Ibarra eta Oihana Diaz. Pianoarekin laguntzen Eli Muamendiaraz ibiliko da.

### Ekainaren 5ean, doako irrintzi ikastaroa egingo dute Jardunen

Ekainaren 4an, martitzena, *Erraiak* dokumentala eskainiko dute Seminarixuan, 19:00etan. Dokumentalak irrintziaren jatorria, zentzua eta eragina aztertzen ditu. Hurrengo egunean, eguaztena, doako irrintzi ikastaroa egingo dute Jardunen: izena emateko, idatzi [jardunkultura@topagunea.com](mailto:jardunkultura@topagunea.com) helbidera edo deitu 605 71 24 69 zenbakira.



BET

## Elektronika-zaleak, "gustura"

Sekulako arrakasta izan du bosgarren urtez antolatu duten elektronika topaketak. Antolatzaileen esanetan, jendea "oso gustura" egon zen, eta gaztetxea bete egin zen Euskal Herriko eta Estatuko artista esanguratsuenak zuzenean entzuteko. Elektronika-zaleek 13 orduz izan zuten horretaz gozatzeko aukera, kartzela zaharrean.



# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## DENTISTAK

### ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65  
Elgeta / Torrealedea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

### BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### JULEN MURUAMENDIARAZ KIROPRAKTIKA ZENTROA

Bergara / Ibargarai 41 / 688 80 16 72

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Apendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## YOGA

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea  
943 76 11 38 / 639 23 57 53.



EH Bilduko zerrendakide batzuk emaitza ospatzen bilgunean beste herritar batzuekin batera. O.E.

# Gehiengoa berriz EH Bilduk

Gehiengoa berretsi du azken udal hauteskundeetan EH Bilduk eta ez da aldaketarik egongo Oñatiko Udal Gobernuan. Agintaldi berrian ere alderdi berak egongo dira udalbatzan, orain arteko zinegotzi kopuru berarekin: EH Bilduk hamar eta EAJk zazpi

## Oihana Elortza OÑATI

EH Bildu egongo da Oñatiko Udal Gobernuan datorren agintaldian ere. Horixe berrestu zuten maiatzaren 26an egindako udal hauteskundeetako emaitzek. Datozen lau urteetako udalbatzan EH Bilduko hamar zinegotzi egongo dira eta EAJko zazpi. Alderdi sozialistak ez zuen eserlekurik lortu.

## Datu historikoak

Iluntzeko zortzietan itxi zituzten hauteslekuetako ontziak. Zubikoa kiroldegian, esaterako, ordurako han zeuden postetxeak langileak korreoz emandako botoekin. Haiek hartu eta ontzietan sartu ostean hasi zuten botoen kontaketa. Europakoak lehenengo, gutun-azal urdinak. Mahaietako presidentearen eta bokalen ondoan alderdietako ordezkariak ere bazeuden, eta

denen artean egin zuten botoen kontaketa. Mahai bakoitzeko emaitza jakin ahalaz bat alderdiari jakinarazten zion ordezkari bakoitzak, botoen zenbaketa bakoitzak bere gunean pila-tzeko, EH Bilduk Kale Barriar

duen EH Bilgunean eta EAJk, batzokian. Europakoan zenbaketa bukatuta, Udalekoa egiten hasi ziren. EH Bilduk EAJk baino boto gehiago lortu zituen eta hauteslekuetatik jasotako Udaleko emaitzak heldu ahala

## Udal hauteskundeetako botoak 2019

	EH BILDU	EAJ	PSE-EE
<b>Kiroldegia</b>	1.418	1.020	123
<b>Santa Marina</b>	805	486	27
<b>Olakuako dorrea</b>	324	270	39
<b>Olakuako eskola</b>	747	325	76
<b>Errekalde</b>	326	258	54
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.620</b> %57,48	<b>2.359</b> %37,46	<b>319</b> %5,07
<b>Zinegotziak</b>	<b>10</b>	<b>7</b>	<b>0</b>

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## Elorza eta Galdos



**IZARO ELORZA**  
EH BILDUKO ZERRENDABURUA

"Poliki-poliki hasiko gara martxa hartzen. Aurretik komentatu izan dudan moduan, traspasoan ikusiko dugu gauzak nola dauden gaur egun eta horrekin hasiko gara lanean gu. Orain, ospatu egingo dugu garaipena".



**AINHOA GALDOS**  
EAJ-KO ZERRENDABURUA

"Talde sendoa dugu, berpiztu egin dugu taldea, ilusioa dugu eta herriaren alde lan egiteko prest gaude. Aurrera jarraituko dugu lanean, herrigintzari begira. Izarorekin egon naiz, zoriondu dut, eta elkarrekin lan egiteko prest gaude".

hasi ziren sumatzen EH Bilgunean udal hauteskundeetan ere berdina gertatu eta EH Bilduk irabaziko zituela herriko hauteskundeak. Pantaila erraldoi bat zuten jarrita Kale Barriko bilgunean eta mahaietatik jasotako datuekin momentu oro eguneratzen zuten taula bat ikus zitekeen. Hiru mahaitako emaitzen faltan, hauteskundeak irabazi zituztela jakitun ziren, zinegotzi kopurua oraindik zehaztu barik zegoen arren. Izaro Elorza zerrendaburuak bilguneetik bertatik jarraitu zuen botoen zenbaketaren emaitza: "Oso pozik gaude, bai. Datu historikoak lortu ditugu, duela zortzi urte baino boto gehiago izan ditugu. Mahai guztietan irabazi dugu", zioen domeka gauean. Eskerrak eman zizkien euren konfiantza jarri eta botoa eman zieten herritarrei eta etxekoak ere gogoan izan zituen. EH Bilduren ospakizunak luze iraun zuen domeka gauean.

## Herrigintzan lanean

Batzokian telebista bidez jarraitu zuten domekako hauteskunde gaua. Hantxe afaldu zuten EAJko alderdi kide askok; Ainhoa Galdos zerrendaburuak ere bai.

**EKAINAREN 15EAN IZANGO DA INBESTIDURA EGUNA, ZINEGOTZIEK KARGUA HARTZEKO EGUNA**

"Parte-hartzea handia izan da, eta, puntu bat jaitsi dugun arren, herriaren babes mantendu egin dugu eta herritarren boto fidagarrietan gurea dela ikusi dugu. Lanean jarraituko dugu orain, herrigintzan", adierazi zuen Galdosek domeka gauean.

EH Bilduz eta EAJz gain, PSE-EE alderdia ere aurkeztu zen udal hauteskundeetara Oñatin. Momentu batean datuek zinegotzi bat lortu zuela iragarri bazuten ere, emaitza guztiak heldu zirenean ikusi zen alderdi jeltzalearendako izan zela azken zinegotzia, eta alderdi sozialista ordezkari barik gelditu zen -19 boto falta izan zitzaizkion eserleku bat izateko-.

## Inbestidura eguna

Hamazazpi zinegotzik osatzen dute Oñatiko udalbatza eta ekainaren 15ean egingo den inbestidura egunean hartuko dute kargua guztiak: EH Bilduk hamar zinegotzi izango ditu agintaldi berrian -hamaikagarrena 88 botorik gelditu zen- eta EAJ alderdiak, zazpi. Datozen lau urteetako agintaldian, beraz, ez da aldaketarik egongo, egun ere zinegotzi kopuru bera dute eta bi alderdiek udalbatzan.

**ALDERDI SOZIALISTARI 19 BOTO FALTA IZAN ZAIZKIO ORDEZKARI BAT IZATEKO**



Herriko osasun zentroaren sarreretako bat. O.E.

# Norberaren gelan jausten dira edadetu gehienak

Adinekoen erorketa gehienak euren logeletan gertatzen direla ikusita, gelak nola antolatu eta zein ohitura hartu gomendatzeko tailerra antolatu du osasun zentroak. Gerorako zein laguntza dauden eta non eskatu behar diren ere azalduko dute

## Oihana Elortza OÑATI

Adin batetik aurrera pertsonen erorketen kopurua asko igotzen dela ikusten dute osasun etxeko langileek kontsultetan, eta erorketa horiek prebenitzeko tailerra antolatu dute.

## Alfonbrarik ez

Etxean gertatzen diren erorketak nola ekidin aztertuko dute, batez ere, tailer horretan. Izan ere, norberaren gelan gertatzen dira erorketa gehienak. "Adinekoen erorketen zergati nagusia adina bera da, baina neurri batzuk hartu daitezke gutxiagotan jausteko. Edadetu erorketa gehienak, adibidez, euren logeletan izaten dira. Horregatik, komenigarria da, esaterako, gela horretan alfonbrarik ez jartzea. Etxeko zapatilak itxiak izatea ere hobea da irekiak edo galterdiak bakarrik jantzea baino, irrist egiteko aukerak gutxitu egiten direlako. Eta gelan argi nahikoa izateak eta gauerdian komunera jaikitzean argia piz-

teko ohitura izateak bere garrantzia dutela ere inportantea da". Azalpen horiek emango ditu, besteak beste, ambulatorioko erizainen koordinatzaileak, Kizkitza Alustizak.

## Laguntzak

Alustizak emandako datuen arabera, 65 urtetik gorakoetan hirutik bat jausi egingo da datorren urtean, eta 80 urtetik gorako bitik bat. "Erorketaren ondorengo errehabilitazioa luzea izan daiteke hainbat kasutan, eta askori bizimodua aldatzen zaie, muga handiagoak izaten dituzte-eta gero. Horregatik, tailer honetan lurretik nola jai behar den eta gero zein laguntza dauden ere azalduko

**65 URTETIK GORAKO HIRUTIK BAT JAUSIKO DA DATORREN URTEAN, ETA 80TIK GORAKO BITIK BAT**

dute. "Istripu horren ondorioz behar jakin batzuk edo laguntza konkretu batzuen beharra izan ahal dute pertsona horiek, eta horiek zeintzuk diren eta non eskatu ahal dituzten ere azalduko diegu. Esaterako, ortopedia aparailuei buruz hitz egingo dugu, baina baita Udalak ematen dituen laguntzei buruz ere, izan teleasistentzia, etxeko laguntza edo beste zerbitzuren bat", adierazi du Alustizak.

## Anbulatorioan

Datorren astean egingo den ikastaroa herriko edadetuei zuzenduta dago, baina baita euren zaintzaile edo senideei ere. Ekainaren 3an eta 5ean izango dira ikastaro teoriko eta praktikoak, Euskaldun Berria gelan, doan. Izena, baina, aurrez eman behar da, ambulatorioan. Hauxe da hango telefono zenbakia: 943 03 54 00. Plazak mugatuak dira; 30 lagunetan jarri dute muga. Ikastarora arropa erosoarekin joatea da gomendia.

## Miloi bat euro emango dio Jaurlaritzak CEAR-i Larrañarako

Euren egoera argitu arte dauden pertsona eta familiei arreta, orientazioa eta laguntza emateko izango da

### O.E. OÑATI

Eusko Jaurlaritzak CEAR Euskadiri miloi bat euroko dirulaguntza ematea onetsi du, Oña-Larraña Etxearen kudeaketa ahalbidetzen laguntzeko. Lehen harrerako zentro honetan euren egoera argitu arte dauden pertsona eta familiei arreta, orientazioa eta laguntza ematea ahalbidetzeko, hain zuzen.

Egun, pertsona bat babeslekua jasotzeko eskatzaile gisa onartua izateko tramiteak luzeagoak dira, sei eta 15 hilabete bitartekoak. Larraña Etxearen helbu-

ria bitarte horretan pertsona horien beharrei erantzutea da. Venezuela, Ukraina eta Sahara Hegoaldeko egoiliarak dituzte egun, esaterako. Salbuespen gisa, aterpetxeak ahultasun-egoeran dauden edo Euskadira heldu berriak diren migratzaileak ere hartzen ditu eta horien oinarritako beharrei erantzuten die zentroak: jateko eta lo egiteko espazioa, osasun-arreta, arreta juridikoa eta prestakuntza. Urritik, 132 pertsona hartu ditu, 27 nazionalitatekoak. Egun, 84 pertsona bizi dira.

## Gaur arratsaldean zabalduko dute ur uhinen parkea

Gaurko ere eguraldi beroa iragarrita zegoela erabaki dute ur uhinen irekiera aurreratzea eta gaur, egubakoitza, jarriko dituzte martxan ur txorrotak, 17:00etan. Ikasturtea bukatu arte 13:00etatik 21:00etara egongo da zabalik aste barruan eta 11:00etatik 21:00etara asteburuetan. Komun publiko bat ere egongo da bainu denboraldian zehar.

## Asentzio jaiak ospatuko dituzte asteburuan Murgian

Asentzio jaiak dituzte asteburu honetan Murgia auzoan, eta, ohi denez, auzoko produktuen dastatzea eta herri kirolak egongo dira aurten ere. Bihar eguerdian izango da hitzordu gastronomikoa eta 17:30ean hasiko dira giza-idi probak eta harri jasotzaileen saioak. Pailazoak, txokolata-jana eta trikiti doinuak ere egongo dira.



NIRE USTEZ

XABI GESALAGA

## Kimurik indartsuenak...

Azkenaldian ez bezala, negua hotza, euritsua, umela izan oi da Euskal Herrian. Naturako bizidun txiki eta handiek deskantsua hartzen dute. Animalia askok euren gotorleketan loaldi luzeak egin oi dituzte. Landareek, loreek, deskantsua hartzen dute, udaberri indarrez eta koloretsu agertze aldera.

Guk gizakiok, aldiz, ez dugu deskantsuetarako betarik. Egunerokotasunari ekin behar. Eguzki ordu gutxiago ditugu, baina iluntasunari aurre egin behar. Hotzak askotan hortzak erakusten dizkigu, aurrera egin behar. Elurrak herri osoa gelarazten du, aurrera ala ere. Eurriak ia itotzeraino estali gaitzake, baina burua uretatik at, bizi irauten dugu.

Gizon eta emakumeok, zahar nahiz gazteok, zori onez edo zori txarrez, geure bizitzan zehar, pasatu oi dugu geure negu partikularra. Hotzaldi, elurte eurite edo izozte partikularrak Non, dena, gelditu, gogortu, zakartzen, iluntzen zaigun. Hortxe naturarekin bat egiten dugu! Eta zera ikusiko... Neguan, elurpean, ernetzen direla askotan, kimurik indartsuenak...

Ongi etorria izan bedi udaberria!

# Igerilari oñatiarrak Bergaran hartuko dituzte

Igerilekuko lanek urtebete irautea aurreikusten da, baina federatutako igerilari oñatiarrek lanak bukatu bitartean erabili ahalko dute Bergarako igerilekua. Entrenamendu saioak goizean izan beharrean arratsaldez izango dituzte

## Maialen Regueiro OÑATI

Zubikoa kiroldegiko eraberritze lanek urrian hasita aurreikusten da, baina igerilekuko lanek ez dira 2020ko urtarrilera arte hasiko. Hala ere, Aloña Mendiko igeriketa saila eta Oñatiko Udala lanean hasita daude igerilekuko lanek irauten duten bitartean federatutako igerilariak izango duten aukeraren inguruan. Hainbat hilabetetan izandako bileren ostean, Borja Moiuak, jarduneko Kirol zinegotziak, honako hau adierazi du: "Bergarako Kirol Elkarteari eta Udalarai baimena eskatu diegu Aloña Mendiko igerilariak Bergarako igerilekuak erabili dezaten, eta eskaera onartu digute". Modu horretan, federatutako igerilari oñatiarrek Agorrosingo igerilekuan entrenatzeko aukera izango dute.

## Agorrosingo igerilekuko lanak

Testuinguru horretan, gogora ekarri behar da duela urte ba-



Oñatiko igerilekua. M.R.

tzuk, Bergaran, Agorrosingo igerilekuko eraberritze lanek egiten ari ziren bitartean, igerilari bergararrek Zubikoa kiroldegiko igerilekuak erabili zituztela entrenatzeko. Garai hartan, gainera, igerilariak ez

zuten kuotarik ordaindu Oñatin entrenatzeagatik, eta, kasu honetan, egoera errepikatu egingo da eta igerilari oñatiarrek debalde erabiliko dituzte Agorrosin Kirol Guneko igerilekuak. Horren harira, aipatzekoa da

Aloña Mendiko igeriketa sailaren lehen tasuna hasieratik izan direla Bergarako igerilekuak, eta ondoren etorri dira elkarteen eta udalen arteko bilerak.

## Urtebete lanak

Igerilekuko lanek urtebete irautea aurreikusten da; beraz, hau da Oñatik egin duen eskaera, Moiuak adierazi duenez: "Zubikoako igerilekuko lanek irauten duten bitartean Agorrosingo igerilekuak erabiltzeko aukera izatea".

## Entrenamenduak, arratsaldez

Aloña Mendiko igerilariak, gaur egun, goizean goiz izaten dituzte Josune Odriozola entrenatzaileak zuzendutako entrenamenduak, baina Bergaran arratsaldez egiten dituzte saio horiek. Kasu horretan, oñatiarrek 2020ko urtarriletik aurrera arratsaldean joan beharko dute Bergarara entrenatzera. Horren harira, Odriozolak honako hau aipatu du: "Gure asmoa da igerilariak malgutasuna eskaintzea, zeren pena izango bailitzateke ordu-tegi arazoengatik igerilariak taldea uztea".

## Aloña Mendiko igerilariak

Zubiko kiroldegiko igerilekuen lanek herritarrengan eragingo duten zalantzarik ez dago, baina eragin zuzenena Aloña Mendiko igerilariengan izango du. Izan ere, orain arte, igerilariak 06:00etan zuten egunero hitzor-

dua entrenatzeko, eta, 2020ko urtarriletik aurrera, Bergarako igerilekuan egin beharko dituzte entrenamenduak. Egoera horren aurrean, Ainhoa Redin igerilariak honako hau adierazi du: "Oraindik ez dakigu nola antolatuko garen Bergarako igerilekura joateko. Horren ondorioz, taldeko hainbat kidek zalantzak ditugu eta ez dakigu igeriketan jarraituko dugun edo ez. Nire kasuan, arratsaldez beste kontu batzuk izaten ditut egiteko eta ez dakit nola moldatuko naizen. Momentua iristen denean, erabaki bat hartu beharko dut". Kepa Aldekoa igerilariak ere antzeko egoeran dago: "Egoera honen ondorioz, hainbat taldekidek ez dute igeriketan jarraitzeko gogorik, eta, horregatik, Aloña Mendiko igerilari kopurua jaitsi egingo dela uste dugu. Nire kasuan, aurten, futbola utzi behar izan dut, hurrengo urtean Bergarara entrenatzera joan ahal izateko". Era berean, Aldekoak honako hau azpimarratu du: "Igeriketan gaudenok zuzenean jasango ditugu lanen ondorioak, baina igerilekuak itxura ona hartuko duen esperantza dugu".

## BERGARAKO IGERILEKUAK ZUBIKOAKOEN LANAK AMAITU ARTE EGONGO DIRA ESKURAGARRI



LIDE OSINAGA

## Ikasturteko azken erakustaldia

2018-2019 ikasturtea borobiltzeko asmoz, Aloña Mendi gimnasia erritmikoko kideek aurtengo azken erakustaldia egingo dute, domekan, 12:00etan, Zubikoa kiroldegian.

4 eta 15 urte bitarteko 80 neska-mutikok hartuko dute parte emanaldian, eta taldeka, banaka edota binaka dantzatuko dute.

## Eskola Kirolak gaurko jaiarekin esango dio agur ikasturteari

Hainbat hilabetetan mota guztietako kirol-ekintzak praktikatzen ostean, gaur, egubakoitza, Eskola Kirolak ikasturte amaierako jaiak egingo du, arratsaldeko seietan, Zubikoa kiroldegian. Jaiari hasiera emateko, joko egokituak izango dira, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleei zuzenduta, eta horiek gidatzera Federazioko kideak etorriko dira. Ondoren, sari banaketari emango saio hasiera; kasu horretan, Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. maila bitarteko ikasleei opari eta dominak banatuko dizkiete.

Hain zuzen ere, 5 eta 12 urtera bitarteko 500 ikasle aritu dira ikasturte honetan.

## Lehen Erregionalak kopako finala izango du jokoan bihar

Igandean Euskalduna taldearen aurkako finalerdian partidu "oso ona jokatu" eta irabazi ostean (3-1), Aloña Mendiko gizonezkoen Lehen Erregionaleko taldeak kopako finala jokatuko du bihar, Amara Berri taldearen aurka, Beasaingo Loinaz futbol zelaietan. Norgehiagoka 16:00etan hasiko da, eta Iñigo Zubiaren mutilak "gogotsu eta ilusioz" daude domekarako. Oñatiarrek kopan jokatutako zortzi partiduetatik zazpi irabazi eta bakarra galdu dute.

Ligan egindako denboraldiari dagokionez, Zubiaren mutilek seigarren postuan amaitu dute, hogei partidu jokatu ostean, 32 punturekin.

## Aloña, Mondrate eta Goierri, aurrez aurre, bihar, III. Oñati Sarian

Areto futboleko gazte mailako III. Oñati Saria jokatuko da bihar, Zubikoa kiroldegian. Hiruko txapelketa izango da eta, Aloña Mendi taldeaz gainera, Arrasateko Mondrate eta Urretxu-Zumarragako Goierri arituko dira aurrez aurre.

Txapelketa horretako lehen norgehiagoka Mondratek eta Goierri jokatuko dute, 16:00etan hasita. 17:00etan, Aloña Mendiaren txanda izango da, eta aurreko partidua galtzen duen taldearen aurka jokatuko du. 18:00etan, lehen partiduan irabazi duen taldea izango du aurkari gisa Aloñak, eta, azken partidu honetatik, III. Oñati Sariaren irabazlea erabakiko da.



Oñati abesbatzan 35 bat kide daude gaur egun. OÑATI ABESBATZA

## Esperientzia handiko bi abesbatza, elkarrekin

Oñati abesbatzak eta Kataluniako Coral Sellares de Gava abesbatzak elkartrukea egingo dute aurten, eta lehen hitzordua gaur, egubakoitza, elkarrekin eskainiko duten kontzertua izango da; emanaldia 19:00etan hasiko da, Bidaurretako Monasterioan

### Eneko Azurmendi OÑATI

Kasualitate baten ondorioz elkartuko dira Oñati abesbatza eta Coral Sellares de Gava abesbatza gaur. "Kataluniako abesbatzako kide baten alaba Oña-

tin bizi da, eta haren bitartez lortu genuen kontaktua. Harremanetan jarri ginen, haiek prest azaldu ziren eta gu ere prest geundenez, aurrera egin dugu", adierazi du Miren Gurutze Plazaolak, Oñati abesbatzako zu-

zendariak. 2015etik ari da zuzendari lanetan, eta azaldu du hainbat elkartruke egin dituztela dagoeneko. "Gustatzen zait horrelako elkartrukeak egitea". Hala, gaurkoaren ostean, azaroko lehen asteburuan, Katalu-

nian eskainiko dute kontzertua oñatiarrek.

1966. urtean sortu zen Oñati abesbatza. Gaur egun, 35 kide inguru ditu eta hainbat kontzertu eskaintzen ditu urtean zehar herrian, "Gabonetako kontzertuan, auzoetako jaietan ermita ezberdinetan, eta abar".

Gaurko kontzertuari dagokionez, abesbatza bakoitzak bere zatia egingo du, lehenik, eta ondoren, *Agur Jaunak* abestuko dute biek elkarrekin, emanaldiari amaiera emateko.

### Mila kontzertu baino gehiago

Coral Sellares de Gava abesbatza 1965ean sortu zen. Gaur egun, ahots mistoko abesbatza bat da, 60 kidez osatutakoa, eta Emmanuel Niubok zuzentzen duena.

Mila kontzertu baino gehiago eskaini dituzte dagoeneko 54 urteko ibilbide luzean, Katalunian bertan, estatu espainiarrean eta baita atzerrian ere. Horrez gain, sari esanguratsuak ere jaso izan dituzte.

Euren errepertorioa zabala eta askotarikoa da. Izan ere, garai eta estilo ezberdinetako musika eskaintzen dute.

## Maidar Arregi izango da oñatiar bakarra Gipuzkoakoan

Irailean hasiko dute 2019ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Aurretik, ordea, sailkapen fasea jokatu behar izan dute maiatzeko sailkapen fasean. 14 saio eta 84 bertsolari izan dira, guztira, saio horietan, bi multzotan banatuta. Multzo bakoitzean puntuazio altuena lortu duten 17 bertsolariek egin dute aurrera. Guztira, 34 bertsolarik, beraz.

Bost oñatiar zeuden bertsolari horien artean, Urko Arregi, Gontzal Belategi, Urko Egaña, Aitor Tatiegi eta Maidar Arregi, eta azken hau izan da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako txartela lortu duen oñatiar bakarra. Eta ez nolana. Izan ere, A multzoan puntuaziorik altuena lortu duena izan da (338,5) eta, oro har, Haritz Mujika izan da bera baino puntuazio altuagoa lortu duen bakarra (344).

Sailkatu diren 34 bertsolari horiei dagoeneko sailkatuta zeuden beste 14 bertsolariak batuko zaizkie irailen abiatuko den txapelketan.

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



### ABOKATUAK

#### BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

#### BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
Faxa: 943 77 01 08  
[blasaga@conet.es](mailto:blasaga@conet.es)

#### RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

### AHOLKULARITZAK

#### ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
[andrama@arrakis.es](mailto:andrama@arrakis.es)

#### GARRAILAN

BERGARA / Mabilategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

### ARKITEKTOAK

#### BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
[www.biark.net](http://www.biark.net)

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea  
Tel.: 943 79 51 25  
Faxa: 943 71 19 85  
[uribesalgo@uribesalgo.es](mailto:uribesalgo@uribesalgo.es)

# Aldairen agurra etxean izan da

**FUTBOLA** Mojategiko harmailak bete egin ziren Alavesen eta Realaren arteko partidua ikusteko (0-1). Oihana Aldai aretxabaletarraren azken partidua izan zen talde txuri-urdinean; Realak eta Athleticcek jokatu dute Euskal Herria Kopako finala



Oihana Aldai, partidu amaieran, Mojategin. ARGAZKIAK: MARKEL BAZANBIDE /IMANOL BELOKI

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Realari kosta egin zitzaion martitzeneko Euskal Herria Kopako lehen finalerdian Alaves mendean hartzea. Gonzalo Arkonadaren neskek berdegunean erakutsi zuten arabarrak baino pare bat koska gorago daudela, baina Alavesek txukun jardun zuen atzealdean, eta kontraerasoan apenas minik egin bazuten ere ondo eutsi zioten norgehiagokari.

Alavesko atezain Neike Bargas izan zen Alavesek talde-txuri-urdinari horren ondo eustearen *errudunetako* bat, 88. minutura arte partidu oso txukuna egin zuen eta. Orduan, baina, Leire Bañosek area kanpotik egindako jaurtiketa batek ezustean harrapatu eta hankapetik sartu zitzaion baloia, eta hor amaitu zen norgehiagoka.

**Oihana Aldairen agurra**

Norgehiagoka berezia izan zen, seguru, Oihana Aldairendako. Atezain aretxabaletarra titular izan zen etxeko partiduan, eta ordu batzuetara agur esan zuen sare sozialen bidez: "Nire taldeari agur esateko eguna da gaur, eta ez da erraza, batzuetan agur horiek norberak nahi baino lehenago iristen direlako", idatzi zuen. Ondoren baieztatu zion GOIENARI ez duela Realean jarraitzeko eskaintzarik jaso, baina futbolarekin gozatzen jarraitzeko asmoa duela.

**Athletic ere finalean**

Beste finalerdia Eibarrek eta Athleticcek jokatu zuten eguaztengoa, Galdakaon, eta hor oso parean egon ziren indarrak. Athleticcek 92. minutuan lortu zuen berdinketaren gola -Valdezate-. Eta talde txuri-gorria, penaltietan, 4-3 nagusitu zen.



Zaleak Realaren bufandarekin.



Alavesko jokalariai berdegunera salto egiten.



Zale kuadrilla gaztea.



Mojategiko harmailak bete egin ziren Euskal Herria Kopako finalerdia ikusteko.



Realaren banderarekin.



Aurpegia margotu zuten batzuek.

## Ikusleen iritzia:




**JENI DABILA**  
REALEKO JARRAITZAILEA

"8 urteko umea daukat, eta dagoeneko esan dit datorren urtean Realeko kamisetan ez duela Rulliren edo Oiartzabalen izenik gura, Quiñonesen edo Nahikariren izena jarriko duela kamisetaren atzealdean, eta hori oso esanguratsua da. Uste dut erreferente bilakatzen dabiltzala emakumezkoak ere futbolean".




**NAOMI PEREZ DE EULA**  
ALAVESKO JARRAITZAILEA

"Alavesko jokalaria Maialen Martinen lagunak hura animatzera etorri gara. Alavesek oso urte ona egin du, eta gaurko partidua ere oso garrantzitsua da euredako, Reala oso talde indartsua delako. Sarri joaten gara Alavesen partiduak ikustera, baina gaur hemen jende asko batu da".



**UNAX URIZAR**  
REALEKO JARRAITZAILEA

"Futbola izugarri gustatzen zait, jokatzeko, ikusteko... Eta gaurko aukera hau ez nuen galdu gura. Ikusten gabiltza, gainera, geroago eta jende gehiago hasi dela emakumezkoen futbola jarraitzen, eta hori ona da. Azken hilabeteotan milaka lagun joan dira emakumezkoen partiduak estadioetara ikustera".



**PABLO MUÑOZ**  
FUTBOLZALEA

"Gu Athleticzaleak gara eta Athleticceko neskek San Mamesen jokatu zutenean semea eta biok joan ginen partidua bertatik bertara ikustera. Gaur ere beste horrenbeste egin dugu, ikusi dezala semeak futbola ez dela gizonen kontua soilik. Gaur, bi taldeak animatuko ditugu".

# Euskadiko kenpo txapelketa, Musakolan

**BORROKA ARTEA** Domekan 100 borrokalari inguru batuko dira Musakolan, eta kenpo modalitate ezberdinetan jardungo dute: katak, armekin katak, defentsa pertsonala eta konbateak. Borrokaldiak puntura egingo dituzte, inork minik ez hartzeko

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Domekan, Euskadiko hamalau kenpo eskolatak ikasleak batuko dira Musakolako kantxan: "Guztira, 100 borrokalari inguru espero ditugu, baina buruz nabil. Adin ezberdinetakoak izango dira, gizonezkoak eta emakumezkoak, eta modalitate ezberdinetan jardungo dute. "Katak, armekin katak, defentsa pertsonala eta konbateak egingo dituzte", dio Iker Letonak.

Txapelketa antolatzeko ardurar Ziorla Kenpo taldeak izango du: "Kenpoa defentsa pertsonalean oinarrituriko borroka artea da. Pedro Martinek ekarri zuen gure bailarara 1999an eta orduetik eskola bat baino gehiago dugu bailaran. Arrasaten gurea dago, Ziorla Kenpo taldea, eta Eskoriatzan beste talde bat dago, Atama Kenpo taldea".

Domekako borrokaldiak puntura egingo dituzte, baina Letonak ez du baztertzeko etorkizun hurbilean kontaktuzko kenpoarekin ere lanean hasia: "Pare bat urtean horrekin hasiko gara lanean klubean".

## Borroka arteak baino gehiago

Letonak nabarmendu du kenpo borroka artea baino gehiago dela: "Jendeak uste du borroka arteak kolpe pila bat direla, baina hori baino asko ere gehiago da. Bizitza filosofia bat da kenpoa, eta domekakoa moduko txapelketak kenpoaren alor txiki bat besterik ez da. Jendea animatu nahiko nuke domekan Musakolara gerturatzeko, borroka arte honen berri gehiago jakiteko aukera paregabea izango dutelako".

## EUSKADIKO HAMALAU KLUBETAKO BORROKALARIAK ESPERO DITUZTE ETZI MUSAKOLAN



Argazkioinaxxx. I. LETONA

## "Full kenpoa ezin du edonork egin, KO-ra da, kontuz ibili behar da"

**IKER LETONA** ZIORLA KENPO TALDEKO KIDEA

Iker Letona epaile lanetan ibiliko da domekan Musakolan. Joan den astean, baina, Nafarroan egon da hainbat taldekideekin batera, kontaktua onartuta zegoen kenpo txapelketan esku hartzen.

### Zer moduzko txapelketa izan zen?

Jarraikako konbateak izan ziren, hor onartuta dago kontaktua. Aitor Mondragon, Igor Maniega eta hirurok joan ginen, gonbidatuta. Beteranoetan 90 kilotik gorako modalitatean irabazi egin nuen, Mondragon bigarren izan zen 80 kilotik beherakoetan eta Maniega hirugarren senior mailan 90 kilotik gorakoetan. Ondoren, full kenpoan jardun nuen.

### Zer da full kenpoa?

Kenpoaren modalitate bortitzena da. Konbateak KO-ra



IKER LETONA

egiten dira, eta oso babes gutxi jartzen da eskuetan. Hanketan, berriz, ez da babesik egoten.

### Edonork egin dezake?

Ez, arrakatsua da, min har daiteke eta kontu handiz ibili behar da. Gutxi dira halako borrokaldietara animatzen direnak. Europako txapelketan parte hartzeko gogor entrenatzen ibili den 26 urteko gazte batekin egin nuen borrokaldia. Galdu egin nuen, eta bai, sabelaldea minduta ekarri nuen; kar, kar.

## Ezin Stockholmera lehiatzera joan, Iberia konpainiaren erruz


**ATLETISMOA** Maialen Axpek Diamante Ligan hartu behar zuen esku, baina ezin izan ditu pertikak eraman

**X.U. ARRASATE**

Iberia hegazkin konpainiak ez dio Maialen Axperi Stockholmera egin beharreko bidaian pertikak fakturatzetik onartu. Arrasatekoak Diamante Ligan hartu behar zuen esku atzo, eguena, bertan batu ziren munduko atleta onentsuenak, baina Espainiako txapelkunak konpainiaren ezezkoa jaso zuen martitzenean.

### "Hau guztia lotsagarria da"

"Lotsagarria da Diamante Liga moduko txapelketa baterako sailkatu eta ondoren norbaitek zure esfortzuekin, denborarekin eta lanarekin modu horretara jolastea", adierazi du. Pertikak eraman ahal izateko -Axperenak 4,40 metroko luzera du eta 18 kilo pisatzen du- gestioak eginda izan arren, Arrasatekoaren entrenatzaile Francis Her-




Maialen Axpe. FELIX SANCHEZ

nandezek ezezkoa jaso zuen Madrilgo aireportuan. Hain zuzen, Nafarroatik irteten zen hegazkina txikia zelako hartu zuen entrenatzaileak Madrilerako bidea, eta han jaso zuen ezezkoa. Gainera, bidaia 1.500 euroak galdu egin dituzte.

## MENDIA Hamabost debagoiendar Zegama-Aizkorri


Domekan, ibarreko hauek egongo dira. Arrasatetik: Aritz Kortabarria, Iñigo Alzola, Urtzi Berasaluze, Kepa Mercader eta Eneko Urri-zalki. Oñatitik: Saioa Arkonada, Asier Alonso, Mikel Arenaza, Iban Letamendi, Jon Urzelai eta Aitor Zugasti. Bergaratik: Iker Badiola. Aretxabaletatik: Iban Sanchez eta Gaizka de Miguel. Eskoriatzatik: Gaizka Zubizarreta.



Iban Letamendi, 2013an. GOIENA

## FUTBOLA Vanesa Gimbert-ek, beste urtebete Athleticen

Bergarako futbol jokalaria Vanesa Gimbertek beste urtebete egingo du talde zuri-gorrian. Gimbert 2013-2014 denboraldian iritsi zen Athleticera, eta urte hauetan taldeko erreferenteetako bat izan da. Beteranoetako bat da (39 urte ditu), gainera, baina, hala ere, aurten partidu guztiak jokatu ditu, eta sei gol sartu.



Vanesa Gimbert. GOIENA

# Bilbora joan da aurtengo Euspot-eko sari nagusia

'Gorputza ON, buruari ON' iragarkia gailendu da; 'Piztu bizitza' lanak MUko ikasleen saria irabazi du; 'Ez zaitez aldrebestu, mugitu eta bizi' lanak, BHKlip saria; ikusleena, 'Nahi baduzu, ahal duzu' spotak; eta musika onenarena, 'Irabaz ezazu partida!' lanak

**A. Aranburuzabala** ARETXABALETA  
Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena umoristek gidatutako ekitaldian banatu zituzten atzo, eguena, euskarazko iragarki onenen sariak, lepo betetako Arkupe Kultura etxeko Zاراia aretoan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen du sariketa, Aretxabaleko Udalarekin, Mondragon Unibertsitatearekin, Arizmendi Ikastolarekin, Arteman Komunikazioarekin eta *Music Library*-rekin elkarlanean.

**Jarduera fisikoa sustatzeko**  
Antolatzaileak "pozik" daude, inoiz baino lan gehiago jasota,



*Gorputzari ON, Buruari ON* iragarkiak irabazi du Euspot lehiaketa. 'EUSPOT.EUS'

eta kalitateari dagokionez ere gora egin dutelako, Euskal Herriko askotariko txokoetatik 98 iragarki jaso dituztela aipatuta. Gizarte aktiboagoa sustatzeko helburuarekin, jarduera fisikoren onurei buruzko askotariko hausnarketak egin dituzte lehia-kideek.

Bilboko Jabi Juberaren eta Irati Agirreazkuenagaren *Gorputza ON, Buruari ON* izan da epaimahaikideen erabakiz, lanik onena, "spotaren kalitate tekniko eta mezuaren egokitasuna" goraipatuta. Foru Aldundiko Hizkuntza Normalizaziorako Zuzendari Garbiñe Mendizabalen eskutik jaso zuen 1.000 eurotako saria *Astindu zangoa, askatu gogoa* leloa duen iragarkiak.

Publikoaren saria, berriz, Gasteizera joan zen, eta Andoni Martinez de Madinak, Julen de la Sernak, Ieneko Ruiz de Azuak eta Ibai Lopezek jaso zuten Aretxabaleko alkate Unai Elkorooren eskutik, *Nahi baduzu, ahal baduzu* lanarengatik. Bizikleta estatikoa osagai nagusi duen eta Gasteizen grabatutako umorezko lana da hori, *Mugitu eta bizi* leloa daukana.

**Gazteen saria, Oihan Loitiz**

18 urte beherakoek egindako 62 lan jaso dituzte aurtun, eta, horien artean, Arrasaten grabatutako Oihan Loitiren *Ez zaitez aldrebestu, mugitu eta bizi* izenekoa nabarmendu dute epaimahaikideek, "spotaren kalitate teknikoa" baloratuta. Arizmendi Ikastolako komunikazio arduradun Alberto Garrok eman zion 250 euroko saria.

Maria Garcia, Maider Donoso eta Aitzol Zubizarreta ikasleek MU saria irabazi zuten, telebistaren aurrean txokolatezko opil jaten duen neska eta bat-batean korrikalari bihurtzen dena protagonista duen lanarekin. Spotaren "originaltasuna" goraipatu zieten, eta MUko irakasle Goio Aranaren eskutik jaso zuten 500 euroko oparia.

Musika sinkronizazio onenarena izan zen banatu zuten bosgarrena, eta "musika egokitasunagatik eta originaltasunagatik" jaso zituzten Eskoriatzako Leire Lezetak, Garazi Iglesiasek eta Malen Juradok 300 euro.

Aurtun aurkeztu diren iragarki guztiak *Euspot.eus* atarian daude ikusgai.

## Amaia antzokia

### Martin Zalakain Ekainak 1, 19:30

#### Dantza



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Laguntzaileak:



Sarrerak: [www.arrasate.eus](http://www.arrasate.eus)



# Nafarroako pertsonaiak eta gaiak 'Ttap' berrian

Iruñerriko Euskalerrria Irratia batu da 'Ttap' aldizkari digitaleko taldera, eta, gaurtik hasita, hamabostean behin, Nafarroako edizioa argitaratuko dute elkarlanean; iraila ezkerro, astero Gipuzkoan eta Bizkaian eskaintakoek oso harrera ona izan dute

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE *Ttap* aldizkaria %100 digitala da, eta gailu mugikorretatik kontsumitzeko pentsatuta dago. Publiko urbanoari begira enfokaturik dago, eta helburua aldizkari osoa ordu laurden batean irakurri ahal izatea dela dio aldizkari zuzendari Monika Belastegik: "Nahi duenari denbora gehiago pasatzeko aukera ere eskaintzen diogu multimedia gehigarrien bidez. *Ttap* aldizkaria, irakurri ez ezik, ukitu, ikusi eta entzun ere egin daiteke; eduki multimedia eta interaktiboa dira haren izaeraren ezaugarri nagusiak".

Irailetik jaitsi daitezke, doan, Gipuzkoako eta Bizkaiko edizioak; bakoitzeko 34 zenbaki argitaratu dira asteroko maiztasunarekin; aurrerantzean, Nafarroako gaiak eta pertsonaiak izango dira edizio berrian.

## Nafarroan gaur lehena

Gipuzkoako eta Bizkaiko edizioetan moduan, bertako kolaboratzaileek eta iritzi emaileek dute protagonismoa; eta horien artean daude: Anabel Arraiza, Angel Erro, Mikel Idoate, Santi Leone, Oskia Ugarte, Garazi Arrula eta Aingeru Epalzaren sinadurak. Estreinakoan, Anabel Arraizak Osasunako kapitain



Gipuzkoako, Nafarroako eta Bizkaiko aste honetako *Ttap* aldizkariak. AITOR LAGOMA

Oier Sanjurjori egindako elkarriketa argitaratuko da, -testuan, audioan eta bideoan-; horrez gainera, Oskia Ugarteren iritzi zutabea dago.

Edizioaren koordinazioa Juan Kruz Lakastak egingo du. Euskalerrria Irratiko kazetariak aldizkariaren balio sinbolikoa azpimarratu du: "Euskarak Nafarroan izan duen trataera kontuan hartuta, *Ttap* bezalako euskarri berri eta berritzailea euskaratik eta euskaraz iristek hainbat eta hainbat mito eta aurreiritzi deuseztatzeko. Au-

rrerapauso handia da, eta ilusio handiz egiten dugu".

## Doan jaitsi

Durandaldeko *Anboto*-ren, Zumaiako *Baleike*-ren, Debagoieneko Goienaren eta Tokikom-en ekimenez argitaratzen da, Barzelonako *Esguard* aldizkariarekin elkarlanean, eta horiei guztiei batu zaie, orain, Iruñerriko Euskalerrria Irratia.

Android eta iOS sistema eragilea duten gailuetan eskuratu daiteke, doako *Ttap* aplikazioa deskargatuta.

# Dantza eta antzerkia eskutik, Barojaren eleberria kontatzeko

Martin Zalakain abenturazalearen istorioak taularatuko ditu Argia Dantzari Taldeak zapatuan Amaia antzokian

## A. A. ARRASATE

"Arrakastaz" ari dira herriz herri *Martin Zalakain abenturazalea* eskaintzen; bihar, Amaia antzokian izango dira, 19:30ean; sarrerak *Arrasate.eus*-en erosi daitezke hamabost eurotan.

Dantza eta antzerkia, biak ala biak lotuta doazela azaldu du Iñaki Arregi dantza-maisuak: "Dantzaren inguruan egituratzen doa ikuskizuna eta horrek agintzen du gainontzeko guztia. Dantza aldetik esan dezaket

fronte ezberdinak jorratu ditugula kolorearen eta intentsitate dramatikoaren distirarako; hortaz, denetariokoak daude".

80 lagun izango dira taularen gainean; aurreko lanetan egin izan duten moduan, Euskal Herri osoko dantzariak daude, batetik, eta horientzako musika zuzenean sortzen hamabost laguneko orkestra. Ander Lipus aktorea ere ikuskizunean pieza garrantzitsua da, Pio Barojaren rolean sartuta haren obraren kontakizuna egiten du.

## Goiena Klubaren txokoa

### Goiena Klubeko maiatzeko sariak!



**Ebook reader**  
Parte hartzeko sariaren izena: Ebook



### Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



### Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.  
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



### PARTE HARTZEKO: MAIATZAREN 30ERA ARTE

Posta elektronikoz: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaleen artean egingo da zozketa.

Irailaren 15etik 12:00:00 artean erosi behar dira sariak. Saria irabazteko zuzenean irabazteko aukera izango da. Saria irabazteko zuzenean irabazteko aukera izango da. Saria irabazteko zuzenean irabazteko aukera izango da. Saria irabazteko zuzenean irabazteko aukera izango da.

## Irabazi bi lagunendako otordua

### ERREKI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan etala eta hertu perta!

943 25 05 05 [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

KLUBA Jotetxea  
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...




Bazkidetu orain 2019rako  
56€ ordainduta  
Deitu: 943 25 05 05  
[kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)


**goienakluba**  
Euskara irabazle, denok irabaziel



**ESKER ONA**



**Esperanza Astaburuaga Herrera**



2019ko maiatzaren 24an hil zen, 86 urte zituela.

---

*Emaztea, ama eta amama  
beti egongo zara gure bihotzean  
beti irribarre batekin  
gure aldamenean.*

Etxekoak.

---

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno  
eskerrik asko, sendikoen izenean.

---

Arrasaten, 2019ko maiatzaren 31n.

**ESKER ONA**



**Ignacio Garitano Manurga**



2019ko maiatzaren 26an hil zen, 80 urte zituela.

---


Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno  
eskerrik asko, sendikoen izenean.

*Aitxixa  
Saskia hartu eta zoaz  
Euskal Herriko basoetan barrena  
Gure bihotzetan ereinda utzi duzu eta,  
zure hazirik ederrena,  
Zure maitasuna.*


---

Malen, Unax, June eta Ion.  
Bergaran, 2019ko maiatzaren 31n.

**ESKER ONA**



**Martin Alberdi Iribecanpos**



2019ko maiatzaren 29an hil zen, 87 urte zituela.


---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.


---

Bergaran, 2019ko maiatzaren 31n.

**ESKER ONA**



**Arantza Egaña Aguirre**



2019ko maiatzaren 21ean hil zen, 59 urte zituela.

---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.


---

Ondra meza zapatuan izango da, ekainaren 1ean,  
19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.  
Bertaratuko zaretenoi alde zurretik eskerrik asko.


---

Oñatin, 2019ko maiatzaren 31n.

**ESKER ONA**



**Jesus Bengoa Cortabarría**



Julia Urcelayren alarguna  
2019ko maiatzaren 27an hil zen, 84 urte zituela.


---

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,  
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.  
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.


---

Oñatin, 2019ko maiatzaren 31n.

**URTEURRENA**



**Ion Murguzur Orueta**



'Murgu'  
2017ko maiatzaren 29an hil zen, 44 urte zituela.

---

*Zure hutsunea sentitu dugu  
gure kuadrillan barrena  
baina sekula ez da hustuko  
gugan utzi zenuena.*

---

Zure kuadrilla.  
Oñatin, 2019ko maiatzaren 31n.

**URTEURRENA**



**Jesusa Malbadi Olano**



2018ko ekainaren 5ean hil zen, 84 urte zituela.

---

Urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 2an,  
12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

---

*Zure oroimenak indartzen gaitu.*

---

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Arrasaten, 2019ko maiatzaren 31n.

**URTEURRENA**



**Teresa Madariaga Alberdi**



Antonio Yarza Mendiaraen alarguna  
2018ko ekainaren 1ean hil zen, 90 urte zituela.

---

*Eskuzabal emanean eta  
ezer ez ordainean.  
Ama, amama, birramama  
beti izango zaitugu gure bihotzean.  
Muxu goxo bat etxekoan izenean.*


---

Urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 2an,  
11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren eliza nagusian.


---

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Antzuolan, 2019ko maiatzaren 31n.

**URTEURRENA**



**Pakita Gamboa Lopez de Bergara**



2018ko ekainaren 1ean hil zen, 73 urte zituela.


---

Urteurreneko meza zapatuan izango da, ekainaren 1ean,  
19:00etan, Aramaioko Urbarri auzoko San Esteban elizan.


---

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Aramaion, 2019ko maiatzaren 31n.

**OROIGARRIA**



**Julian Unzueta Etxebarria**



Benedicta Gardoki Mazmelaren alarguna  
2019ko maiatzaren 28an hil zen.


---

*Burua argi, eskua zabal, bihotza bero;  
holakoa zinen eta holan gordeko zaitugu gogoan betiko.*


---

Etxekoak.  
Aramaion, 2019ko maiatzaren 31n.

**OROIGARRIA**



**Julian Unzueta Etxebarria**




Aramaioke seme kuttuna eta alkate ohia  
2019ko maiatzaren 28an hil zen.

---

*Herriari eskainitako guztiagatik, esker onez, Aramaioko Udalak.*

---



---

Aramaion, 2019ko maiatzaren 31n.

**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu





*Jakin ezazue  
nahiz eta heriotz  
asegurua  
izan, zuek  
nahi duzuen  
hileta-zerbitzua  
aukeratzeko  
eskubide osoa  
duzuela.*

*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza  
dut beti zuentzako.*

**Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA**

## TXUTXU-MUTXUAK

**1. Talde argazkia eta omenaldia**

Beart eguna ospatu zuten aurreko aste bukaeran elkarteko kideek, euren lanak kalera aterata. Gainera, taldeko kide Juanjo Altuna omendu zuten.

**2. Pailazoak, ikasleekin**

Pirritx, Porrotx eta Marimotots Arizmendiko Santa Teresa gunean egon ziren, *Humanity at music* abestiaren bideoklipa grabatzen. Jolasteko ere aprobetxatu zuten bisita.

**3. Erretiratua, Bilbon**

Arrasateko Abaroako hainbat erretiratut egun-pasa egin zuten Bilbon, hilaren 22an. Hiriburua ezagutu eta paseoan ibiltzeko aprobetxatu zuten.

**4. Urbiara ibilaldia**

Arrasate Herri Eskolako guraso elkartearen eskutik, Urbiara ibilaldia egin zuten hilaren 26an. 34 lagun joan ziren: hamazazpi heldu eta beste horrenbeste ume.

**5. Urrezko ezteiak**

Catalina De Antak eta Miguel Romerok ezkondu zireneko 50 urteurrena beteko dute gaur, maiatzak 31. "Ondo pasa eguna, seme-alaben eta biloba Uxueren partetik".

**6. 25 urte ezkondua**

Arrasateko Juan Nafarratek eta Manoli Buenok ekainaren 1ean ospatuko dute. "Zorionak! Pozarren ospatuko dugu zuekin. Muxu handi bana, familia osoaren partetik".

**Kontatu, kontatu!**

Badakazu ezkontzaren baten berririk? Edo kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

**Ordezkaritzak**

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.




ZORION AGURRAK




**ARRASATE**  
**Jon Bereziartua Zabala**  
Ekainaren 5ean, 4 urte. Zorionak, potxolo! Lau urte munduari irribarre egiten, lau urte guretzako bizipoz iturri izaten. Segi horrela, polit hori!




**ARETXABALETA**  
**Alain Rodriguez Arca**  
Ekainaren 5ean, 6 urte. Nire txiki erraldoia, zorionak lehengusuen eta familiaren izenean! Muxu mordoia, amatxok eta aitaxok.



**BERGARA**  
**Amets Uribesalgo Uzin**  
Ekainaren 5ean, 5 urte. Zorionak, txapeldun! Etxeko danen, lehengusuen eta, batez ere, zure anaia Egoitzen partetik.



**ANTZUOLA**  
**Maddi Larrea Garitano eta Iker Larrea Soraluze**  
Maddik ekainaren 3an, 6 urte eta Ikerrek ekainaren 2an, 42 urte. Zorionak, bikote! Ondo ospatu zuen urtebetetze egunak. Muxu handi bana, etxekoan partetik!



**ONATI**  
**Hegoi Zumalde Iraxabala**  
Ekainaren 2an, 3 urte. Zorionak, Hegoi! Betiko bezela jarraitu eta etxeko danon partetik, muxuak.



**BERGARA**  
**Maddi Gallastegi Etxeberria**  
Ekainaren 2an, 10 urte. Zorionak, *pitxirrina!* Egun polita pasa deizula etxekoekin eta laguntxoekin batera. Patxo handi bat!



**ESKORRIATZA**  
**Enara eta Olatz Urrutia Lasagabaster**  
Enarak ekainaren 2an, 12 urte eta Olatzek ekainaren 4an, 8 urte. Zorionak, printzesak! Heldu da! Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze egunak! Patxo handi bat zuentzat, guztion partetik!



**ARETXABALETA**  
**Mare Ezkibel Olalde**  
Maiatzaren 31n, urtebete. Zorionak, poliit hori! Patxo bat etxeko danen partetik!



**BERGARA**  
**Aratz Sotil Barrio**  
Maiatzaren 30ean, 10 urte. Zorionak, bidsotz! Asko disfrute egunaz. Muxu erraldoi bana familia guztiaren eta, bereziki, Sararen, Unairen eta Malenen partetik.



**ARRASATE**  
**Haizea Errasti Canales**  
Maiatzaren 29an, 7 urte. Zorionak, printzesa! Patxo handi bat, familiako guztion eta, bereziki, Markelen, Aitorren, Juneren eta Alazneren partetik.



**ARETXABALETA**  
**Ekain Urteaga Larrea**  
Maiatzaren 28an, 6 urte. Zorionak, Ekain! Patxo handi bat!



**ARRASATE**  
**Danel Saiz Ceciaga**  
Maiatzaren 28an, 5 urte. Zorionak, maitia! Begi urdin, zu zara gure poza. Ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat aitaxoren, amatxoren eta, batez ere, zure arreba Anetxuren partetik.




**ARETXABALETA**  
**Xabier Garcia Crespo**  
Maiatzaren 27an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat!



**ONATI**  
**Luka Goitia Osinaga**  
Maiatzaren 27an, urtebete. Zorionak, xagutxo! Urtebete jada... ze azkar pasatu dan! Patxo potolo pila bat, maitte zauen danon eta, batez be, Mattinen partetik!



**ARRASATE**  
**Eider Villamor Sanchez**  
Maiatzaren 26an, 9 urte. Zorionak, pirata! Bederatzi urte gure bizitzak alaitzen. Betirako zoriotsu izatea opa dizugu. Zure tio, tia, amama, aitite eta bereziki Aiurren partetik!




**ESKORRIATZA**  
**Xabier Orobengoa Nevado**  
Maiatzaren 25ean, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Besarkada bat etxeko guztien partetik. Batez ere, anaia Anerrek bidaltzen dizuna.



**ANTZUOLA**  
**Hodei Aranzabal Fernandez**  
Maiatzaren 25ean, 8 urte. Zorionak, artista! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu bat etxeko danon partetik.



**ANTZUOLA**  
**Ekain Irizar Fernandez**  
Maiatzaren 25ean, 9 urte. Zorionak, Ekain, jada 9 urte! Ondo pasatu zure eguna eta muxu eta besarkada handi bat, etxeko danon partetik.



**ARAMAIO**  
**Galder Iburguren Beltran de Guevara**  
Maiatzaren 23an, 5 urte. Zorionak, maitia! Munduan ez dago zu bezalakorik. Muxu erraldoi bat.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



**AGINTALDIKO AZKEN OSOKO BILKURA BERGARAN**  
*'Bereziak'* Zapatua, 14:00 eta 23:30



**ANA GOITIARI ELKARRIZKETA**  
*'Elkarrizketa'* Egubakoitza, 21:30 eta 23:30

EGUBAKOITZA, 31	ZAPATUA, 1	DOMEKA, 2
10:00 Hemen Debagoiena	09:00 123 Hemen da Miru	09:00 Txantxariak 14
11:00 Elkarrizketa: Patri Espinar	09:30 Txantxariak 14	09:30 Kantari 3
11:30 Hemen Debagoiena	10:00 Kantari 3	10:00 123 Hemen da Miru
12:30 Elkarrizketa: Mikel Kazalis	10:30 123 Hemen da Miru	10:30 Txantxariak 14
13:00 Hiri -baratzea	11:00 Hemen Debagoiena	11:00 Kantari 3
13:30 Hemen Debagoiena	12:00 Elkarrizketa: Ana Goitia	11:30 123 Hemen da Miru
14:30 Albisteak	12:30 Hiri -baratzea	12:00 Futbol: Real-Alaves
14:45 Harmailatik	13:00 Hemen Debagoiena	14:15 Asteko errepasoa
15:15 Hemen Debagoiena	14:00 Osoko bilkura: Bergara	14:45 Hemen Debagoiena
16:15 Albisteak	15:00 Hemen Debagoiena	15:30 Kantari 3
16:30 Kantari 2	16:00 Hiri -baratzea	16:00 123 Hemen da Miru
17:00 Albisteak	16:30 Ajoarriero: Txari Eleta	16:30 Hiri -baratzea
17:15 Ajoarriero: Txari Eleta	17:00 Futbol: Real-Alaves	17:00 Elkarrizketa: Ana Goitia
17:45 Albisteak	19:15 Hemen Debagoiena	17:30 Asteko errepasoa
18:00 Hemen Debagoiena	20:00 Osoko bilkura: Bergara	18:00 Osoko bilkura: Bergara
19:00 Elkarrizketa: Patri Espinar	21:00 Hiri -baratzea	19:00 Ajoarriero: Txari Eleta
19:30 Hiri -baratzea	21:30 Elkarrizketa: Mikel Kazalis	19:30 Elkarrizketa: Mikel Kazalis
20:00 Hemen Debagoiena	22:00 Harmailatik	20:00 Hemen Debagoiena
21:30 Elkarrizketa: Ana Goitia	22:30 Hemen Debagoiena	21:00 Futbol: Real-Alaves
22:00 Hemen Debagoiena	23:00 Osoko bilkura: Bergara	23:15 Elkarrizketa: Ana Goitia
23:00 Hiri -baratzea		23:45 Hemen Debagoiena

**ASTELEHENA, 3**  
**ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK**  
*'Harmailatik'*  
21:30/23:30

**MARTITZENA, 3**  
**ELKARRIZKETA ETA ERREPORTAJEAK**  
*'Hemen Debagoiena'*  
18:00/20:00/22:00



**EGUAZTENA, 5**  
**MIKEL ORBAÑANOSI ELKARRIZKETA**  
*'Elkarrizketa'*  
21:30/23:30

**EGUENA, 6**  
**'HIRI-BARATZEA'**  
*'Bereziak'*  
21:30/23:30

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

**Internet**

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.eus](mailto:zorionagurra@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**

Etor zaitetz Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 31

**ESKORIATZA 'Barnekotasuna lantzea: giza garapenaren gakoei buruzko gogoetak' jardunaldia**

Xavier Mellonik eta Berta Menesesek hartuko dute parte.  
*Huhezin, 09:00etan.*

**BERGARA Glutenik gabeko jai**  
Postre lehiaketa, zozketak, taberna, merienda, jolasak, gaztelu puzgarriak...  
*San Martin plazan, 17:00etan.***OÑATI Eskola Kiroleko azken jai**

18:00etan, joko egokituak LHko 6. mailako ikasleei zuzenduta; eta 19:00etan, Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. maila arteko ikasleentzat opari eta domina banaketa.  
*Zubikoan.*

**ELGETA San Juan sua: batzarra**  
Gaztetxoendako deia.  
*Udaletxean, 18:00etan.***OÑATI Oñati Abesbatzaren kontzertua**

Coral Sellares De Gava taldearekin.  
*Bidaurretan, 19:00etan.*

**BERGARA Mahonero Eguna**  
19:00etan, buruhandiak; 20:00etan, kontzertua; 21:00etan, afaria; eta 22:00etan, musika gaua.  
*Seminarioan.***ARAMAIO Dr. Moranx taldea**  
Aitor Moreno baxu-jole arrasatearraren jazz proiektuaren emanaldia, Musika Astearen baitan.  
*Sastiñan, 19:30ean.***BERGARA Telmo Esnalekin solasaldia**  
Dantza pelikularen emanaldiaren aurretik, zuzendariarekin berba egiteko aukera egongo da.  
*Seminarioan, 21:30ean.*

## ZAPATUA 1

**ARRASATE Erreka garbiketa auzolanean**  
Ostea, luntxa egongo da (12:30).  
*Euskara plazan, 10:00etan.***ESKORIATZA 23. Ferixia**  
Baserriko produktuak, artisautza, taloak... 15:00etan, *Zuk ekarri zuk jan* bazkaria; eta 19:00etan, txapel jaurtiketa lehiaketa.  
*Fernando Eskoriatza plazan.***BERGARA Mahonero Eguna**  
10:00etan, puzgarriak, jolasak, ginkana...; 12:00etan, dantza erakustaldia; 13:00etan, triki-poteoa; 15:00etan, bazkaria; 17:30ean, mus eta mahai-futbol txapelketak; 19:00etan, karaokea; 21:00etan, afaria; eta 22:00etan, dantzaldia.  
*Seminarioan.***OÑATI Urgain Eguna**  
11:30ean, jaiari hasiera, eta jolasak kaleetan zehar, musikarekin; 14:00etan, bazkaria; 15:30ean, antzerkia DBHko ikasleen eskutik; 16:00etan, puzgarriak eta apar festa; 17:00etan, gurasoendako jolasak; eta, 18:30ean, familia argazkia.  
*Zuzaloz institutuan.***BERGARA Tronboi topaketa**  
11:30ean, kalejira; eta 12:30ean, *Tronboneitor.*  
*San Martin plazan.***OÑATI Ibilbide gidatua**  
Oñatiko emakumiak errekautean lana oinarri hartuta egingo dute ibilaldia Atzeko kalean eta Portalekuan.  
*Foruen plazan, 11:30ean.***OÑATI Asentzio jaiak**  
12:00etan, auzoko produktuen dastatzea; 13:00etan, bertso saioa; 15:30ean, mus txapelketa; 16:30ean, pailazoak eta txokolate-jana; 17:30ean, auzo-kirolak; 20:30ean, trikitilariak; eta 21:00etan, afaria.  
*Murgian.***OÑATI Ur-uhinak parkea: irekiera**  
Irailaren 22ra arte egongo da zabalik, 13:00etatik 21:00etara.  
*San Lorentzon.***OÑATI 'Arrikruzteko lehoiaren bila' espeleotxiki irteera**  
Pasarela kano abentura familia osoarentzat. 6 urtetik gorako haurrendako, heldu batek

lagunduta. Aurrez eman behar da izena 943-08 20 00 telefononon.  
*Arrikruzten, 15:30ean.*

**ARAMAIO Azkaiter Pelox**  
Folk eta rock doinuak, Musika Astearen baitan.  
*Sastiñan, 19:00etan.***ARRASATE 'Martin Zalakin' dantza emanaldia**  
Dantzariak eta musikariak eskuz esku ibiliko dira Ander Lipusen eta Harkaitz Canoren moldaketan. Sarrerak, hamabost euro.  
*Amaia antzokian, 19:30ean.***ARAMAIO 'El cuarteto' filma**  
Musika Astearen baitan, *Ikusiz gozatu* ekimena.  
*Kultura etxean, 21:00etan.***ELGETA EH Sukarra**  
Eibarko taldearen kontzertua. Kantu esanguratsuenen errepaso egingo dute. Sarrerak, aurrez, hamabi euro, eta leihatilan, hamabost.  
*Espaloian, 22:30ean.*

## DOMEKA 2

**ELGETA Mendi irteera familian**  
Leintz Gatzagatik Atxorrotxera joango dira. Era berean, Gatz Museoa debalde bisitatzeko aukera egongo da.  
*Mendizaleen plazan, 09:00etan.***OÑATI Zegama-Aizkorri: autobus zerbitzua**  
Arantzazura igotzeko zerbitzua indartuko dute, autobus handiagoa ipiniz, ordu erdiko maiztasunarekin.  
*Oñatin.***LEINTZ GATZAGA XVII. mendi bizikleta martxa**  
33 kilometroko ibilbidea -iazkoaren antzekoa-, baina, desbideraketak hartuta, motzagoa egin ahal izango da.  
*San Migel plazan, 09:30ean.***OÑATI 'Ezagutu pottoka' bisita berezia**  
Urriagaingo aparkalekuan egingo dute. Debalde izango da, baina aurrez eman behar da izena, 670 27 44 61 telefononon.  
*Urriagainen, 11:00etan.*

GOIENA

**DEBAGOIENA Debagoieneko Trikitilari Eguna**  
Soraluzen egingo dute aurten. 11:00etan, hamarretakoa; 11:30ean, kalejira; 12:30ean, ekitaldi nagusia; 14:30ean, bazkaria; 17:00etan, konboak; 18:00etan, erromeria; eta, 20:00etan, triki-poteoa.  
*Bihar, zapatua, Soraluzeko kaleetan.***OÑATI Asentzio jaiak**  
12:00etan, meza nagusia; 13:00etan, auzotarrei omenaldia; eta ostean, luntxa.  
*Murgian.***OÑATI Gimnasia erritmikoko erakustaldia**  
Ikasturte amaiera saioa egingo dute Aloñako gimnastek.  
*Zubikoan, 12:00etan.***ARAMAIO Santi Kurtz eguna**  
12:00etan, meza; eta ostean, salda eta txorizo pintxoak, trikitilariak girotuta. Arexolako eta Arriolako auzotarrek antolatutako festa da.  
*Santikurtzen.***BERGARA Euskal dantza taldeen emanaldia**  
Musika eskolako dantza taldeak, Janire Urbietaren, Xamatzen eta Moises Aspiazuren taldeek eta erraldoi taldeak elkarrekin egingo dute dantza.  
*San Martin plazan, 12:00etan.***ESKORIATZA Xaboigintza tailerra**  
Usain eta kolore ezberdinetako xaboiak sortzeko aukera izango dute gaztetxoek. Materiala gaztelekuak ipiniko du.  
*Gaztelekuan, 17:30ean.***ARAMAIO 'CHAVELA' DOKUMENTALA**  
Costa Ricako abeslariari buruz Catherine Gund zuzendariak egindako lana, Musika Astearen baitan.  
*Kultura etxean, 19:00etan.***BERGARA Hots Abesbatza**  
Oñatiko abesbatzaren kontzertu sinfoniko-korala.  
*Mariaren Lagundian, 19:00etan.*

## ASTELEHENA 3

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**  
Pentsio duinak eskatzeko.  
*Foruen plazan, 12:00etan.***OÑATI Erorketak prebenitzeko tailerra**  
Landuko dituzte, besteak beste, zergatik gertatzen diren istripu horiek, zer garrantzizkoak diren ohitura osasungarriak eta ariketa teknikoak dauden eskuragarri.  
*Euskaldun berria gelan, 17:00etan.***ARAMAIO Yolanda Arrietarekin solasaldi**  
Etxeberriko idazleak bere azken liburuz egingo du berba.  
*Sastiñan, 18:00etan.***ARRASATE 'Quattrocentotik' erakusketa**  
Pintura tailerretako lagunek egindako lanak ikusgai, hilaren 14ra arte.  
*Kulturaten, 18:00etan.*

## MARTITZENA 4

**ARRASATE Odol ateratzea**  
Ekaineko lehenengo deialdia.  
*Anbulatorioan, 16:30ean.*



FAGOR TALDEAREN

# Batzar Nagusia 2019



*Talde honetatik izan ginen Kooperatibagintzaren hazi.  
Etorkizunerantz behar dugu bere fruituetan hazi.*

2018ko datu adierazgarrienak



fagoredenlantaldea

